IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# Hautaketa prozesuetarako galdera sorta: Administrazio Laguntzaileen Kidegoa

2022

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# Hautaketa prozesuetarako galdera sorta: Administrazio Laguntzaileen Kidegoa

2022

IVAPek kontserbatu egiten ditu argitaraturiko lanen ondare-eskubideak (copyright), eta lan horien berrerabilpena baimentzen eta sustatzen du, BY-NC-ND erabilera-lizentziaren pean.

Liburu hau edizio elektronikoan argitaratzen da, Creative Commons-en BY-NC-ND lizentziaren pean. Kopiatu, erabili, zabaldu, transmititu eta erakutsi daiteke, honako baldintza hauek beteta: 1) egiletza eta argitalpenaren jatorrizko iturria aipatzea (aldizkaria, argitaletxea eta lanaren URLa); 2) helburu komertzialetarako ez erabiltzea; 3) erabilera-lizentzia eta berorren espezifikazioak aipatzea.

Edizioa: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Administración Pública

ISBN: 978-84-7777-667-3

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 1. gaia

1 Noiz berretsi zen 1978ko Konstituzioa?

1a) 1978ko abenduaren 8an.
1b) 1978ko abenduaren 6an.
1c) 1978ko azaroaren 20an.
1d) 1978ko uztailaren 18an.

2 Konstituzioaren 1.2. artikuluaren arabera, non datza nazioaren subiranotasuna?

2a) Espainiako herrian.
2b) Gorte Nagusietan eta herrian.
2c) Erregearengan.
2d) Estatuko botereetan.

3 Nor da estatuko burua?

3a) Gobernuko presidentea.
3b) Gobernua.
3c) Erregea.
3d) Kongresuko presidentea.

4 Konstituzio Auzitegiak EZ du lege-indarreko arau hauetako baten konstituzionaltasun-kontrolik egiten; zein arau da?

4a) Autonomia-estatutuak.
4b) Europar Batasunaren Zuzenbideko arauak.
4c) Kongresuko erregelamendua.
4d) Lurralde historikoetako zergen arloko foru-arauak.

5 Zenbat magistratu ditu Konstituzio Auzitegiak?

5a) Sei.
5b) Zortzi.
5c) Hamar.
5d) Hamabi.

ISBN: 978-84-7777-667-3

6 «Konstituzioak lurralde forudunetako eskubide historikoak babestu eta errespetatzen ditu. Foru-araubide horren eguneratze orokorra, hala denean, Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen eremuan burutuko da». Non jasotzen da agindu hori?

6a) Konstituzioaren 1 artikuluan.
6b) Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian.
6c) Konstituzioaren laugarren xedapen iragankorrean.
6d) Konstituzioaren hitzaurrean.

7 Nolako organoa da Konstituzio Auzitegia?

7a) Ez jurisdikzionala.
7b) Botere Judizialean integratua.
7c) Botere Judizialean integratu gabea.
7d) Konstituzioaren, Konstituzio Auzitegiaren lege organikoaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren mende dagoena.

8 Zer babesteko erabil daiteke babes-errekurtsoa Konstituzio Auzitegiaren aurrean?

8a) Konstituzioaren 14. artikulutik 29. artikulura bitartean aitortutako eskubideak.
8b) Konstituzioaren 29. artikulutik 55. artikulura bitartean aitortutako eskubideak.
8c) Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidariak.
8d) Berdintasunerako eskubideak.

9 Ezaugarri hauetako bat baztertu egiten du espresuki Espainiako Konstituzioak zerga-sistemak bete behar dituen printzipioak zehaztean; zein?

9a) Sistema zuzena izan behar da.
9b) Bakoitzaren ekonomia-ahalbidearen araberako ekarpenean oinarrituta egon behar da.
9c) Konfiskatzailea izan daiteke.
9d) Berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarritu behar da.

10 Nola onartu behar dira lege organikoak?

10a) Senatuaren gehiengo osoz.
10b) Kongresuaren gehiengo osoz.
10c) Kongresuaren eta Senatuaren gehiengo osoz.
10d) Kongresuaren eta Senatuaren bi herenen gehiengoz.

11 Herriaren Defendatzaileak EZ du ahalmen hauetako bat; zein?

11a) Betearazlea.
11b) Ikuskatzeko eta ikertzeko ahalmena.
11c) Konstituzio Auzitegian konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa jartzeko ahalmena.
11d) Iradokizunak eta gomendioak egiteko ahalmena.

12 Zer iraupen du Herri Defendatzailearen agintaldiak?

12a) 4 urte, eta ezin da berriz hautatua izan.
12b) 4 urte, eta berriz izan daiteke hautatua.
12c) 5 urte, eta ezin da berriz hautatua izan.
12d) 5 urte, eta berriz izan daiteke hautatua.

13 Hauetako zein ez dago legitimaturik Konstituzio Auzitegian babes-errekurtsoa jartzeko?

13a) Herriaren Defendatzailea.
13b) Ministerio Fiskala.
13c) Errekurritutako egintzak edo omisioak ukitutako pertsona fisiko edo juridiko oro.
13d) 50 diputatu.

**14 Nazio Batuen Erakundearen esparruan, zer izen du partikularrek estatuen kontra giza eskubideak urratzeagatik aurkezten dituzten kexak aztertzen dituen organoak?**

14a) Giza Eskubideen Kontseilua.
14b) Giza Eskubideen Europako Auzitegia.
14c) Herrien Kontseilua.
14d) Giza Eskubideen Batzordea.

**15 Non du egoitza Giza Eskubideen Europako Auzitegiak?**

15a) Luxenburgon.
15b) Estrasburgon.
15c) Bruselan.
15d) Parisen.

**16 Nork errespetatu behar du Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna?**

16a) Europar Batasuneko erakundeek soilik.
16b) Europar Batasuneko estatu kideek soilik.
16c) Europar Batasuneko erakundeek eta estatu kideek, nahiz eta estatu horiek EBko Zuzenbidea ez aplikatu.
16d) Europar Batasuneko erakundeek, bai eta estatu kideek ere, EBko zuzenbidea aplikatzen dutenean.

**17 Alarma-egoera deklaratzen bada:**

17a) Oinarrizko eskubideak eten daitezke.
17b) Oinarrizko eskubideak baliatzea mugatu daiteke.
17c) Espainiako Konstituzioaren 17.3 artikuluan aurreikusitako bermeak eten daitezke: atxilotu guztiei lehenbailehen eta ulertzeko moduan jakinaraztea zer eskubide dituzten eta zergatik atxilotu dituzten, eta eginbide polizialetan eta judizialetan abokatu-laguntza izatea.
17d) Oinarrizko eskubideak ezin dira, ez eten, ez mugatu.

**18 Babes-errekurtsoaren bidez, babesa lortzen da onartutako eskubide eta askatasunen aurka egiten duten botere publikoen edozein egintzaren aurrean; baina non daude jasota eskubide eta askatasun horiek?**

18a) Espainiako Konstituzioaren atariko tituluan.
18b) Espainiako Konstituzioaren II. tituluan.
18c) Espainiako Konstituzioaren III. tituluan.
18d) Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan, bigarren kapituluko lehenengo atalean eta kontzientzia-eragozpenerako eskubidea aitortzen duen 30. artikuluan.

**19 Konstituzioaren arabera, zer balia daiteke ordena publikoa larriki asaldatzen duten kasuetan?**

19a) Alarma-egoera.
19b) Salbuespen-egoera.
19c) Sitio-egoera.
19d) Katastrofe-egoera.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 2. gaia

20 Espainiako 1978ko Konstituzioan zer titulu eskaintzen zaio «Estatuaren lurralde-antolaketari»?

20a) Lehena.
20b) Hirugarrena.
20c) Zortzigarrena.
20d) Konstituzioan ez da lurralde-antolaketa arautzen.

21 Hauetako zein ez da lurralde mailako toki-entitate bat?

21a) Udalerria.
21b) Probintzia.
21c) Uhartea.
21d) Mankomunitateak.

22 Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, zein dira Estatuaren lurralde-antolaketaren oinarrizko entitateak?

22a) Probintziak.
22b) Autonomia-erkidegoak.
22c) Udalerriak.
22d) Eskualdeak.

23 Zer alde dago, funtsean, araubide erkideko probintzien eta lurralde historikoen artean?

23a) Eskumen-eremua soilik.
23b) Antolaketa-eremua soilik.
23c) Antolaketa-eremua nahiz eskumenenak.
23d) Ez dago alderik.

24 Nolako autonomia aitortzen die Konstituzioak udalerriei eta probintziei?

24a) Administratiboa soilik.
24b) Politikoa.
24c) Politikoa eta administratiboa.
24d) Konstituzioak ez die autonomiarik aitortzen ez udalerriei, ez probintziei.

25 Eskumen publikoak gauzatzea nori dagokiola esan nahi du, oro har, toki-erakundeei aplikatutako subsidiariotasun-printzipioak?

25a) Baliabide onenak dituzten agintariei.
25b) Estatuko agintaritza zentralei.
25c) Herritarrengandik hurbilen dauden agintariei.
25d) Zenbait udalerri biltzen dituzten agintariei.

26 Ahal hauetako bat ez dagokie udalerriei; zein?

26a) Erregelamenduak egiteko ahala.
26b) Zergetako eta finantzetako ahala.
26c) Egintzak nahitaez betearazteko ahala.
26d) Legegintzako ahala.

27 Zenbat probintzia ditu Espainiako lurraldeak?

27a) 30 probintzia.
27b) 40 probintzia.
27c) 50 probintzia.
27d) 60 probintzia.

28 Zein da okerra?

28a) Alkate hautatua izateko, zinegotzien botoen gehiengo osoa lortu behar da eratze-bilkuran.
28b) Zinegotzien gehiengo oso hori lortzen ez bada, boto gehien lortu duen zerrendako burua hautatuko da alkate.
28c) Zinegotzien gehiengo oso hori lortzen ez bada, eta boto gehien lortu dituzten zerrendetako boto kopuruan berdinketa izan bada, zozketa bidez ebatziko da.
28d) Alkatea auzotarrek hautatzen dute zuzenean.

29 Nori dagozkio Estatuak edota autonomia-erkidegoek udalari esleitu arren udaleko organo jakin bati egotzi ez dizkioten eginkizunak?

29a) Alkateari.
29b) Osoko bilkurari.
29c) Tokiko gobernu-batzarrari.
29d) Gaiarekin erlazioa duen zinegotzi ordezkariari.

30 Nori dagokio alkateordeak izendatzea?

30a) Udalbatzari.
30b) Tokiko gobernu-batzarrari.
30c) Alkateari.
30d) Gobernu-ordezkariari.

31 Organo hauetako bat ez da udaletako beharrezko organo bat; zein?

31a) Udalbatza.
31b) Alkateordea.
31c) Kontuen batzorde berezia.
31d) Herritarren partaidetzako batzordea.

ISBN: 978-84-7777-667-3

32 Ezaugarri hauetako bat ez da lurralde-boterea antolatzeko eredu bateratu edo zentralizatuen ezaugarri; zein?

32a) Estatu osoan antolamendu juridiko bakarra dago.
32b) Estatuaren lurralde osoan eskudunak diren erakundeen multzo bakarra dago.
32c) Botere publikoek hierarkikoki antolatzen dituzte beren lurralde-instantzia guztiak.
32d) Lurralde-autonomiei beregaintasuna aitortzen zaie interes propioak kudeatzeko.

33 Konstituzioaren 2. artikuluak zeren autonomia-eskubidea aitortzen eta bermatzen du?

33a) Espainia osatzen duten nazionalitate eta eskualdeena.
33b) Lurralde autonomoena.
33c) Eskualde autonomoena soilik.
33d) Nazionalitate historikoena soilik.

34 Nola definituko zenuke Estatua autonomia-erkidegoetan antolatzeko modua?

34a) Deszentralizazio administratiboa.
34b) Deszentralizazio politikoa.
34c) Oinarrizko zentralizazioa.
34d) Zentralizazio funtzionala.

35 Konstituzioaren 1.2 artikuluaren arabera, nor da subiranotasunaren titularra?

35a) Botere judiziala.
35b) Espainiako herria.
35c) Erregea.
35d) Estatua.

36 Zein izan zen Euskal Autonomia Erkidegoak autonomia eskuratzeko bidea?

36a) Espainiako Konstituzioaren 143. artikulua.
36b) Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria.
36c) Espainiako Konstituzioaren bigarren xedapen iragankorra.
36d) Espainiako Konstituzioaren bosgarren xedapen iragankorra.

37 Autonomia-erkidegoen sorrera:

37a) Konstituzioan dago ezarrita, eta han ezartzen da zein izango diren.
37b) Eskubide bat da.
37c) Konstituzioan dago aurreikusita, baina uko egin ahal zaio autonomia-erkidegoak sortzeari.
37d) Ez da kontuan hartzen autonomia-erkidegoa osatzen duten lurraldeek zer nahi duten.

38 Konstituzioak aukera ematen du autonomia mugatuko autonomia-erkidegoek, estatutuak onartu eta handik denbora batera, autonomia osoa eskura dezaten beren estatutuak erreformatuz. Baina zenbat denbora igaro behar da?

38a) 5 urte.
38b) 10 urte.
38c) 15 urte.
38d) 20 urte.

39 Zein da zuzena?

39a) Autonomia Espainiako Konstituzioaren 143. artikuluaren bidez eskuratu zuten autonomia-erkidegoek Konstituzioaren 149. artikuluan jasotako eskumenak bereganatu ahal izan zituzten hasiera batean.
39b) Autonomia Espainiako Konstituzioaren 151. artikuluaren bidez eskuratu zuten autonomia-erkidegoek Konstituzioaren 149. artikuluan jasotako eskumenak bereganatu ahal izan zituzten hasiera batean.
39c) Autonomia Espainiako Konstituzioaren 149. artikuluaren bidez eskuratu zuten autonomia-erkidegoek Konstituzioaren 143. artikuluan jasotako eskumenak bereganatu ahal izan zituzten hasiera batean.
39d) Autonomia-erkidego batek ere ezin izan zituen hasiera batean bere gain hartu Espainiako Konstituzioaren 149. artikuluko eskumenak.

40 Zer izen du autonomia-erkidegoaren lurralde-eremuan antolakuntza judizialaren gailurra den auzitegiak?

40a) Autonomia-erkidegoko Auzitegi Gorena.
40b) Justiziako Entzutegi Nagusia.
40c) Foru Epaitegi Gorena.
40d) Justizia Auzitegi Nagusia.

41 Eginkizun hauetako bat ez da autonomia-erkidegoetako batzar legegileen eskumena; zein?

41a) Legeak ematea.
41b) Autonomia-erkidegoko presidentea hautatzea.
41c) Lege organikoak ematea.
41d) Presidenteari eta Gobernu Kontseiluko kideei erantzukizun politikoa eskatzea.

42 Non argitaratzen dira lege autonomikoak?

42a) Autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean bakarrik.
42b) Estatuko Aldizkari Ofizialean bakarrik.
42c) Autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.
42d) Hiru lurralde historikoetako aldizkari ofizialetan.

43 Autonomia-erkidegoko presidenteak bere gain hartzen ditu:

43a) Autonomia-erkidegoaren ordezkaritza gorena eta erkidego horretako Estatuaren ordezkaritza arrunta.
43b) Autonomia-erkidegoaren ordezkaritza gorena eta erkidego horretako Estatuko Gobernuaren ordezkaritza arrunta.
43c) Autonomia-erkidegoaren eta Estatuaren ordezkaritza arruntak.
43d) Autonomia-erkidegoaren eta erkidego horretako Estatuko Gobernuaren ordezkaritza arruntak.

44 Nork hautatuko du autonomia-erkidegoko presidentea?

44a) Erregeak.
44b) Gobernuko presidenteak.
44c) Autonomia-erkidegoko batzar legegileak.
44d) Autonomia-erkidegoko diputatu eta senatariek.

ISBN: 978-84-7777-667-3

45 Nork erantzuten du politikoki batzar legegilearen aurrean?

45a) Autonomia-erkidegoko presidenteak soilik.
45b) Autonomia-erkidegoko Gobernu Kontseiluko kideek soilik, presidenteak izan ezik.
45c) Bai autonomia-erkidegoko presidenteak, bai Gobernu Kontseiluko kideek.
45d) Horietako inork ere ez.

46 Konstituzioaren zer artikulutan jasotzen da Estatuak eskumen esklusiboa duen gaien zerrenda?

46a) Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluan.
46b) Espainiako Konstituzioaren 149.3 artikuluan.
46c) Espainiako Konstituzioaren 148.1 artikuluan.
46d) Espainiako Konstituzioaren 148.3 artikuluan.

47 Espainiako Konstituzioaren arabera, nori dagokio autonomia-estatutuek bere gain hartu ez dituzten gaien gaineko eskumena?

47a) Autonomia-erkidegoari.
47b) Estatuari.
47c) Toki-erakundeei.
47d) Udalei.

48 Nola deitzen zaie autonomia-erkidegoek arlo jakin bat garatzeko eta betearazteko ahalmenak bereganatzen dituzten eskumenei?

48a) Esklusiboak.
48b) Konkurrenteak.
48c) Partekatuak.
48d) Laguntzakoak.

49 Estatuaren eskumenak autonomia-erkidegoei esleitzea:

49a) Ezinezkoa da.
49b) Espainiako Konstituzioaren 150. artikuluan xedatzen da.
49c) Transferentzia bidez soilik egin daiteke.
49d) Delegatuta soilik egin daiteke.

50 Zein da autonomia-erkidegoaren funtsezko eta oinarrizko araua?

50a) Autonomia-erkidegoaren konstituzioa.
50b) Batzar legegilearen erregelamendua.
50c) Autonomia Estatutua.
50d) Gobernu-legea.

51 Autonomia-estatutuak onesten dituzten lege-organikoak direla eta, zein da zuzena?

51a) Gorte Nagusiek alda ditzaketen lege organikoak dira, haien borondate propio eta esklusiboaren bidez.
51b) Autonomia-erkidegoak hala nahi badu bakarrik alda daiteke autonomia-estatutua.
51c) Autonomia-estatutuak erreformatzeko, estatutuan bertan ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.
51d) Autonomia-estatutuak ez dira lege organiko bidez onesten.

ISBN: 978-84-7777-667-3



52 Espainiako Konstituzioaren arabera, hauetako zein ez da autonomia-estatutuak izan behar duen «gutxieneko edukiaren» barruan sartzen?

52a) Erkidego horretako erakunde autonomoen izena, antolaketa eta egoitza.
52b) Konstituzioak ezarritako esparruaren barruan bereganaturiko eskumenak.
52c) Erkidegoaren lurralde-mugak.
52d) Europar Batasunarekin izango dituen harremanak.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 3. gaia

53 Europar Batasunaren esparruan, zein da erabaki-erakundea eta, Europako Parlamentuarekin batera, erakunde legegilea?

53a) Europar Batasuneko Kontseilua.
53b) Europako Batzordea.
53c) Kontseilu Europarra.
53d) Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.

54 Oro har, zenbatean behin egingo ditu bilerak Kontseilu Europarrak?

54a) Urtean bitan.
54b) Sei hilean bitan.
54c) Hiru hilean bitan.
54d) Sei hilean behin.

55 Kontseilu Europarreko presidentea:

55a) Txandakako ordezkaritza-kargu bat da.
55b) Estatu kide bateko Gobernuko presidentea da, sei hilabeterako.
55c) Kargudun hautetsia da, bi urte eta erdirako hautatzen dena; behin bakarrik berritu daiteke kargua.
55d) Europako Batzordeko presidentea da.

56 «Estatu kideetako bakoitzak ordezkari bat izango du, ministro-mailakoa. Ordezkari horietako bakoitzak bere estatuko gobernua konprometitzeko adinako ahalmena izango du, baita botoa emateko eskubidea ere». Europar Batasuneko zein organoz ari da?

56a) Europako Batzordea.
56b) Europar Batasuneko Kontseilua.
56c) Kontseilu Europarra.
56d) Ministroen Batzordea.

**57** **Estatuz azpiko arduradun politiko batek Europar Batasuneko Kontseiluaren bileretan eta bozketetan parte hartzen duenean:**

57a) Jatorria duen estatuz azpiko erakundea bakarrik ordezkatu eta behartuko du.
57b) Onespena ematen dioten estatuz azpiko erakundeak ordezkatu eta behartuko ditu.
57c) Bere estatu osoa ordezkatu eta behartuko du.
57d) Europako estatuz azpiko erakunde guztiak ordezkatu eta behartuko ditu.

**58** **Europar Batasuneko Kontseiluak erabaki edo arau juridiko bat gehiengo kualifikatuz onetsi behar duenean Europako Batzordeak proposatuta, noren aldeko botoa behar da?**

58a) Estatuen % 55ena, beti ere Europar Batasuneko biztanleen % 65 ordezkatzen badute.
58b) Estatuen %70ena, zer biztanle-kopuru ordezkatzen duten kontuan hartu gabe.
58c) Biztanleriaren % 70ena, ehuneko hori zenbat estaturi dagokion kontuan hartu gabe.
58d) Estatuen % 65ena, beti ere Europar Batasuneko biztanleen % 55 ordezkatzen badute.

**59** **Gaur egun, zer prozeduraren bidez hartzen ditu erabakiak Europar Batasuneko Kontseiluak?**

59a) Aho batez.
59b) Gehiengo soilez.
59c) Gehiengo osoz.
59d) Gehiengo kualifikatuz.

**60** **Nork onesten du Europar Batasunaren aurrekontua?**

60a) Europako Parlamentuak bakar-bakarrik.
60b) Europar Batasuneko Kontseiluak bakar-bakarrik.
60c) Europar Batasuneko Kontseiluak eta Europako Parlamentuak.
60d) Europako Batzordeak eta Europako Parlamentuak.

**61** **Zein da gobernu nazionalekiko independentea den erakundea, Europar Batasunaren gobernua ordezkatzen duena eta eginkizun nagusia Europako politikak eta ekintzak kudeatzea eta betearaztea duena?**

61a) Europar Batasuneko Kontseilua.
61b) Europako Batzordea.
61c) Ordezkari Iraunkorren Lantaldea (OIL).
61d) Kanpo Arazoetako edo Defentsako Ministroen Batzordea.

**62** **Europako Batzordeko presidentea:**

62a) Europako Parlamentuak izendatzen du, eta Europar Batasuneko Kontseiluak onesten.
62b) Europako Batzordeak proposatzen du, eta Europako Parlamentuak onesten.
62c) Kontseilu Europarrak izendatzen du, eta Parlamentuak onetsi behar du haren izendapena.
62d) Kontseilu Europarrak izendatzen du, eta Justizia Auzitegiak onesten du haren izendapena.

**63** **Zer iraupen du Europako Batzordearen agintaldiak?**

63a) 3 urte.
63b) 4 urte.
63c) 5 urte.
63d) 6 urte.

ISBN: 978-84-7777-667-3

64 **Zer behar da Europako Batzordearen aurkako zentsura-mozioak aurrera egin dezan?**

64a) Emandako botoen bi herenen gehiengoa, eta kopuru hori, aldi berean, Europako Parlamentua osatzen duten diputatuen gehiengoa izatea.
64b) Europako Parlamentua osatzen duten diputatuen gehiengo osoa.
64c) Europako Parlamentua osatzen duten diputatuen bi heren.
64d) Emandako botoen % 50, eta kopuru hori aldi berean, Europako Parlamentua osatzen duten diputatuen bi heren izatea.

65 **Zer izen du Europako Batzordeak estatuetako parlamentuei Europako legegintza-egintzaren proposamena bidaltzeko sistemak, baldin eta proposatutako arau juridikoak EBren eta estatu kideen arteko eskumen-esparru partekatuan eragiten badu?**

65a) Beto europarraren sistema.
65b) Alerta goiztiarraren sistema.
65c) Pick and go sistema.
65d) Aliantzen sistema.

66 **Nork hautatzen ditu Europako Parlamentuko diputatuak?**

66a) Europar Batasuneko estatu kideetako parlamentuek.
66b) Europar Batasuneko estatu kideetako gobernuek.
66c) Europar Batasuneko herritarrek zuzeneko sufragio unibertsalaren bidez.
66d) EBko Batzordeak.

67 **Nola zehazten da estatu bakoitzak zenbat parlamentari hautatuko dituen Europako Parlamenturako?**

67a) Estatu guztiek parlamentari kopuru bera dute.
67b) Estatu bakoitzak duen pisu demografikoaren arabera.
67c) Estatuen lurralde-zabaleraren arabera.
67d) Estatuen eragin geopolitikoaren arabera.

68 **Europako zein bi hiritan egiten dira Europako Parlamentuaren osoko bilkurak?**

68a) Bruselan eta Dublinen.
68b) Luxenburgon eta Hanburgon.
68c) Bruselan eta Estrasburgon.
68d) Hanburgon eta Estrasburgon.

69 **Europar Batasuneko zein erakundek izendatzen du Europako Herriaren Defendatzailea?**

69a) Europako Batzordeak.
69b) Europar Batasuneko Kontseiluak.
69c) Europako Parlamentuak.
69d) Justizia Auzitegiak.

70 **Non du egoitza Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak?**

70a) Estrasburgon.
70b) Luxenburgon.
70c) Hagan.
70d) Hanburgon.

71 Nork osatzen du Europar Batasuneko Justizia Auzitegia?

71a) Epaileek eta fiskalek.
71b) Magistratuek eta idazkari judizialek.
71c) Fiskalek eta magistratu nagusiek.
71d) Epaileek eta abokatu orokorrek.

72 Nola du izena estatuek Europar Batasuneko kide gisa dauzkaten betebeharrak betetzen dituztela kontrolatzea helburu duen EBko Justizia Auzitegian jar daitekeen errekurtsoak?

72a) Ez betetzeek eragindako errekurtsoa.
72b) Deuseztatzeko errekurtsoa.
72c) Eragorpen prejudiziala.
72d) Eragindako kalte-galerak erreparatzeko errekurtsoa.

73 Hauetako zein ez dira Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren L atalean («Legegintza») argitaratu beharreko egintza juridiko lotesletzat jotzen?

73a) Erregelamenduak.
73b) Zuzentarauak.
73c) Erabakiak.
73d) Gomendioak.

74 Egintza juridiko lotesleak argitaratzea funtsezko betekizun formala da estatu kideen barnezuzenbidean exijitu ahal izateko. Baina non argitaratu behar dira?

74a) Estatu kide bakoitzaren aldizkari ofizialean.
74b) Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, ingelesez soilik.
74c) Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, EBko 24 hizkuntza ofizialetan.
74d) Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren, estatu kideetan ofizialak diren hizkuntza guztietan.

75 Europar Batasuneko zuzenbidearen legegintza-egintza: hura jasotzen duen estatu kideak emaitza jakin bat lortu behar du, baina estatuko agintariei aukeran uzten zaie nola eta zer baliabiderekin. Zer izen du legegintza-egintza horrek?

75a) Erregelamendua.
75b) Zuzentaraua.
75c) Erabakia.
75d) Txostena.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 4. gaia

**76 Zer legeren bidez onartu zen EAEko Autonomia Estatutua?**

76a) 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa.
76b) 1/1978 Lege Organikoa, uztailaren 18koa.
76c) Foru Eraentza Berrezartzeari buruzko 1978ko abenduaren 6ko Lege Organikoa.
76d) 2/1979 Foru Araua, abenduaren 3koa.

**77 Nafarroa Euskal Autonomia Erkidegoaren parte izatea:**

77a) Ez da Konstituzioan jasotzen.
77b) Konstituzioaren 4. xedapen iragankorrean aurreikusten da.
77c) Ez da EAEko Autonomia Estatutuan aurreikusten.
77d) Debekatu egiten du Konstituzioak.

**78 EAEko Autonomia Estatutua dela eta, zein da baieztapen zuzena?**

78a) Euskara eta gaztelania dira Euskal Herriaren hizkuntza propioak.
78b) Euskara ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoko eremu euskaldunetan.
78c) EAEko biztanle guztiek dute euskara jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea.
78d) Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, eta bertako biztanle guztiek dute jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

**79 EAEko Autonomia Estatutuaren 7.1 artikuluaren arabera, nork du euskal herritarraren kondizio politikoa?**

79a) Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan administrazio-auzotasuna dutenek.
79b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzen gutxienez 2 urte daramatzatenek, hala eskatzen badute.
79c) Hala eskatzen dutenek, non bizi diren kontuan hartu gabe.
79d) Estatutuak ez du onartzen euskal herritarraren kondizio politikoa.

80 Non datoz jasota lurralde historikoen eskumen esklusiboak?

80a) Autonomia Estatutuan bakarrik.
80b) Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean bakarrik.
80c) Bi arau horietan.
80d) Lurralde historikoek ez dute eskumen esklusiborik.

81 Lurralde historikoetako foru-organoak dira:

81a) Administrazio-batzarrak eta probintzietako diputazioak.
81b) Batzar nagusiak eta Eusko Jaurlaritza.
81c) Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza.
81d) Batzar nagusiak eta foru-aldundiak.

82 Zer eskumen mota da Euskal Autonomia Erkidegoak «Turismoa eta kirolak. Aisia eta olgeta» arloan duen eskumena?

82a) Eskumen esklusiboa.
82b) Legeak garatzeko eta betearazteko eskumena.
82c) Betearazteko eskumen esklusiboa.
82d) Lurralde historikoen eskumen esklusiboa.

83 Autonomia-estatutuaren arabera, zein da autonomia erkidegoen arteko hitzarmenen eta lankidetza-akordioen arteko aldea?

83a) Hitzarmenek Gorte Nagusien baimena behar dute, eta akordioak, berriz, jakinarazi baino ez dira egin behar.
83b) Hitzarmenak autonomia-erkidegoen eskumen esklusiboko zerbitzu propioak kudeatu eta emateko egiten dira, eta akordioak ez.
83c) Akordioak autonomia-erkidegoen eskumen esklusiboko zerbitzu propioak kudeatu eta emateko egiten dira, eta hitzarmenak ez.
83d) Lankidetza-akordioetarako Gorte Nagusien baimena behar da, eta autonomia-erkidegoen eskumen esklusiboko zerbitzu propioak kudeatu eta emateko egiten dira.

84 Eusko Legebiltzarreko kideen hautaketaz:

84a) Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari kopuru berak osatuko du Eusko Legebiltzarra, eta lau urterako hautatzen dira.
84b) Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari kopuru berak osatuko du Eusko Legebiltzarra, eta bost urterako hautatzen dira.
84c) Lurralde historiko bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera proportzionalki hautatzen dira, lau urterako.
84d) Lurralde historiko bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera proportzionalki hautatzen dira, bost urterako.

85 Gaur egun, Gipuzkoako Lurralde Historikoak zenbat legebiltzarkide hautatzen ditu?

85a) 20 legebiltzarkide.
85b) 25 legebiltzarkide.
85c) 30 legebiltzarkide.
85d) 35 legebiltzarkide.

ISBN: 978-84-7777-667-3

86 Eusko Legebiltzarreko kideak, beren kargualdian, ezingo dira ez atxilotu ez atxiki Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egindako delituengatik, delitu gori-goriagatik izan ezik. Baina nori dagokio erru-egozte, espetxeratze, auziperatze eta epaitzeari buruz erabakitzea?

86a) Konstituzio Auzitegiari.
86b) Auzitegi Gorenari.
86c) Auzitegi Nazionalari.
86d) Justizia Auzitegi Nagusiari.

87 Eusko Legebiltzarrean legegintzako herri-ekimena gauzatzeko, zenbat sinadura behar dira gutxienez?

87a) Gutxienez, euskal herritarraren kondizio politikoa duten 5.000 herritarrena.
87b) Gutxienez, euskal herritarraren kondizio politikoa duten 10.000 herritarrena.
87c) Gutxienez, euskal herritarraren kondizio politikoa duten 20.000 herritarrena.
87d) Gutxienez, euskal herritarraren kondizio politikoa duten 25.000 herritarrena.

88 Lehendakariaren aurkako zentsura-mozio batek aurrera egin dezan, zer behar da?

88a) Legebiltzarkideen gehiengo soila.
88b) Legebiltzarkideen gehiengo osoa.
88c) Legebiltzarkideen bi herenen gehiengoa.
88d) Legebiltzarkideen hiru bostenen gehiengoa.

89 Herri Kontuen Euskal Epaitegia zer erakunderen mendekoa da?

89a) Botere judizialaren mendekoa.
89b) Estatuko Kontuen Epaitegiaren mendekoa.
89c) Eusko Legebiltzarraren mendekoa.
89d) Foru-aldundien mendekoa.

90 Jaurlaritzari buruzko Legean, lehendakaria kargutik kentzeko aukera jasotzen da, baldin eta Jaurlaritzak erabakitzen badu lehendakaria aldi baterako ezinduta dagoela bere eginkizunak betetzeko. Zer gehiengo behar da erabaki hori hartzeko?

90a) Jaurlaritzako kideen gehiengoa.
90b) Jaurlaritzako kideen gehiengo osoa.
90c) Jaurlaritzako kideen hiru laurdenen adostasuna.
90d) Jaurlaritzako kideen lau bostenen adostasuna.

91 Noiz desegin dezake lehendakariak Eusko Legebiltzarra?

91a) Egoki deritzonean.
91b) Ohiz kanpoko eta premiazko beharra badago bakarrik.
91c) Legebiltzarraren agintaldia amaitu ondoren bakarrik.
91d) Inoiz ere ez.

92 Nori dagokio «Legebiltzarrera bidaltzeko lege-proiektuak onartzea edo baztertzeko erabakia hartzea»?

92a) Lehendakariari.
92b) Eusko Jaurlaritzari.
92c) Legebiltzarreko taldeei.
92d) Sailburuei.

93 Nork osatzen dute Eusko Jaurlaritza?

93a) Lehendakariak eta sailburuek.
93b) Lehendakariak eta ministroek.
93c) Lehendakariak, sailburuek eta sailburuordeek.
93d) Sailburuek soil-soilik.

94 Zer izen dute Eusko Jaurlaritzako sailburuek ematen dituzten arauek?

94a) Dekretuak.
94b) Legeak.
94c) Aginduak.
94d) Zuzentarauak.

95 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko goi-kargudunak dira:

95a) Estatu-idazkariak eta idazkari nagusiak.
95b) Zuzendari nagusi teknikoak eta zuzendari nagusiak.
95c) Idazkariordeak eta zuzendariordeak.
95d) Sailburuordeak eta zuzendariak.

96 Zer izen dute Eusko Legebiltzarrak egindako legegintzako eskuordetzaren bidez Eusko Jaurlaritzak onesten dituen lege-mailako arauek?

96a) Legeak.
96b) Dekretuak.
96c) Foru-dekretuak.
96d) Legegintzako dekretuak.

97 Jaurlaritzaren bilkurak, baliozkoak izan daitezen, hauek bertaratu beharko dira:

97a) Lehendakaria eta, gutxienez, Jaurlaritzako kideen erdia.
97b) Lehendakaria eta, gutxienez, Jaurlaritzako kideen heren bat.
97c) Jaurlaritzako kideen erdia.
97d) Jaurlaritzako kideen heren bat.

98 Nori dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak egitea eta Legebiltzarrari bidaltzea, aztertu eta, hala baderitzo, onar ditzan?

98a) Foru-aldundiei.
98b) Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari.
98c) Eusko Jaurlaritzari.
98d) Ekonomiako sailburuari.

99 Nola deitzen zaie gaiaren eginkizun edo ahal guztiak (legegintza, legeak garatzea eta betearaztea) Estatu Zentralarenak edo autonomia-erkidegoarenak diren eskumenei?

99a) Esklusiboak.
99b) Partekatuak.
99c) Konkurrenteak.
99d) Bereizezinak.

100 Autonomia Estatutuaren arabera, zeren bidez gauzatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak?

100a) Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren eta lehendakariaren bitartez.
100b) Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren, lehendakariaren eta euskal Botere Judizialaren bitartez.
100c) Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren, lehendakariaren, euskal Botere Judizialaren eta Arartekoaren bitartez.
100d) Eusko Legebiltzarraren bitartez bakar-bakarrik.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 5. gaia

**101 Zein dira Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunak?**

101a) Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia
101b) Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra
101c) Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, foru-aldundiak eta batzar nagusiak.
101d) Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, foru-aldundiak, batzar nagusiak eta EAEko udalak.

**102 Zer printzipiotan oinarritzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoetako erakundeen arteko harremanak?**

102a) Lankidetza eta elkartasuna.
102b) Lankidetza eta koordinazioa.
102c) Koordinazioa eta elkartasuna.
102d) Efikazia eta elkartasuna.

**103 Hauetako zein da lurralde historikoen eskumen esklusiboa?**

103a) Langabeziagatiko prestazioak.
103b) Udal-hauteskundeen araubidea.
103c) Dagokion lurraldeko trenbide-garraioa.
103d) Dagokion lurraldean dauden espetxeen kudeaketa.

**104 Non dator jasota foraltasunaren berme instituzionala?**

104a) Lurralde Historikoen Legearen lehenengo xedapen gehigarrian.
104b) Gernikako Estatutuaren lehenengo xedapen gehigarrian.
104c) Gernikako Estatutuaren lehenengo xedapen iragankorrean.
104d) Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian.

**105 Adierazi ahal hauetako zein EZIN duten erabili lurralde historikoek:**

105a) Arauak egiteko ahala.
105b) Legeak egiteko ahala.
105c) Erregelamenduak egiteko ahala.
105d) Berraztertze ahala, administrazio-bidean.

**106 Nolakoak izan daitezke lurralde historikoen eskumenak?**

106a) Esklusiboak, partekatuak, edo betearaztekoak soilik
106b) Esklusiboak, arauak egin eta betearaztekoak, edo betearaztekoak soilik.
106c) Esklusiboak, arauemaileak eta betearaztekoak.
106d) Esklusiboak eta partekatuak.

**107 Nork osatzen dute Ebazpen Batzordea?**

107a) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidenteak eta sei kidek (hiru Eusko Jaurlaritzak izendatuak eta bana foru-aldundi bakoitzak).
107b) Estatuko Administrazioaren lau ordezkarik eta Eusko Jaurlaritzak izendatutako Euskal Autonomia Erkidegoko beste lau ordezkarik; lau horietatik hiru, foru-aldundi bakoitzak proposatuak.
107c) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidenteak eta bost kidek (bi Eusko Jaurlaritzak izendatuak eta bana foru-aldundi bakoitzak).
107d) Lehendakariak eta sei kidek (hiru Eusko Jaurlaritzak izendatuak eta bana foru-aldundi bakoitzak).

**108 Zein erakundek ebatziko ditu autonomia-erkidegoko erakundeen eta lurralde historiko bakoitzeko erakundeen artean sor daitezkeen eskumen-gatazkak?**

108a) Arbitraje Batzordeak.
108b) Arbitraje Epaimahaiak.
108c) Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien batzorde mistoak.
108d) Ebazpen Batzordeak.

**109 Eusko Jaurlaritzak uste badu, kasu jakin batean, eskumen bat foru-aldundi bati dagokiola baina foru-aldundi horrek bere burua eskumenik gabekotzat jotzen badu, zer abiaraz dezake Eusko Jaurlaritzak?**

109a) Eskumen-arazo negatiboa.
109b) Eskumen-gatazka negatiboa.
109c) Eskumen-gatazka positiboa.
109d) Eskumen-arazo positiboa.

**110 Ebazpen Batzordearen ebazpenen aurka, zer errekurtso jar daiteke?**

110a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.
110b) Gora jotzeko errekurtsoa.
110c) Berrikusteko errekurtso berezia.
110d) Ezin da errekurtsorik jarri.

**111 Nola onartzen da lurralde-historiko bakoitzaren zerga-araubidea?**

111a) Eusko Legebiltzarraren lege bidez.
111b) Estatuko parlamentuaren lege bidez.
111c) Foru-dekretu bidez.
111d) Foru-arau bidez.

**112 Zertaz arduratzen da EAEko foru-aldundi bakoitza?**

112a) Tributuak ordainarazteaz, kudeatzeaz eta likidatzeaz; Eusko Jaurlaritzari dagokio horiek ikuskatu eta berrikustea.
112b) Tributuak ordainarazteaz, kudeatzeaz eta likidatzeaz; Batzar Nagusiei dagokie horiek ikuskatu eta berrikustea.
112c) Tributuak arautzeaz, ordainarazteaz, kudeatzeaz eta likidatzeaz
112d) Tributuak ordainarazteaz, kudeatzeaz, likidatzeaz, ikuskatzeaz, biltzeaz eta berrikusteaz.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**113 Non errekurritu daitezke tributuei buruzko foru arauak?**

113a) Konstituzio Auzitegian.
113b) Justiziako auzitegi nagusietan.
113c) Auzitegi Gorenean.
113d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**114 Noiz onetsi zen lehen Ekonomia Ituna?**

114a) 1981ean.
114b) 1878an.
114c) 1936an.
114d) 1978an.

**115 Lurralde historikoetako tributu-bilketa gaizki badoa:**

115a) Konpentsazio-laguntza bat jasoko da Estatutik.
115b) Murriztu egiten da Estatuari ordaindu beharreko kupoa.
115c) Eusko Jaurlaritzak konpentsazio-laguntza bat ematen du.
115d) Ez dio Estatuarekin itundutako kupoari eragingo, zeina oso-osorik ordaindu beharko baita.

**116 Zer sistemaren bidez arautzen dira Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren arteko finantza- eta zerga-harremanak?**

116a) Ekonomia Ituna.
116b) Ekonomia Paktua.
116c) Ekonomia Hitzarmena.
116d) Kupoa.

**117 Gernikako Estatutuaren 41.2. a) artikuluaren arabera, lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute beren lurraldean; baina zer kontuan hartuta? (Adierazi zein den erantzun okerra)**

117a) Estatuko zerga-egitura orokorra.
117b) Itunean bertan jasotzen diren Estatuarekiko koordinazio, harmonizazio fiskal eta lankidetzarako arauak.
117c) Autonomia Erkidegoaren barruan koordinazio, harmonizazio fiskal eta lankidetzarako Eusko Legebiltzarrak onartzen dituen arauak.
117d) Koordinaziorako eta harmonizazio fiskalerako Lurralde Historikoen Legean jasotzen diren arauak.

**118 Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriaren arabera, zer esparrutan burutuko da foru-araubidearen eguneratze orokorra?**

118a) Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen barruan egingo da.
118b) Lurralde historikoen legeen barruan egingo da.
118c) Lurralde historiko bakoitzaren foru-arauen barruan egingo da.
118d) Konstituzioaren, autonomia-estatutuen eta lurralde historikoen legearen barruan egingo da.

**119 Ekonomia Itunaren sistemaren barruan, hauetako zein da tributu itundugabea?**

119a) Ondarearen gaineko zerga.
119b) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga.
119c) Aduanen Errentan biltzen diren zergak.
119d) Sozietateen gaineko zerga.

ISBN: 978-84-7777-667-3



**120 Zerga hauetatik zein da araudi ez-autonomoko tributu itundua?**

120a) Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ).
120b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.
120c) Ondarearen gaineko zerga.
120d) Sozietateen gaineko zerga.

**121 Zerga-harmonizazioaren printzipioaren arabera, lurralde historikoek zer errespetatu behar dute zerga-araubidea egiteko orduan? (adierazi erantzun okerra)**

121a) Espainia osoan pertsonak libre zirkulatu eta finkatu ahal izatea eta ondasunak, kapitalak eta zerbitzuak libre zirkulatzea errespetatu eta bermatuko dute.
121b) Tributuen Lege Orokorreko terminologia eta kontzeptuetara moldatuko dira.
121c) Estatuko gainerako tokietan besteko presio eraginkor orokorra egingo dute.
121d) Euskal Autonomia Erkidegoak zerga-ordainarazpenaren arloan dituen eskumenak.

**122 Zer izen dute Estatuak une bakoitzean ezarritako arau substantibo eta formal berberek arautzen dituzten tributuek, zeinetan lurralde historikoek gaitasuna baitute bai aitorpena eta sarrera egiteko ereduak onartzeko, bai likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak finkatzeko?**

122a) Tributu itundu harmonizatuak.
122b) Tributu itundu exekutiboak.
122c) Araudi ez-autonomoko tributu itunduak.
122d) Araudi autonomoko tributu itunduak.

**123 Zer izen du Euskadik estatuari egiten dion ekarpen ekonomikoak, lurralde historiko bakoitzaren ekarpenez osatuak, EAEk bere gain hartuta ez dauzkan kargen ordaina Estatuari emateko?**

123a) Ekonomia Ituna.
123b) Ekarpen hitzartua.
123c) Kanon orokorra.
123d) Kupo orokorra.

**124 Zeren bidez arautzen da Ekonomia Ituna?**

124a) Eusko Legebiltzarraren lege bidez.
124b) Gorte Nagusien lege bidez.
124c) Errege Lege Dekretu bidez.
124d) Lurralde historiko bakoitzeko zergei buruzko foru-arau bidez.

**125 Kupoaren legea dela eta, adierazi zein den erantzun okerra:**

125a) Gorte Nagusiek onartzen dute, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren irizpena jaso ondoren.
125b) Kupoaren zenbatekoa zehazteko metodologia ezarriko da, betiere Ekonomia Itunean jasotako printzipio orokorrei jarraituz.
125c) Urtero ordaindu beharreko kupoak adierazten ditu, kupoari buruzko beste lege bat onartu arte.
125d) Bosturteko baterako egongo da indarrean, kupoaren lege berri bat promulgatu arte automatikoki luzatzen ez bada behintzat.

**126 Hauetako zein ez da Ekonomia Itunaren kudeaketa-organoa?**

126a) Ebazpen Batzordea.
126b) Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa.
126c) Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea.
126d) Arbitraje Batzordea.

ISBN: 978-84-7777-667-3

127 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak hauetako zeinen esparru juridiko arautzailea eta eskumenak ezartzen ditu?

127a) Udalerri eta lurralde historikoenak.
127b) Udalerri eta gainerako EAEko toki-erakundeenak.
127c) Udalerrienak soil-soilik.
127d) Udalerri, lurralde historiko eta toki-erakunde txikienak.

128 Nolakoak dira udal-eskumenak?

128a) Propioak, transferituak eta eskuordetuak.
128b) Esklusiboak, partekatuak eta exekutiboak.
128c) Esklusiboak, partekatuak eta garapenekoak.
128d) Propioak, eskuordetuak eta exekutiboak.

129 Zein <u>ez</u> da udalen eskumen propioa?

129a) Udal-hauteskundeen eta toki-erakunde txikien araubidea.
129b) Hondartzak, lakuak eta mendiak.
129c) Hileta-zerbitzuak eta hilerriak.
129d) Lagun egiteko animaliak.

130 Zein da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ekimenez, araugintzako prozesuetan udal-autonomia babesteko alerta-organoa?

130a) Politika Publikoen Euskal Kontseilua.
130b) Euskadiko Udalen Elkartea.
130c) Euskadiko Toki Erakundeen Elkartea.
130d) Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordea.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 6. gaia

**131 Oso garrantzitsua da Emakumeen Aurkako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW, 1979), besteak beste, honako arrazoi hauetako batengatik:**

131a) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna defendatzen duen lehen aurrekari garrantzitsua delako.
131b) Nazio Batuek emakumeen eta gizonen eskubideen arloan hartutako konpromisoak aipatzen dituelako.
131c) Enplegu- eta okupazio-arloko emakumeen diskriminazioa lehen aldiz aipatzen duelako.
131d) Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko 23 adituz osatutako batzordea sortzen duelako.

**132 CEDAWren adituen batzordeak:**

132a) Estatu batean gertatzen diren edo estatu batek egiten dituen emakumeen eskubideen urraketa sistematikoak ikertu ditzake.
132b) Konbentzioan jasotako eskubideak urratu zaizkion edozein emakumek aurkezten duen errekurtsoez arduratuko da, emakumearen estatuko jurisdikzio-bideak agortu beharrik izan gabe.
132c) Emakumeen eskubideak urratzen dituen estatua zehatzeko ahalmena izango du.
132d) 25 aditu ditu.

**133 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, diskriminatzaileak izango dira:**

133a) Emakumeentzako ekintza positiboa helburu duten neurriak.
133b) Arrazoi biologikoengatik sexuei babes berezia emateko premian oinarritutako neurriak.
133c) Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zainketan parte har dezaten sustatzeko neurriak.
133d) Itxuraz neutroak diren xedapen, irizpide edo jardunbideek sexu jakin bateko pertsonentzat desabantaila jakin bat ekartzea beste sexukoen aldean.

**134 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, hauetako zein ez da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoen jarduna zuzentzen duen printzipio orokorretako bat?**

134a) Ekintza positiboa.
134b) Solidaritatea generoaren ikuspegitik.
134c) Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.
134d) Ordezkaritza orekatua.

ISBN: 978-84-7777-667-3

135 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak aukera-berdintasuna aipatzen duenean, zeri egiten dio erreferentzia? (adierazi erantzun okerra).

135a) Agintea eskuratzeko abiaguneko edo hasierako baldintzei.
135b) Baliabide eta onura ekonomiko eta sozialak eskuratzeko baldintzei.
135c) Baliabide eta onura ekonomiko eta sozialak gauzatzeko eta kontrolatzeko baldintzei.
135d) Baldintza formal eta diferentzialei, bakar-bakarrik.

136 Baieztapen hauetatik zein ez dator bat emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioarekin?

136a) Identikoak balira bezala tratatu behar dira.
136b) Haien arteko diferentzia biologikoak kontuan hartuta tratatu behar dira.
136c) Haien bizi-baldintzak, jomugak eta beharrizanak errespetatuta tratatu behar dira.
136d) Haien aniztasuna kontuan hartuta tratatu behar dira.

137 «Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan desberdinak sistematikoki kontuan izatea eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea”; zeren definizio da hori?

137a) Ekintza positiboa.
137b) Ordezkaritza orekatua.
137c) Genero-ikuspegiaren integrazioa.
137d) Sexuaren araberako estereotipoak desagerraraztea.

138 Emakumeak kontratatzeko dirulaguntzak ematea 4/2005 Legean arautako zer printzipio orokorrekin erlazionatutako neurria da?

138a) Aukera-berdintasunarekin.
138b) Lankidetzarekin.
138c) Ekintza positiboarekin.
138d) Enpleguaren arloko diskriminazioarekin.

139 «Se busca director de ventas» iragarkia argitaratzea zeren adibide garbia da?

139a) Zeharkako diskriminazioaren adibide garbia.
139b) Zuzeneko diskriminazioaren adibide garbia.
139c) Neurri ez diskriminatzailearen adibide garbia.
139d) Sektore arteko diskriminazioaren adibide garbia.

140 4/2005 Legearen 3.6 artikuluaren arabera, sexuaren araberako rol eta estereotipoak desagerraraz daitezen sustatzea:

140a) Euskal botere publikoen eginbeharra da.
140b) Politika publikoen xedea da.
140c) Administrazio publikoei egiten zaien gomendio bat da.
140d) Erantzun guztiak okerrak dira.

141 4/2005 Legearen ondoreetarako, pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek honako ordezkaritza dutenean, gutxienez:

141a) % 50.
141b) % 45.
141c) % 30.
141d) % 40.

**142 Hauetako zein da Euskal Autonomia Erkidegoan berdintasuneko politikak bultzatu, aholkatu, planifikatu eta ebaluatzeaz arduratzen den erakunde autonomoa?**

142a) Berdinsarea.
142b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako sail arteko Batzordea.
142c) Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.
142d) Berdintasunerako unitate administratiboa.

**143 Zer zeregin du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako erakunde arteko Batzordeak?**

143a) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Eusko Jaurlaritzak egiten dituen jarduketak koordinatzea.
143b) Sailarteko Batzordeko kideei laguntza eta aholkuak ematea.
143c) Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasun-politikak ebaluatzea.
143d) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan erkidegoko administrazioak eta foru- eta toki-administrazioek egiten dituzten politikak eta programak koordinatzea.

**144 4/2005 Legearen arabera, zer behar dute administrazio-organo orok sustatutako arau-proiektuek? (Adierazi zein den erantzun okerra)**

144a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena.
144b) Legezkotasun-txostena.
144c) Generoaren araberako aldez aurreko ebaluazioa.
144d) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako sail arteko Batzordearen onespena.

**145 Administrazio-organo batek arau-proiektu bat egiten duenean, hauetako zein ez dago berdintasuna sustatzeko neurrien artean?**

145a) Generoaren araberako aldez aurreko ebaluazioa.
145b) Neurri zuzentzaileak hartzea desberdintasunak antzemanez gero.
145c) IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak txostena ematea.
145d) Legezkotasun-txostena.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 7. gaia

**146 Egoitza elektronikoan zer ez da jasoko?**

146a) Ordainketa elektronikoen pasabidea.
146b) Espedientearen izapideak zertan diren ikusteko aukera.
146c) Aldizkari edo buletin ofizialak.
146d) Zerbitzu-karta.

**147 39/2025 Legearen 9. artikuluaren arabera, prozeduretan interesdun direnek sistema hauetako zein ez dute erabiliko elektronikoki identifikatzeko?**

147a) Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektroniko kualifikatuetan oinarritzen diren sistemak. Ziurtagiri horien emaileek sartuta egon behar dute «ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzazko zerrendan».
147b) Zigilu elektronikoko ziurtagiri elektroniko kualifikatuetan oinarritzen diren sistemak. Ziurtagiri horien emaileek sartuta egon behar dute «ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzazko zerrendan».
147c) Gako itunduko sistemak, eta administrazio publikoek ezartzen den eran eta baldintzetan baliozkotzat jotzen duten beste edozein sistema.
147d) Egiaztapen-kode seguruko sistemak. Egiaztapen horien emaileek sartuta egon behar dute «ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzazko zerrendan».

**148 Zer ezaugarri du dokumentu elektroniko batek?**

148a) Erregistro elektronikoan artxibatutako jakinarazpen elektronikoen multzo bat da.
148b) Edozein eratako euskarri elektronikoan artxibaturik egotea informazioa, identifikatzeko eta bereizita tratatzeko modukoa den formatu batean.
148c) Dokumentu bati digitalizazio-prozesu bat aplikatu ostean lortzen den emaitza da.
148d) Formatu jakin baten arabera euskarri elektroniko batean artxibatutako ebazpen elektroniko bat da.

**149 Non biltegiratzen dira dokumentu elektronikoak?**

149a) Erregistro elektronikoan.
149b) Herritarren karpetan.
149c) Espediente elektronikoan.
149d) Artxibo elektronikoan.

**150 Administrazio elektronikoa:**

150a) Administrazioaren egoitza elektronikoaren sinonimo da.
150b) Sektore publiko instituzionalaren modalitate bat da.
150c) Administrazio publikoetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) erabiltzea da.
150d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**151 Administrazio-espedientea dela eta, adierazi zein den erantzun okerra:**

151a) Barne-komunikazio edo -txostenak edo administrazio-organoen artekoak eduki behar ditu espedienteak.
151b) Formatu elektronikoa izango du.
151c) Hartutako ebazpenaren kopia elektroniko ziurtatua jasoko da espedientean.
151d) Barnean dituen dokumentu guztien aurkibide zenbakitu batekin joan behar du espedienteak, bidaltzen denean.

**152 Administrazio publikoek ez diete interesdunei sinadura nahitaez erabiltzeko eskatuko:**

152a) Erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkezteko.
152b) Errekurtsoak jartzeko.
152c) Egintzetan atzera egiteko.
152d) Alegazioak aurkezteko.

**153 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen arabera, nori dagokio egoitza elektronikoaren titulartasuna? (Adierazi zein den erantzun okerra)**

153a) Administrazio publiko bati.
153b) Organismo publiko bati edo batzuei.
153c) Zuzenbide Publikoko entitateei.
153d) Sozietate publikoei.

**154 Administrazio publikoak nola identifika daitezke elektronikoki?**

154a) Zigilu elektroniko bat erabiliz, zeina ziurtagiri elektroniko onartu edo kalifikatu batean oinarrituko baita; ziurtagiri horrek sinadura elektronikoari buruzko legediak eskatzen dituen betekizunak bete beharko ditu.
154b) Gako iraunkorreko sistema bat erabiliz.
154c) PIN gakodun sistema bat erabiliz.
154d) Eskuzko sinadura digitalizatzeko sistemak erabiliz.

**155 Zer da egoitza elektronikoan ondorio juridikoak dituen administrazio-komunikazio bat argitaratzea?**

155a) Ebazpen elektronikoa.
155b) Komunikazio elektronikoa.
155c) Agiri elektronikoa.
155d) Jakinarazpen elektronikoa.

**156 Funtzionario gaituen erregistroa dela eta, adierazi zein den erantzun okerra:**

156a) Administrazio-jarduketetan erabiltzen diren dokumentu guztiak elektronikoki biltegiratzeko gaitutako funtzionarioak ditu.
156b) Identifikazio eta sinadura elektronikoetarako gaitutako funtzionarioak ditu.
156c) Izapidetze elektronikorako behar adina bitarteko edo ezagutza ez dituzten herritarren ordezkari gisa izapideak hasiko dituzten funtzionarioak ditu
156d) Gutxienez, erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan lan egiten duten funtzionarioak ditu.

ISBN: 978-84-7777-667-3

157 Nola deitzen zaie administrazio-ebazpen baten aurrekari eta oinarri diren agirien eta egintzen multzo ordenatuari eta administrazio-ebazpen hori betearazteko eginbideei?

157a) Dokumentu elektronikoa.
157b) Ziurtagiri elektronikoa.
157c) Administrazio-dokumentua.
157d) Administrazio-espedientea.

158 39/2015 Legearen arabera, hauetatik nor ez dago behartuta administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera, administrazio-prozedura baten edozein tramite egiteko?

158a) Pertsona juridikoak.
158b) Nortasun juridikorik gabeko entitateak.
158c) Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkari direnak.
158d) Pertsona fisikoak, behartuta dauden kasuetan izan ezik.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 8. gaia

159 **Zer iraupen dute euskal administrazio publikoetako euskararen erabilera normalizatzeko planek?**

159a) Bi urte.
159b) Bost urte.
159c) Hiru urte.
159d) Urtebete.

160 **Adierazi zein den erantzun okerra Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren (2018-2022) jarraibideei dagokienez:**

160a) Derrigortasun-data duen lanpostu bat betetzen ari den enplegatuak itzultzera bidal ditzake bere dokumentuak egoki irizten dionean.
160b) Eusko Jaurlaritzak euskaraz erantzun beharko die euskaraz bidaltzen zaizkion testu guztiei.
160c) Euskaraz eskaintzen diren ikastaro orokorren kopurua handituko du IVAPek.
160d) Eusko Jaurlaritza dokumentu igorle den guztietan lehenengo komunikazioa ele bietan egiten dela bermatuko da, edo euskaraz, euskarazko hizkuntza hautua egin duten herritarrekin.

161 **BIKAIN ziurtagiria dela eta, adierazi zein den erantzun okerra:**

161a) Administrazioko eta entitate pribatuetako euskararen kudeaketa eta erabilera maila egiaztatzen du.
161b) Lau maila ditu: oinarrizkoa, ertaina, aurreratua eta goikoa.
161c) Ziurtagiria eskuratzeko, ezinbestekoa da entitateetan ebaluazio bat egitea.
161d) Bi haztapen (ponderazio) ezberdin erabiltzen ditu ebaluatzeko momentuan: bata enpresa pribatu zein sozietate publikoentzat, eta bestea administrazioentzat (Osakidetza barne).

ISBN: 978-84-7777-667-3

162 2008ko apirilaren 16tik aurrera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo teknikari-titulua lortu dutenak, titulazio horiei dagokien curriculum osoaren % 50 baino gehiago euskaraz ikasi badute, zer aurkeztetik salbuesten dira?

162a) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuesten dira.
162b) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuesten dira.
162c) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuesten dira.
162d) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C2 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuesten dira.

163 EGA titulua (Euskararen Gaitasun Agiria), zerekin dago parekatuta?

163a) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C2 mailarekin.
163b) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B3 mailarekin.
163c) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailarekin.
163d) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 mailarekin.

164 2008ko apirilaren 16tik aurrera, batxiler-titulua edo goi-mailako teknikariaren titulua lortzen dutenak, titulazio horiei dagokien curriculum osoaren % 50 baino gehiago euskaraz ikasi badute, zer aurkeztetik salbuesten dira?

164a) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuesten dira.
164b) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuesten dira.
164c) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuesten dira.
164d) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C2 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuesten dira.

165 Hizkuntza-eskakizun jakin bati dagokion euskara-maila ez da egiaztatuko:

165a) Edozein euskaltegitan egiten diren azterketen bidez.
165b) Administrazioan lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan berariaz egiten diren proben bidez.
165c) Premia- eta salbuespen-kasuetan, berariaz horretarako egiten diren proben bidez.
165d) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak berariaz helburu horretarako egindako deialdien bidez.

166 Zein ez da ELEBIDEren funtzio nagusietako bat?

166a) Herritarren hizkuntza eskubideen urraketaren aurka jarritako administrazio-errekurtsoak ebaztea.
166b) Hizkuntza eskubideen gaineko informazioa eta aholkularitza eskaintzea.
166c) Laguntza ematea, halakorik behar duten edo eskatzen duten guztiei.
166d) Beste elkarte eta erakundeekiko koordinazioa ziurtatzea.

**167 Lanpostuek izendatuta dituzten hizkuntza-eskakizunei dagokien derrigorrez bete beharreko indizea dela eta, zein da baieztapen okerra?**

167a) Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna izan behar duten lanpostuen ehunekoa ezartzen du.
167b) Administrazio jakin bat kokatuta dagoen lurraldearen errealitate soziolinguistikoaren arabera kalkulatzen da.
167c) Zenbat eta euskal hiztun gehiago izan, orduan eta handiagoa izango da derrigorrez bete beharreko indizea.
167d) Lanpostuen komunikazio-eskakizunak kontuan hartuta kalkulatzen da.

**168 Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen arabera, nork zehaztuko ditu hizkuntza-eskakizunak?**

168a) Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak proposatuta.
168b) Administrazio publiko bakoitzak.
168c) Eusko Jaurlaritzak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatuta.
168d) Eusko Jaurlaritzak, Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailak proposatuta.

**169 Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa ez den kasuetan, euskara jakitea merezimendutzat hartzen da; baina hautaketa-prozesu osoan guztira eta gehienez jota lor daitekeen puntuazioa aintzat hartuta, zer portzentaje emango zaio euskararen ezagutzari 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunetan?**

169a) Hautaketa-prozesu osoan gehienez lor daitekeen puntuazioaren % 11tik % 20ra bitarte.
169b) Hautaketa-prozesu osoan gehienez lor daitekeen puntuazioaren % 5etik % 10era bitarte.
169c) Hautaketa-prozesu osoan gehienez lor daitekeen puntuazioaren % 20tik % 40ra bitarte.
169d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

**170 Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa ez den kasuetan, euskara jakitea merezimendutzat hartzen da; baina hautaketa-prozesu osoan guztira eta gehienez jota lor daitekeen puntuazioa aintzat hartuta, zer portzentaje emango zaio euskararen ezagutzari 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunetan?**

170a) Hautaketa-prozesu osoan gehienez lor daitekeen puntuazioaren % 11tik % 20ra bitarte.
170b) Hautaketa-prozesu osoan gehienez lor daitekeen puntuazioaren % 20tik % 40ra bitarte.
170c) Hautaketa-prozesu osoan gehienez lor daitekeen puntuazioaren % 5etik % 10era bitarte.
170d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

**171 EAEko administrazio publikoetako lanpostu guztiek:**

171a) Dute esleituta derrigorrezko hizkuntza-eskakizun bat; horrek esan nahi du nahitaez egiaztatu behar dela hizkuntza-eskakizun hori lanpostuan hasteko.
171b) Dute esleituta hizkuntza-eskakizun bat, zeina derrigorrezkoa izan daitekeen edo ez.
171c) Ez dute hizkuntza-eskakizunik esleituta.
171d) Dute esleituta derrigorrezkoa ez den hizkuntza-eskakizun bat.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 9. gaia

**172 Enplegu publikoko diziplina-prozedura dela eta, adierazi zein den erantzun okerra:**

172a) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzeko ematen diren legeek zehaztuko dute aplikatu beharreko prozedura zehatza zein den.
172b) Diziplina-ahala baliatzeko ezinbesteko eskakizuna da diziplina-prozedura.
172c) Printzipio hauek oinarri hartuta egituratzen da: efikazia, bizkortasuna eta ekonomia prozesala, eta erabateko errespetua ustezko erantzulearen defentsa-eskubide eta -bermeei.
172d) Ebazpen- eta exekuzio-fasea bereizi beharko dira.

**173 Zenbat iraungo du, gehienez ere, eginkizunen etenaldi irmoaren zehapenak?**

173a) 3 urte.
173b) 5 urte.
173c) 6 urte.
173d) 10 urte.

**174 Kontratuaren iraupenaren arabera, nola sailkatzen dira langile lan-kontratudunak?**

174a) Finkoak, mugagabeak eta behin-behinekoak.
174b) Finkoak eta aldi baterakoak.
174c) Finkoak, mugagabeak eta aldi baterakoak.
174d) Finkoak eta behin-behinekoak.

**175 Zein dira legezko izendapenaren bidez administrazio publiko bati iraunkorki eta administrazio zuzenbideak araututako estatutu-harreman baten bidez lotuta dauden enplegatu publikoak?**

175a) Zuzendaritzako langile profesionalak.
175b) Karrerako funtzionarioak.
175c) Bitarteko funtzionarioak.
175d) Behin-behineko langileak.

**176 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, nola sailkatzen dira enplegatu publikoak?**

176a) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, langile lan-kontratudunak (finkoak, mugagabeak, aldi batekoak) eta behin-behineko langileak.
176b) Karrerako funtzionarioak eta langile lan-kontratudunak (finkoak, mugagabeak, aldi batekoak).
176c) Karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak.
176d) Karrerako funtzionarioak, langile lan-kontratudunak, behin-behineko langileak eta zuzendaritzako langileak.

**177 Enplegatu publikoei aplikatzen zaien zehapen-araubideak printzipio hauek errespetatu behar ditu (adierazi zein den erantzun okerra):**

177a) Legezkotasun-printzipioa eta falta eta zehapenen tipifikazioaren printzipioa.
177b) Erruduntasun-printzipioa.
177c) Errugabetasun-presuntzioaren printzipioa.
177d) Aldekoak ez diren xedapen zehatzaileen atzeraeraginaren printzipioa.

**178 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 95. artikuluaren arabera, nola sailkatzen dira enplegatu publikoek egindako arau-hausteak?**

178a) Oso astunak, astunak eta irregulartasunak.
178b) Oso astunak eta astunak.
178c) Astunak eta arinak.
178d) Oso astunak, astunak eta arinak.

**179 Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, betetzen den lanpostu baten mailak zerekin du zerikusia?**

179a) Berariazko osagarriarekin.
179b) Destino-osagarriarekin.
179c) Soldatarekin.
179d) Produktibitate-osagarriarekin.

**180 Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer ordaintzen da berariazko osagarriarekin?**

180a) Lanaldi arruntetik kanpora egindako aparteko zerbitzuak.
180b) Funtzionarioak bere lanpostua betetzean izandako errendimendu berezia.
180c) Funtzionarioak betetzen duen lanpostuaren maila.
180d) Lanpostuaren zailtasun tekniko berezia, dedikazioa, erantzukizuna, bateraezintasuna, arriskugarritasuna edo nekagarritasuna.

**181 Euskal Funtzio Publikoaren Legean ezarritakoaren arabera, nolakoak dira euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariak?**

181a) Espezifikoak eta apartekoak.
181b) Oinarrizkoak eta haborokinak.
181c) Oinarrizkoak eta osagarriak.
181d) Oinarrizkoak, osagarriak eta apartekoak.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**182 Enplegatu publikoak (adierazi erantzun <u>okerra</u> zein den):**

182a) Leialtasunaren eta fede onaren printzipioei jarraituz jardungo dute, lanean diharduten administrazioarekin, nagusiekin, lankideekin, menpekoekin eta herritarrekin.
182b) Enplegatu publikoek ez dute pertsona fisiko nahiz entitate pribatuengandik mesede-traturik onartuko, ezta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.
182c) Interes pertsonala duten gaietan abstenitu egingo dira, salbu eta inpartzialtasuna berma badezakete.
182d) Zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioaren printzipioari jarraituz beteko dituzte dagozkien eskuduntzak, eta saihestu egingo dituzte, printzipio horren aurkako jokabideez gain, zerbitzu publikoen jardunean zaindu beharreko neutraltasuna kolokan jar dezaketen jokabide guztiak.

**183 Enplegatu publikoek zer oporraldi ordaindu izateko eskubidea dute urte natural bakoitzaren barruan?**

183a) 22 egun baliodunekoa.
183b) 20 egun baliodunekoa.
183c) Hilabetekoa.
183d) 22 egun naturalekoa.

**184 Funtzionarioek lanaldia murrizteko eskubidea dute oso gaixotasun larria duen lehen mailako senide bat zaintzeko; baina zenbat murriztu dezakete lanaldia?**

184a) Ehuneko berrogeita hamar gehienez, soldatarik gabe.
184b) Ehuneko berrogeita hamar gehienez, ordainsaria jasota, hilabetez asko jota.
184c) Ehuneko berrogeita hamar gehienez, ordainduta, sei hilabetez asko jota.
184d) Ehuneko berrogei gehienez, ordainduta, behar beste denboraz.

**185 Enplegatu publikoak telelanean jarduteari buruz; zein da erantzun <u>okerra</u>?**

185a) Telelanean jardutea nahitaezkoa izango da, administrazio publikoak hala irizten badio.
185b) Administrazioak baimen espresua eman behar du.
185c) Aurrez aurreko jarduerarekin bateragarria izan behar du.
185d) Enplegatu publikoek aurrerago ere beren erabakia berraztertzeko aukera izango dute.

**186 Nola esaten zaio langile lan-kontratudunen ordezkarien eta administrazioaren arteko negoziazio kolektiboaren emaitzari?**

186a) Ituna.
186b) Akordioa.
186c) Hitzarmen kolektiboa.
186d) Administrazio-kontratua.

**187 Funtzionarioen lan-baldintzak negoziazio-mahaietan adostuko dira:**

187a) Itun eta akordioen bidez.
187b) Hitzarmen kolektiboen bidez.
187c) Arbitraje-laudoen bidez.
187d) Kontratu kolektiboen bidez.

**188 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, zer gai negozia daitezke negoziazio kolektiboaren barruan?**

188a) Enplegu publikora iristeko eta lanbide-sustapena egiteko sistemen, irizpideen, organoen eta prozeduren erregulazioa eta finkapen zehatza, dagokiona.
188b) Zerbitzu publikoen erabiltzaileen eta herritarren eskubideak egikaritzeko arauak.
188c) Zuzendaritzako langileen lan-baldintzak zehaztea.
188d) Funtzionarioen ordainsari osagarrien zenbatekoa ezartzea eta aplikatzea.

**189 Jardunaren ebaluazioa dela eta, administrazio publiko bakoitzak erabakiko du jardunaren ebaluazioak zer ondorio izan behar duen:**

189a) Barne-sustapenean eta oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak jasotzean.
189b) Prestakuntzak eta lanpostuak horizontalki betetzerakoan.
189c) Karrera profesional horizontala osatzerakoan, prestakuntza hartzerakoan, lanpostuak betetzerakoan eta ordainsari osagarriak kobratzerakoan.
189d) Karrera bertikala osatzerakoan, prestakuntzan, lanpostuak betetzerakoan eta ordainsari osagarriak kobratzerakoan.

**190 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 19. artikuluak nola gauzatuko direla ezartzen du langile lan-kontratudunen karrera profesionala eta barne-sustapena?**

190a) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan aurreikusitako prozedurak erabiliz.
190b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzeko legeetan aurreikusitako prozedurak erabiliz.
190c) Hitzarmen kolektiboetan aurreikusitako prozedurak erabiliz.
190d) Langileen Estatutuan edo hitzarmen kolektiboetan jasotako prozedurak erabiliz.

**191 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzeko emango diren funtzio publikoari buruzko legeek arautuko dute enplegatu publikoen karrera profesionala zer-nolakoa izango den, eta ezinbestekoa izango da:**

191a) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan jasotako karrera-modalitate guztiak jasotzea.
191b) Karrera horizontala eta bertikala jasotzea.
191c) Besteak beste, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan jasotako karrera-modalitateren bat edo batzuk jasotzea, banaka nahiz batera.
191d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

**192 Zer da barne-sustapen horizontala?**

192a) Azpitalde profesional bereko kidegoetara edo eskaletara iristea.
192b) Lanpostuen egituran gora egitea, lanpostuak betetzeko prozedurak erabilita.
192c) Kidego batetik edo lanbide-sailkapeneko azpitaldeko eskala batetik (edo talde batekotik, baldin eta azpitalderik ez badu) goragoko beste batera igotzea.
192d) Gradu, kategoria, maila eta antzeko beste kontzeptu batzuetan aurrera egitea, lanpostuz aldatu beharrik izan gabe.

**193 Kidego batetik edo lanbide-sailkapeneko azpitaldeko eskala batetik (edo talde batekotik, baldin eta azpitalderik ez badu) goragoko beste batera igotzea. Zer da?**

193a) Barne-sustapen horizontala.
193b) Barne-sustapen bertikala.
193c) Karrera horizontala.
193d) Karrera bertikala.

**194 Zer da karrera horizontala?**

194a) Azpitalde profesional bereko kidegoetara edo eskaletara iristea.
194b) Kidego batetik edo lanbide-sailkapeneko azpitaldeko eskala batetik (edo talde batekotik, baldin eta azpitalderik ez badu) goragoko beste batera igotzea.
194c) Lanpostuen egituran gora egitea, lanpostuak betetzeko prozeduren bidez.
194d) Gradu, kategoria, maila eta antzeko beste kontzeptu batzuetan aurrera egitea, lanpostuz aldatu beharrik izan gabe.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**195 Lanpostuen egituran gora egitea, lanpostuak betetzeko prozeduren bidez; zeren definizioa da?**

195a) Barne-sustapen horizontala.
195b) Barne-sustapen bertikala.
195c) Karrera bertikala.
195d) Karrera horizontala.

**196 Aplikatzen zaio euskal enplegu publikoari enplegatu publikoaren karrera profesionalerako eta barne-sustapenerako eskubidea, zeina Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren II. kapituluan araututa baitago?**

196a) Bai, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua oinarrizko legea baita, eta legeko artikulu guztiak aplikagarriak baitira BOEn argitaratzen den unetik bertatik.
196b) Ez; Eusko Legebiltzarrak ez baitu oraindik Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzeko legea onetsi.
196c) Ez, Euskal Administrazio Publikoak ez baitu oraindik Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzeko araudia onetsi.
196d) Bai. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren azken xedapenetako laugarrenak hala jasotzen du.

**197 Zein da taldean baliatzen den enplegatu publikoaren eskubide indibidual bat?**

197a) Greba egiteko eskubidea.
197b) Lanbide-karreran aurrera egiteko eta barne-sustapena izateko eskubidea.
197c) Etengabeko prestakuntzarako eskubidea.
197d) Norberaren eta familiaren bizimoduak eta lan-arlokoa elkarri egokitzen laguntzeko neurrietarako eskubidea.

**198 Nori aitortzen zaio mugiezintasunerako eskubidea?**

198a) Funtzionarioei eta langile lan-kontratudunei.
198b) Enplegatu publiko guztiei.
198c) Funtzionarioei soilik.
198d) Aurrekoetatik bakar bati ere ez.

**199 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, zer batuta kalkulatzen da oinarrizko ordainsaria?**

199a) Sailkapen profesionaleko talde bakoitzari esleitutako soldata eta hirurtekoak.
199b) Soldata eta lanpostu jakin batzuetan jarduteko eskatzen den aparteko zailtasun teknikoagatik eman beharreko ordainsariak.
199c) Soldata, hirurtekoak eta aparteko ordainsariak.
199d) Soldata, hirurtekoak eta haborokinak.

**200 Zein <u>ez</u> da hutsegite oso astuna?**

200a) Sekretu ofizialak zaintzeko orduan, arduragabekeriaz jokatzea.
200b) Greba-egoeretan ezinbesteko diren zerbitzuak betetzeko eginbeharra ez betetzea.
200c) Lanpostuari lotutako funtsezko eginkizunak edo langileak esleituta dituen eginkizunak modu nabarmenean ez betetzea.
200d) Administrazio-prozedura batean esku-hartzea, esku ez hartzeko kausetariko bat egonik tartean.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 10. gaia

**201 Datu pertsonalak babesteko eskubidea:**

201a) Ez da Espainiako Konstituzioan bermatzen.
201b) Europar Batasuneko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean soilik arautzen da.
201c) Espainiako Konstituzioaren 18.4. artikuluan bermatzen da.
201d) Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoan soilik arautzen da.

**202 Zer dira datu pertsonalak?**

202a) Identifikaturiko edo identifika daitezkeen pertsona fisikoen gaineko informazio oro.
202b) Identifikaturiko edo identifika daitezkeen pertsona fisikoen edo juridikoen gaineko informazio oro.
202c) Pertsona fisikoen gaineko informazio oro, bizirik edo hilda egon.
202d) Identifikaturiko pertsona fisikoen gaineko informazio oro.

**203 Adingabeek...**

203a) Datu pertsonalen tratamendurako adostasuna ematea baliozkoa da, hamalau urte baldin badituzte.
203b) Ezin diote datu pertsonalen tratamenduari adostasunik eman.
203c) Datu pertsonalen tratamendurako adostasuna ematea baliozkoa da, hamasei urte baldin badituzte.
203d) Datu pertsonalen tratamendurako adostasuna ematea baliozkoa da, baldin eta haien legezko tutoreen baimena badute.

**204 Datu pertsonalen tratamendua EZ da zilegi izango....**

204a) Interesdunak adostasuna eman duenean.
204b) Lege-betebehar bat betetzeko beharrezkoa denean.
204c) Tratamendua beharrezkoa denean tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek lortu nahi dituzten interes legitimoak betetzeko, baita tratamenduaren arduraduna administrazio publikoa izan eta interes legitimoa aldarrikatzen duenean ere.
204d) Tratamendua beharrezkoa denean kontratu bat betearazteko.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**205 Zein da administrazio publikoen oinarri legitimatzaile usuena datu pertsonalen tratamendurako?**

205a) Interesdunaren adostasuna.
205b) Administrazioaren interes legitimoa.
205c) Interesdunarekin kontratu bat izatea.
205d) Tratamendua beharrezkoa izatea interes publikoaren izenean edo botere publikoak baliatze aldera burututako eginkizun bat betetzeko.

**206 Datuen babeserako araudian jasotzen den datuak minimizatzearen printzipioa dela eta (DBEO, 5.1.c artikulua), nolakoak izango dira datu pertsonalak?**

206a) Datu pertsonalak helburu zehatz, berariazko eta zilegizkoetarako jasoko dira, eta gerora ez dira tratatuko datu horiekin bateraezinak diren xedeetarako.
206b) Datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera.
206c) Datu pertsonalek zehatzak, eta, beharrezkoa bada, eguneratuak izan behar dute.
206d) Datu pertsonalak ez dira gorde behar lortu nahi den helburua lortzeko behar den denbora baino gehiago.

**207 Datuen babeserako araudian jasotzen den zehaztasun printzipioaren arabera (DBEO, 5.1.d artikulua)...**

207a) Arrazoizko neurri guztiak hartuko dira luzamendurik gabe ezerezteko edo zuzentzeko tratamenduaren helburuei begira zehaztugabeak diren datu pertsonalak.
207b) Beharrezko neurri guztiak hartuko dira aurreikusitako helburua bete duten datuak ezabatzeko.
207c) Egoki diren neurriak hartuko dira zehaztugabeak diren datuak ezerezteko edo zuzentzeko, tratamenduaren arduradunak hala erabakitzen badu.
207d) Neurri guztiak hartuko dira zehaztugabeak diren eta errealitatearekin bat ez datozen datu pertsonalak zuzentzeko.

**208 Hauetako zein dira kategoria bereziko datu pertsonalak?**

208a) Pertsona jakin bati buruzko datu ekonomikoak.
208b) Pertsona baten helbideari buruzko datuak.
208c) Pertsona baten osasunari buruzko datuak.
208d) Norbaiten izenean dagoen auto baten matrikula-zenbakia.

**209 Informazioa jasotzeko eskubidea, datu pertsonalak babesteko eskubidearen funtsetako bat dena (DBEO, 13. eta 14. artikuluak),...**

209a) Bete egin behar da interesdunak hala eskatzen duenean.
209b) Proaktiboki bete behar du tratamenduaren arduradunak.
209c) Bete egin behar da beti ahoz.
209d) Bete egin behar da tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak jaso eta hilabeteko epean.

**210 Datuetan sartzeko eskubidea, datu pertsonalak babesteko eskubidearen funtsetako bat dena (DBEO, 15. artikulua)...**

210a) Administrazio publikoen aurrean gauza daiteke, betiere dagokion kanona ordainduta.
210b) Doakoa da beti.
210c) Doakoa da, baina eskabideak argi eta garbi funsgabeak edo neurrigabeak badira, batez ere behin eta berriz errepikatzen direlako, kanon bat kobratu daiteke.
210d) Doakoa da, baina ez du eskubiderik ematen interesdunari tratamenduaren xede diren datu pertsonalen kopia bat emateko.

**211 Datu pertsonalak babesteko eskubidearen barruan, zer arrazoitu beharko du interesdunak aurka egiteko eskubidea egikaritu dezan?**

211a) Bere egoera partikularrarekin erlazionatutako arrazoiak.
211b) Edozein zirkunstantzia.
211c) Garrantzi bereziko bizi-interes bat.
211d) Interes legitimo bat.

**212 Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 22. artikuluaren arabera...**

212a) Interesdun orok eskubidea du tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta berarengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten xede ez izateko, salbuespenik gabe.
212b) Interesdun orok eskubidea du tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta berarengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten xede ez izateko, nahiz eta badiren era horretako erabakietan arduradunak egin ditzakeen zenbait salbuespen.
212c) Pertsona bat datuen tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede izan daiteke, profilak egitea barne, baldin eta harengan ondorio juridikoak eragiten baditu edo, nolanahi ere, nabarmen eragiten badio, tratamenduaren arduradunak nahi duenean.
212d) Pertsona bat izan daiteke datuen tratamendu automatizatu batean soilik oinarritutako erabaki baten xede, profilak egitea izan ezik, baldin eta ondorio juridikoak eragiten badizkio edo antzeko ondorio esanguratsuak baditu.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 11. gaia

**213 Non dago ezarrita botere publikoei «laneko segurtasuna eta higienea zaintzea» dagokiela?**

213a) Espainiako Konstituzioan, eta funtsezko eskubide bat da.
213b) Espainiako Konstituzioan, eta politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarietako bat da.
213c) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legean aitortzen da, eta funtsezko eskubide gisa jasotzen da.
213d) Ez dago halakorik Espainiako ordenamendu juridikoan.

**214 Lan-arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 3. artikuluaren arabera, zeri aplikatzen zaio araua?**

214a) Poliziaren, segurtasunaren eta aduana-gordekinaren funtzio publikoen esparruko jarduerei ere aplikatzen zaie, haien berezitasunek legea aplikatzea eragozten dutenean.
214b) Indar armatuen jarduerei eta Guardia Zibilaren jarduera militarrei ere aplikatzen zaie, haien berezitasunek legea aplikatzea eragozten dutenean.
214c) Ez zaie aplikatzen administrazio publikoen zerbitzupean dauden langileen administrazio-zein estatutu-izaerako lan-harremanei.
214d) Administrazio publikoen zerbitzupean dauden langileen administrazio- zein estatutu-izaerako lan-harremanei.

**215 Lan-arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 14. artikuluaren arabera, zertarako eskubidea dute langileek?**

215a) Laneko osasun eta segurtasunaren arloan babes egokia izateko.
215b) Laneko osasun eta segurtasunaren arloan nahikoa babes izateko.
215c) Laneko osasun eta segurtasunaren arloan benetako babesa izateko.
215d) Laneko osasun eta segurtasunaren arloan arrazoizko babesa izateko.

**216 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Prebentzio-neurriak aplikatzeko kontuan hartu behar diren printzipio orokorrak dira, besteak beste:**

216a) Arriskuak saihestea, langileei jarraibide egokiak ematea eta teknikaren bilakaera kontuan hartzea.
216b) Arriskuak jatorrian saihestea, arriskutsua dena arrisku gutxi edo arriskurik ez dakarrenarekin ordeztea eta langileei jarraibide egokiak ematea.
216c) Prebentzioa planifikatzea, teknikaren bilakaera kontuan hartzea eta irizpide ekonomikoa aintzat hartzea.
216d) Zereginak agintzeko unean, langileek segurtasun- eta osasun-arloan dituzten gaitasun profesionalak kontuan hartzea; lana pertsonarentzat moldatzea, pertsona lanera moldatu beharrean, eta saihestezinak diren arriskuak ebaluatzea.

**217 Zein dira lan-arriskuen prebentzio-plana kudeatzeko eta aplikatzeko funtsezko tresnak?**

217a) Lan-arriskuen hasierako ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza.
217b) Lan-arriskuen ebaluazioa eta arriskuei jatorrian aurre egitea.
217c) Arriskuei jatorrian aurre egitea eta arriskuak saihestea.
217d) Prebentzioa planifikatzea eta saihestezinak diren arriskuak ebaluatzea.

**218 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearekin bat etorriz, eta legean ezarritako babes-eginbeharra betetzeko, enpresaburuak neurri egokiak hartuko ditu langileek beharrezko informazio guztia jaso dezaten:**

218a) Haien segurtasun eta osasunerako arriskuei buruz, bai enpresa osoari eragiten diotenei buruz, bai lanpostu edo eginkizun bakoitzari eragiten diotenei buruz.
218b) Arrisku horietarako aplika daitezkeen babes- eta prebentzio-neurriei eta -jarduerei buruz.
218c) Larrialdi-egoeren aurrean hartu beharreko neurriei buruz: lantokia husteko beharra edo egoera jakin bati aurre egiteko zer egin.
218d) Langilearen lanpostuari edo eginkizunari eragiten dioten arrisku espezifikoei buruz, eta arrisku horiei aplikatu beharreko babes- eta prebentzio-neurriei buruz. Informazio hori ordezkari sindikalen bitartez emango da beti.

**219 Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, enpresaburuak...**

219a) Bermatu beharko du langile bakoitzak prebentzioaren alorreko prestakuntza teorikoa eta praktikoa izango duela, behar bestekoa eta egokia, kontratua egiteko unean edota langileak dituen eginkizunak aldatzen direnean edo teknologia berriak sartu edo lan-ekipamenduetan aldaketak egiten direnean.
219b) Bermatu dezake langile bakoitzak prebentzioaren alorreko prestakuntza teorikoa eta praktikoa izango duela, behar bestekoa eta egokia, kontratua egiteko unean edota langileak dituen eginkizunak aldatzen direnean edo teknologia berriak sartu edo lan-ekipamenduetan aldaketak egiten direnean.
219c) Bermatu beharko du langile bakoitzak prebentzioaren alorreko arrazoizko prestakuntza teorikoa eta praktikoa izango duela, kontratua egiteko unean edota langileak dituen eginkizunak aldatzen direnean edo teknologia berriak sartu edo lan-ekipamenduetan aldaketak egiten direnean.
219d) Bermatu dezake langile bakoitzak prebentzioaren alorreko prestakuntza teorikoa eta praktikoa izango duela kontratua egiteko unean, behar bestekoa eta egokia.

ISBN: 978-84-7777-667-3

220 Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, zer da «arrisku larri eta hur-hurrekoa edo berehalakoa»?

220a) Ezohikotzat jo daitekeen edozein arrisku.
220b) Etorkizun hurbilean eta ez hain hurbilean gerta daitekeen arrisku larria.
220c) Langileen segurtasuna eta osasuna trantze larrian jarriko dituen arriskua, eta berehala gertatuko dena.
220d) Berehala gertatuko den aurreikusi gabeko arriskua.

221 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak xedatzen duenaren arabera, langileak arrisku larri eta hur-hurrekoan badaude lanean, zer betebehar du enpresaburuak?

221a) Ukitutako langile guztiei ahal bezain laster jakinaraztea arriskua dagoela eta zer neurri hartu diren arriskua saihesteko.
221b) Beharrezko neurriak hartu eta eman beharreko jarraibideak ematea, langileek beren jarduera eten, eta, beharrezkoa izanez gero, toki horretatik berehala alde egin dezaten.
221c) Behar den guztia egitea hierarkian gorago dagoenarekin harremanetan jarri ezin den langilea arrisku horren ondorioak saihesteko beharrezko neurriak hartzeko moduan egon dadin.
221d) Enpresa-jarduerarekin jarraitzea, baita arriskuak dirauen bitartean ere.

222 Nola egingo da langileen osasunaren zaintza?

222a) Beti, nahitaez, baita langileak onartzen ez badu ere.
222b) Beti langilearen adostasunarekin.
222c) Oro har, langilearen adostasunarekin, nahiz eta kasu batzuetan adostasuna eman beharrik ez duen.
222d) Langilearen adostasunik gabe.

223 Lantoki berean bi enpresa edo administraziotako edo gehiagotako langileek egiten dutenean lan...

223a) Lankidetzan jardun beharko dute enpresa horiek, lan-arriskuen prebentzioko arautegia aplikatzerakoan.
223b) Jardunean ari diren enpresa edo administrazio bakoitza arduratuko da bere langileentzat neurri egokiak hartzeaz.
223c) Enpresetako edo administrazioetako bat izendatuko da prebentzio-neurri egokiak hartzeko arduradun.
223d) Enpresa edo administrazio handiena arduratuko da prebentzio-neurri egokiak hartzeaz.

224 Nor jotzen da arrisku batzuen aurrean langile bereziki sentikortzat?

224a) Dena delako enpresak edo administrazioak markatutako irizpideei jarraituz, lanetik eratorritako arriskuen aurrean bereziki sentiberak direnak, desgaitasun fisikoko, psikikoko edo zentzumenezko desgaitasunezko egoera aitortu zaien langileak barne.
224b) Ezaugarri pertsonalen edo egoera biologiko ezagunen ondorioz, lanetik eratorritako arriskuen aurrean bereziki sentiberak direnak, desgaitasun fisikoko, psikikoko edo zentzumenezko desgaitasunezko egoera aitortu zaien langileak barne.
224c) Ezaugarri pertsonalen edo egoera biologiko ezagunen ondorioz, lanetik eratorritako arriskuen aurrean bereziki sentiberak direnak, desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezko egoera aitortu zaien langileak izan ezik.
224d) Desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezko egoera aitortuta izan eta lanetik eratorritako arriskuen aurrean bereziki sentiberak diren langileak.

ISBN: 978-84-7777-667-3


225 Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera... zein da egia?

225a) Haurdun dauden emakume langileek ez dute lanetik irteteko eskubiderik izango, ordaindutako etenaldia eginda, haurdunaldiko mediku-azterketak egin eta erditzeko prestakuntza-teknikak ikasteko.
225b) Haurdun dauden emakume langileek lanetik irteteko eskubidea izango dute, baina ordainsaririk jaso gabe, haurdunaldiko mediku-azterketak egin eta erditzeko prestakuntza-teknikak ikasteko, baldin eta aldez aurretik enpresaburuari jakinarazten badiote.
225c) Haurdun dauden emakume langileek, ordaindutako etenaldia eginda, lanetik irteteko eskubidea izango dute, haurdunaldiko mediku-azterketak egin eta erditzeko prestakuntza-teknikak ikasteko, baldin eta aldez aurretik enpresaburuari jakinarazten badiote.
225d) Haurdun dauden emakume langileek, ordaindutako etenaldia eginda, lanetik irteteko eskubidea izango dute, haurdunaldiko mediku-azterketak egin eta erditzeko prestakuntza-teknikak ikasteko, baldin eta aldez aurretik enpresaburuari jakinarazten badiote eta lanaldiaren barruan egin behar direla justifikatzen badute.

226 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, hauetako zein EZ da langileen betebehar bat arriskuen prebentzioaren arloan?

226a) Makinak, lanabesak, aparatuak, substantzia arriskutsuak, garraio-ekipamenduak eta, orokorrean, lan egiteko osterantzeko tresnak modu egokian erabiltzea, horien nolakotasuna eta aurreikus daitezkeen arriskuak kontuan hartuta.
226b) Enpresaburuarekin edo administrazioarekin lankidetzan aritzea, horrek lan-baldintza seguruak eta langileen segurtasun eta osasunerako arriskurik ez dakartenak berma ditzan.
226c) Egoki irizten diotenean, hierarkian gainetik dagoenari eta babes- zein prebentzio-jarduerak gauzatzeko izendatutako langileei edo, hala badagokio, prebentzio-zerbitzuari langileen segurtasunerako eta osasunerako arriskua ekar dezakeen edozein egoeraren berri ematea.
226d) Langileen segurtasuna eta osasuna babesteko, agintaritza eskudunak ezarritako betebeharrak betetzen laguntzea.

227 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, langileek arriskuak prebenitzeko dituzten betebeharrak ez betetzea...

227a) Laneko ez-betetzetzat joko da Langileen Estatutuaren ondoreetarako, edo faltatzat, hala badagokio, funtzionario publikoen edo administrazio publikoen zerbitzupean dauden estatutupeko langileen diziplina-araubideari buruzko kasuan kasuko arautegiak ezarritakoaren arabera.
227b) Arau-hauste administratibotzat joko da Langileen Estatutuaren 58.1 artikuluak xedatutakoaren ondoreetarako, edo faltatzat, hala badagokio, funtzionario publikoen edo administrazio publikoen zerbitzupean dauden estatutupeko langileen diziplina-araubideari buruzko kasuan kasuko arautegiak ezarritakoaren arabera.
227c) Laneko ez-betetzetzat joko da Langileen Estatutuaren 61. artikuluak xedatutakoaren ondoreetarako, edo faltatzat, hala badagokio, funtzionario publikoen edo administrazio publikoen zerbitzupean dauden estatutupeko langileen diziplina-araubideari buruzko kasuan kasuko arautegiak ezarritakoaren arabera.
227d) Ez da laneko ez-betetzetzat edo arau-hauste administratibotzat joko, betebehar horiek borondatezkoak baitira.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 12. gaia

**228 Non arautzen da bistaratze-pantailen eraginpean dauden langileen lan-arriskuen prebentzioa?**

228a) Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean.
228b) 1997ko apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretuan.
228c) 1997ko urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan.
228d) 1997ko apirilaren 14ko 490/1997 Errege Dekretuan.

**229 Bistaratze-pantailak dituzten ekipoekin lan egiteko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzko erregelamenduaren arabera, zer da «bistaratze-pantaila» bat?**

229a) Pantaila alfanumeriko edo grafiko bat, edozein dela ere erabilitako bistaratze-metodoa.
229b) Pantaila alfanumeriko edo grafiko bat, baldin eta erabilitako bistaratze-metodoak baldintza tekniko batzuk betetzen baditu.
229c) Edozein pantaila mota, erabilitako bistaratze-metodoa edozein dela ere.
229d) Irudiak proiektatzen diren edozein xafla edo gainazal mota, edozein dela ere erabilitako bistaratze-metodoa.

**230 Bistaratze-pantailak dituzten ekipoekin lan egiteko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzko erregelamenduaren arabera, zer da «langilea»?**

230a) Normalean edo noizean behin bistaratze-pantaila duen ekipo bat erabiltzen duen edozein langile.
230b) Normalean eta lanaldiaren zati garrantzitsu batean, bistaratze-pantaila duen ekipo bat erabiltzen duen edozein langile.
230c) Lanaldiaren edozein unetan bistaratze-pantaila duen ekipo bat erabiltzen duen edozein langile.
230d) Normalean eta lanaldiaren zati garrantzitsu batean, lan arrunta izan edo ez, bistaratze-pantaila duen ekipo bat erabiltzen duen edozein langile.

**231 Bistaratze-pantailak dituzten ekipoekin lan egiteko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzko erregelamenduaren ondoreetarako, nor jo daiteke bistaratze-pantailak erabiltzen dituzten langiletzat?**

231a) Ekipamendu horiekin egunean 2 ordu edo astean 10 ordu baino gehiago lan egiten dutenak.
231b) Ekipamendu horiekin egunean 5 ordu edo astean 25 ordu baino gehiago lan egiten dutenak.
231c) Ekipamendu horiekin egunean 4 ordu edo astean 20 ordu baino gehiago lan egiten dutenak.
231d) Ekipamendu horiekin egunean 4 ordu edo astean 25 ordu baino gehiago lan egiten dutenak.

**232 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Langileek bistaratze-pantailak dituzten ekipoekin lan egitea ez dadin arriskutsua izan haien segurtasunerako edo osasunerako edo arriskuak ahalik eta txikienak izan daitezen, enpresaburuak edo administrazioak ebaluatu egin beharko ditu arrisku horiek. Zer faktore hartu beharko dira kontuan ebaluazioa egiteko?**

232a) Ikusmenerako arriskuak.
232b) Arazo fisikoak eta buruko nekea izateko arriskuak.
232c) Ikusmenerako arriskuek eta arazo fisikoek edo buruko nekeak ekar dezaketen eragin erantsia edo konbinatua.
232d) Lana egiten den giro-tenperatura.

**233 Zein EZ da bistaratze-pantailekin lotutako lanpostuak ebaluatzeko aukera osagarri bat?**

233a) Lanpostuko elementuen diseinu ergonomikoa egiaztatzea.
233b) Buruko, ikusmeneko eta muskuluetako nekea balioestea, zereginaren eskakizunak, langilearen ezaugarri pertsonalak, lan-denbora, nekearen sintomak eta abar ebaluatu ondoren.
233c) Arrisku-egoerak detektatzea, osasunaren aldizkako zaintzaren bidez.
233d) Lanpostua ondo diseinatzea.

**234 Bistaratze-pantailak dituzten ekipoekin lan egiteko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzko erregelamenduaren arabera, arriskuen ebaluazioak agerian uzten badu bistaratze-pantailak dituzten ekipoak erabiltzea arriskutsua dela edo izan daitekeela langilearen segurtasun edo osasunerako, zer egin behar du enpresaburuak edo administrazioak?**

234a) Pantailaren aurrean jarraian egiten den lanaren gehieneko iraupena murriztu, eguneroko jarduera beste batzuekin txandakatzeko moduan antolatuz edo, lanak txandakatzea ezinezkoa denean edo arriskua gutxitzeko nahikoa ez denean, beharrezko etenaldiak eginez.
234b) Eguneroko jarduera noizean behin etenaldiak egiteko sistema bat ezarrita antolatu, segurtasun edo osasunerako arriskua gutxitu dadin.
234c) Pantailaren aurrean jarraian egiten den lanaren gehieneko iraupena murriztu, beti noizean behin etenaldiak egiteko sistema bat ezarrita
234d) Ez dago beharturik etenaldiak egitera, pantailaren aurrean jarraian lan egiteak ekar ditzakeen arriskuak gutxitzeko.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**235 Bistaratze-pantailak dituzten ekipoekin lan egiteko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzko erregelamenduaren arabera, enpresaburuak bermatu behar du langileek beren osasuna zaintzeko eskubidea dutela, baina bereziki zer arrisku kontuan hartuta?**

235a) Ikusmenerako arriskuak, arazo fisikoak eta buruko nekea izateko arriskuak, bai eta horien konbinazioak eta horien ondorioz sor daitezkeen patologiak ere.
235b) Arazo fisikoak eta buruko nekea izateko arriskuak, bai eta horien konbinazioak eta horien ondorioz sor daitezkeen patologiak ere.
235c) Ikusmenerako arriskuak eta buruko nekea izateko arriskuak, bai eta horien konbinazioak eta horien ondorioz sor daitezkeen patologiak ere.
235d) Ikusmenerako arriskuak eta arazo fisikoak, bai eta horien konbinazioak eta horien ondorioz sor daitezkeen patologiak ere.

**236 Bistaratze-pantailak dituzten ekipoekin lan egiteari dagokionez, segurtasuna eta osasuna bermatzeko azterketa oftalmologikoak direla eta, adierazi zein den erantzun zuzena:**

236a) Ezinbestekoa da azterketa oftalmologikoak oftalmologoek egitea.
236b) Berrogei urtetik gorakoak oftalmologoarengana bidali beharko dira nahitaez, proba espezifikoak egin diezazkieten begietako tentsioa neurtzeko eta presbizia (ikusmen nekatua) prebenitzeko.
236c) Azterketak ez dituzte zertan oftalmologoek egin, laneko medikuek ere egin baititzakete.
236d) Azterketa oftalmologikoak laneko medikuek egin beharko dituzte.

**237 Datuak bistaratzeko pantailak direla eta, osasunaren zaintzako protokolo espezifikoaren arabera, buruko nekearen balorazioa inkesta espezifiko baten bidez egingo da. Zer jasoko da inkesta horretan?**

237a) Informazio pertsonala, inguruneko faktoreak, lanpostuaren eskakizunak, lanaren antolaketa, sintomak, lanerako ezintasunaren aurrekariak, norberaren gogobetetzea.
237b) Informazio pertsonala, inguruneko faktoreak, datu ekonomikoak, lanaren antolaketa, sintomak, lanerako ezintasunaren aurrekariak, norberaren gogobetetzea.
237c) Informazio pertsonala, inguruneko faktoreak, datu ekonomikoak, familia-egoera, lanerako ezintasunaren aurrekariak, norberaren gogobetetzea.
237d) Informazio pertsonala, inguruneko faktoreak, datu ekonomikoak, familia-egoera, sintomak, lanerako ezintasunaren aurrekariak, norberaren gogobetetzea.

**238 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Datuak bistaratzeko pantailei buruzko osasunaren zaintzako protokolo espezifikoaren arabera, nola agertzen edo nabaritzen dira begietako nekearen sintomak?**

238a) Begietako minaren bidez.
238b) Ikusmenaren nahasmenduen bidez.
238c) Nahasmendu estraokularren bidez.
238d) Lepoko eta garondoko minaren bidez.

**239 Datuak bistaratzeko pantailei buruzko osasunaren zaintzako protokolo espezifikoaren arabera, zer faktorek eragiten dute alterazio psikosomatikoen agerpenean?**

239a) Laneko errutinak, zereginen eta funtzioen aldaketak eragindako antsietateak, gorputz-jarrera estatikoak, argiaren kalitateak, norberaren aldez aurretiko jarrerak eta ohitura kaltegarriek.
239b) Laneko errutinak, zereginen eta funtzioen aldaketak eragindako antsietateak, gorputz-jarrera estatikoak, pertsonaren eta programaren arteko komunikazio-akatsek, norberaren aldez aurretiko jarrerak, ohitura kaltegarriek eta gehiegizko buruko nekeak (estresa).
239c) Laneko errutinak, buruaren albo-errotazioak, gorputz-jarrera estatikoak, pertsonaren eta programaren arteko komunikazio-akatsek, norberaren aldez aurretiko jarrerak, ohitura kaltegarriek eta gehiegizko buruko nekeak (estresa).
239d) Laneko errutinak, buruaren albo-errotazioak, gorputz-enborra aurrerantz inklinatzeak, zereginen eta funtzioen aldaketak eragindako antsietateak, gorputz-jarrera estatikoak eta pertsonaren eta programaren arteko komunikazio-akatsek.

**240 Datuak bistaratzeko pantailei buruzko osasunaren zaintzako protokolo espezifikoaren arabera, ohiko zereginetarako zer distantzia utzi behar da gutxienez pantailari begira egoteko?**

240a) 475 mm
240b) 450 mm
240c) 400 mm
240d) 45 mm

**241 Datuak bistaratzeko pantailei buruzko osasunaren zaintzako protokolo espezifikoaren arabera, nolakoa izan behar du ohiko zereginak egiteko erabiliko den aulkiak?**

241a) Bost hanka eta gurpilak eduki behar ditu, erraz mugitu ahal izateko.
241b) Lau hanka eta gurpilak eduki behar ditu, erraz mugitu ahal izateko.
241c) Eserlekuak lurretik 35-45 cm-ra egon behar du, eta 28-37 cm-ko sakonera eduki behar du.
241d) Eserlekuak lurretik 45-55 cm-ra egon behar du, eta lau hanka eduki behar ditu.

**242 Datuak bistaratzeko pantailei buruzko osasunaren zaintzako protokolo espezifikoaren arabera, zenbatekoa izan behar du ohiko zereginak egiten diren ingurune fisikoko konfort-tenperaturak?**

242a) Neguan: 23º-tik 26º-ra bitartean.
242b) Udan: 20º-tik 24º-ra bitartean.
242c) Neguan: 20º-tik 24º-ra bitartean.
242d) Udan: 20º-tik 26º-ra bitartean

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 13. gaia

**243 Istripu batek eragin dezakeen urduritasuna kontuan hartuta eta egoera horrek sor dezakeen arriskuari aurre egiteko, oinarrizko arau batzuei jarraitu behar zaie; baina zer sigla erabiltzen dira arau horiek adierazteko?**

243a) BAS (Babestu istripua gertatu den lekua. Abisatu ahal bezain laster osasun-zerbitzuei istripua izan dela, eta aktibatu larrialdi-sistema. Sorotsi istripua izan dutenak, zaurien larritasunaren arabera, eta aztertu bizi-zeinuak: konortea, arnasketa eta pultsua).
243b) BAS (Babestu istripua gertatu den lekua. Adierazi zuzenean istripua izan duen pertsonari. Sorotsi, zaurien larritasunaren arabera, eta aztertu bizi-zeinuak: konortea, arnasketa eta pultsua).
243c) BAD (Babestu istripua gertatu den lekua. Adierazi zuzenean istripua izan duen pertsonari. Deitu larrialdi-zerbitzuei).
243d) BAD (Babestu istripua gertatu den lekua. Abisatu ahal bezain laster osasun-zerbitzuei istripua izan dela, eta aktibatu larrialdi-sistema. Deitu larrialdi-zerbitzuei.)

**244 Istripu kasuetan, istripua jasan duenak arnasarik hartzen ez badu, arnasketa artifiziala egin behar zaio. Nolakoa izan behar du arnasketa artifizialak eraginkorra izateko?**

244a) Berehalakoa, etena eta iraunkorra.
244b) Berehalakoa, jarraitua eta iraunkorra.
244c) Istripua izan duen pertsonak oxigenoa hartzeari utzi eta 5 minutu igaro ondoren egina.
244d) Istripua izan duen pertsonak oxigenoa hartzeari utzi eta 3 minutu igaro ondoren egina.

**245 Istripu kasuetan, arnasketa artifiziala egiten ari garela arnasketa kontrolatzeko, airea biriketara iritsi dela eta biktimak pultsua duela egiaztatutakoan, putz egiten jarraituko dugu...**

245a) Minutuko 2-6 aldiz.
245b) Minutuko 10-12 aldiz.
245c) Minutuko 12-16 aldiz.
245d) Minutuko 16-20 aldiz.

**246 Istripu kasuetan, istripua jasan duenak pultsurik ez badu eta bihotz-taupadak izateari utzi badio, bihotz-masajea egin beharko zaio lehenbailehen. Bihotz-masajea egiteko, nolakoa izan behar du bihotzari kanpotik egin behar zaion konpresioak?**

246a) Konpresioak egitean toraxak 1 edo 2 zentimetro egin behar du behera, eta erritmo azkarrean egin behar dira: hau da, minutuko 50-60 konpresio.
246b) Konpresioak egitean toraxak 4 edo 5 zentimetro egin behar du behera, eta erritmo azkarrean egin behar dira: hau da, minutuko 80-100 konpresio.
246c) Konpresioak egitean toraxak 1 edo 2 zentimetro egin behar du behera, eta erritmo azkarrean egin behar dira: hau da, minutuko 60-100 konpresio.
246d) Konpresioak egitean toraxak 6 edo 7 zentimetro egin behar du behera, eta erritmo azkarrean egin behar dira: hau da, minutuko 50-60 konpresio.

**247 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Istripu kasuetan, barneko odoljario bat dagoela pentsa daiteke, baldin eta, traumatismo-aurrekaria kontuan hartuta, biktimak, besteak beste, sintoma hauek baditu:**

247a) Zurbiltasuna.
247b) Izerdi hotza.
247c) Muturreko ahultasuna.
247d) Gosea.

**248 Istripu kasuetan, arteria-odoljarioa izaten bada, lehenbailehen konprimatu behar da jarioa duen arteria. Baina nola jardun behar da?**

248a) Tornikete bat egingo zaio kasu guztietan.
248b) Etzan eta lasaitu egingo dugu zauritua; zauritutako gorputz-adarra jaso; zauriaren gainean konpresioa egin zuzenean, eta, beharrezkoa bada, zauriaren eta bihotzaren arteko arteria ere konprimatu; konpresio-bendaje bat jarri, eta osasun-zentrora eraman.
248c) Zauritua zutitu eta lasaitu egingo dugu; zauritutako gorputz-adarra jaso; zauriaren gainean konpresioa egin zuzenean, eta, beharrezkoa bada, zauriaren eta bihotzaren arteko arteria ere konprimatu; konpresio-bendaje bat jarri, eta osasun-zentrora eraman.
248d) Zauritua zutitu eta lasaitu egingo dugu; zauritutako gorputz-adarra jaso; konpresio-bendaje bat jarri, eta osasun-zentrora eraman.

**249 Istripu kasuetan, arteria-odoljarioa izaten bada, tornikete bat egitea...**

249a) Ez da ohiko metodoa, eta muturreko kasuetan soilik erabili behar da, hain muturrekoak ez diren metodoak eraginkorrak izan ez badira eta osasun-zentrora iristeak luze joko badu.
249b) Ohikoa izaten da, eta osasun-zentrora iristeak luze jotzen duen kasu guztietan erabiltzen da.
249c) Konpresio arina egiten duen bendaje bat da. Normalean zirkulu-formakoa da, eta arteriak zauriaren gainetik konprimatzen ditu, odoljarioa eteteko.
249d) Konpresio handia egiten duen bendaje bat da. Normalean zirkulu-formakoa da, eta zauria bera konprimatzen da, odoljarioa eteteko.

**250 Istripu kasuetan, zauritua shock-egoeran sartzen bada, zer egin behar da?**

250a) Jaten eta edaten emango diogu.
250b) Hoztu ez dadin saiatuko gara.
250c) Gorputz-adarrak beti horizontalean jarriko dizkiogu.
250d) Zutik jarriko dugu, bertikalean.

**251 Istripu kasuetan, erredurak izaten direnean, zer dira erredura larriak?**

251a) Eskuetan, toraxean, oinetan edo aurpegian egiten direnak.
251b) Eskuetan, oinetan, aurpegian, begietan edo toraxean egiten direnak.
251c) Eskuetan, oinetan, aurpegian, begietan edo sexu-organoetan egiten direnak.
251d) Eskuetan, oinetan, aurpegian, begietan, sexu-organoetan edo toraxean egiten direnak.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**252 Istripu kasuetan, zer egin behar da erredurak izanez gero?**

252a) Lotu egingo da erredura, gazak edo zapi garbiak erabiliz.
252b) Ahotik, jaten edo edaten eman.
252c) Pomadak, ukenduak edo hortzetako pasta eman erreduraren gainean.
252d) Larruazalari itsatsitako arropak askatu.

**253 Aukeratu erantzun OKERRA. Istripu kasuetan, zer egin behar da haustura bat izanez gero?**

253a) Beharrezkoa ez bada, ez dugu mugituko, nahi gabe bada ere min handiagoa eman diezaiokegulako, lesioak areagotu edo shock-egoera eragin.
253b) Haustura zuzentzen saiatu behar dugu: hots, hezurra berezko posiziora itzularazten.
253c) Haustura gorputz-adar batean badago, hausturaren eremua immobilizatzeaz gain, handik gora eta behera dauden artikulazioak finkatuko ditugu.
253d) Haustura immobilizatzeko «gidari» bat erabiliko dugu edo oholtxoak, ferulak edo makilak, bestela, zeinak aurrez oihal zatiez edo kotoiz inguratuko baititugu.

**254 Istripu kasuetan, zer egin behar da bizkarrezurreko haustura bat izanez gero?**

254a) Eseri egingo dugu biktima.
254b) Plano zurrun batean etzanda eduki behar da istripua izan duena, ahoz gora, buruak, enborrak eta gorputz-adarrek lerro zuzen bat osatzen dutela.
254c) Biktima lekuz aldatzerakoan, bizkarrezurra flexionatzea eragingo duten jarduketak egin daitezke.
254d) Plano bigun batean etzanda eduki behar da istripua izan duena, ahoz gora, buruak, enborrak eta gorputz-adarrek lerro zuzen bat osatzen dutela.

**255 Istripu kasuetan, zer egin behar da istripua izan duenak sinkope bat badu?**

255a) Bizi-funtzioak egiaztatutakoan, gaixoa etzanda eta zangoak gorantz dituela kokatuko dugu, eta odol-zirkulazioa oztopatzen dion guztia askatu edo lasaituko diogu.
255b) Bizi-funtzioak egiaztatutakoan, gaixoa zutik jarriko dugu, eta odol-zirkulazioa oztopatzen dion guztia askatu edo lasaituko diogu.
255c) Bizi-funtzioak egiaztatutakoan, gaixoa eserita jarriko dugu, eta odol-zirkulazioa oztopatzen dion guztia askatu edo lasaituko diogu.
255d) Bizi-funtzioak egiaztatutakoan, gaixoa eserita jarriko dugu, eta jatekoa eta edatekoa emango diogu.

**256 Istripu kasuetan, zer egin behar da biktimak epilepsia-krisi bat badu?**

256a) Biktimari eutsi egingo diogu muskulu-espasmoak dituen bitartean.
256b) Bolaluma edo antzeko objekturen bat sartuko diogu ahoan, mihiari hozkarik egin ez diezaion.
256c) Arropa estua lasaituko diogu.
256d) Ez diogu buru azpian ezer jarriko, kuxin gisa.

**257 Istripu kasuetan, zer egin behar da biktimari zerbait kontrako eztarrira joan zaiolako airebideen buxadura ez-osoa izaten badu?**

257a) Kolpetxoak emango dizkiogu bizkarrean.
257b) Buxadura duenaren atzean jarriko gara, eta gerritik inguratuko dugu bi besoez «Heimlich»-en maniobra egiteko.
257c) Esku bat, ukabila estututa eta erpurua barrurantz sartuta dugula, abdomenean jarriko diogu, zilborraren gainetik eta bularrezurraren eta saihets-hezurren azpitik; beste eskuarekin ukabilari helduko diogu, eta presioa egingo dugu, bat-batean, barrurantz eta gorantz aldi berean
257d) Eztul indarrez egin dezan esango diogu.

258 **Istripu kasuetan, zer egin behar dugu biktimari zerbait kontrako eztarrira joan zaiolako airebideen buxadura osoa izaten badu?**

258a) Eztul indarrez egin dezan esango diogu.
258b) Kolpetxoak emango dizkiogu bizkarrean.
258c) Esku bat, ukabila estututa eta erpurua barrurantz sartuta dugula, saihets-hezurren artean jarriko diogu. Beste eskuarekin ukabilari heldu eta presioa egingo dugu, bat-batean, barrurantz eta gorantz aldi berean.
258d) Esku bat, ukabila estututa eta erpurua barrurantz sartuta dugula, abdomenean jarriko diogu, zilborraren gainetik eta bularrezurretik eta saihets-hezurretatik urrun. Beste eskuarekin ukabilari heldu eta presioa egingo dugu, bat-batean, barrurantz eta gorantz aldi berean.

259 **Adierazi zein den erantzun OKERRA. Istripu kasuetan, zer egin behar da biktimak behetentsioko deskarga batek eragindako lesio bat izaten badu?**

259a) Beharrezkoa bada, bihotz-biriketako bizkortzeari ekingo diogu.
259b) Erredurak tratatuko ditugu.
259c) Hausturak eta lesio muskulueskeletikoak tratatuko ditugu.
259d) Osasun-zentrora eramango dugu, ondo jantzita eta bertikalean jarrita.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 14. gaia

**260 Noiz sortu zen Gobernu irekiaren kontzeptua?**

260a) 1970. urtearen amaieran, Ingalaterran.
260b) 2009ko urtarrilaren 21ean, Barack Obamak, Estatu Batuetako presidente zela, Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko Memoranduma promulgatu zuenean.
260c) 2011n, Gobernu Irekiaren Nazioarteko Aliantza sortu zenean.
260d) Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeak Gobernu Irekiari buruzko Gomendioa onetsi zuenean.

**261 Non jasotzen da administrazio ona izateko eskubidea?**

261a) Espainiako Konstituzioan onartzen da espresuki.
261b) Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikuluan.
261c) Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren 40. artikuluan onartzen da espresuki.
261d) Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 40. artikuluan.

**262 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Hauetatik zein da gobernu irekiaren printzipio informatzaileetako bat?**

262a) Gardentasuna, informazio publikorako irispidea eta kontuak ematea.
262b) Herritarren parte-hartzea eta elkarlana.
262c) Integritatea.
262d) Elkarreragingarritasuna.

263 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak...

263a) Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzekoak, oinarrizko izaeraz arautzen ditu informazioa argitaratzeko betebeharrak (publikotasun aktiboa) administrazio publiko guztientzat, erakunde autonomoentzat, estatu-agentzientzat, enpresa-erakunde publikoentzat eta zuzenbide publikoko erakunde guztientzat, betiere sektore edo jarduera jakin baten gaineko erregulazio- edo kontrol-funtzioak badituzte, eta izaera juridiko propioa duten zuzenbide publikoko erakundeentzat, direla edozein administrazio publikori lotutakoak edo haien mendekoak, barne direla unibertsitate publikoak.
263b) Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, oinarrizko izaeraz arautzen ditu informazioa argitaratzeko betebeharrak (publikotasun aktiboa) administrazio publiko guztientzat, erakunde autonomoentzat, estatu-agentzientzat, enpresa-erakunde publikoentzat eta zuzenbide publikoko erakunde guztientzat, betiere sektore edo jarduera jakin baten gaineko erregulazio- edo kontrol-funtzioak esleituta badituzte, eta izaera juridiko propioa duten zuzenbide publikoko erakundeentzat, direla edozein administrazio publikori lotutakoak edo haien mendekoak, barne direla unibertsitate publikoak.
263c) Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, izaera organikoz arautzen ditu informazioa argitaratzeko betebeharrak (publikotasun aktiboa) administrazio publiko guztientzat, erakunde autonomoentzat, estatu-agentzientzat, enpresa-erakunde publikoentzat eta zuzenbide publikoko erakunde guztientzat, betiere sektore edo jarduera jakin baten gaineko erregulazio- edo kontrol-funtzioak esleituta badituzte, eta izaera juridiko propioa duten zuzenbide publikoko erakundeentzat, direla edozein administrazio publikori lotutakoak edo haien mendekoak, barne direla unibertsitate publikoak
263d) Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzekoak, izaera organikoz arautzen ditu informazioa argitaratzeko betebeharrak (publikotasun aktiboa) administrazio publiko guztientzat, erakunde autonomoentzat, estatu-agentzientzat, enpresa-erakunde publikoentzat eta zuzenbide publikoko erakunde guztientzat, betiere sektore edo jarduera jakin baten gaineko erregulazio- edo kontrol-funtzioak badituzte, eta izaera juridiko propioa duten zuzenbide publikoko erakundeentzat, direla edozein administrazio publikori lotutakoak edo haien mendekoak, barne direla unibertsitate publikoak.

264 Nori EZ zaio aplikatzen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legea?

264a) Errege Etxeari, administrazio-zuzenbideari lotutako jarduerei dagokienez.
264b) Espainiako Bankuari, administrazio-zuzenbideari lotutako jarduerei dagokienez.
264c) Unibertsitate publikoei.
264d) Edozein eratako merkataritza-sozietateei.

265 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Nori aplikatzen zaizkio Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen I. tituluaren II. kapituluko publikotasun aktiboari buruzko xedapenak?

265a) Alderdi politikoei.
265b) Erakunde sindikalei.
265c) Enpresaburuen erakundeei.
265d) Administrazio publikoen dirulaguntzak jasotzen dituzten erakunde pribatu guztiei.

ISBN: 978-84-7777-667-3

266 Zer islatzen du kontuak ematea kontzeptuak?

266a) Zer filosofia dagoen antolakunde batek eragile ugariri eragiten dieten erabaki politikoak hartzearen inguruan erantzukizuna aitortzearen eta hartzearen eta gardena izatearen atzean.

266b) Zer filosofia dagoen administrazio-jarduera garatzeko ezinbestekoa den datu pertsonalen tratamenduari dagokionez erantzukizuna aitortzearen eta hartzearen atzean.

266c) Zer filosofia dagoen herritarrei eragiten dien informazioa publiko egiteko erantzukizuna aitortzearen eta hartzearen atzean.

266d) Zer filosofia dagoen nahitaez publiko izan behar duen informazioa argitaratu behar den gardentasun atariak sortzeko erantzukizuna aitortzearen eta hartzearen atzean.

267 Oro har, zer jasotzen dute gardentasun-atariek?

267a) Nahitaezko publikotasun aktiboko informazioa edo informazio garrantzitsua, gardentasunerako nazioarteko erakundeek eskatuta; datu irekien ataria; datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea egikaritzeko zerbitzua, eta herritarren partaidetzarako zerbitzuak.

267b) Nahitaezko publikotasun aktiboko informazioa edo informazio garrantzitsua, gardentasunerako nazioarteko erakundeek eskatuta; datu irekien ataria; informazio publikora irispidea izateko eskubidea baliatzeko zerbitzua, eta herritarren partaidetzarako zerbitzuak.

267c) Nahitaezko publikotasun aktiboko informazioa edo informazio garrantzitsua, gardentasunerako nazioarteko erakundeek eskatuta; datu irekien ataria; datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea egikaritzeko zerbitzua; informazio publikora irispidea izateko eskubidea baliatzeko zerbitzua, eta herritarren partaidetzarako zerbitzuak.

267d) Datu irekien ataria, datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea egikaritzeko zerbitzua, informazio publikora irispidea izateko eskubidea baliatzeko zerbitzua eta herritarren partaidetzarako zerbitzuak.

268 Zer lortu nahi da Open Data edo datu irekiekin?

268a) Datu-mota jakin batzuk libreki eskuragarri egotea jende guztiarentzat, egile-eskubideen, patente-eskubideen edo beste kontrol-mekanismo batzuen mugarik izan gabe; Open data herritarren datuei buruzkoa da, bereziki.

268b) Zenbait helburu lortu nahi ditu: balioa eta aberastasuna sortzea, gardentasuna, datuen babesa eta administrazioen arteko elkarreragingarritasuna.

268c) Datu-mota jakin batzuk libreki eskuragarri egotea jende guztiarentzat, egile-eskubideen, patente-eskubideen edo beste kontrol-mekanismo batzuen mugarik izan gabe; Open Data administrazio publikoen datuei buruzkoa da, bereziki.

268d) Zenbait helburu lortu nahi ditu: balioa eta aberastasuna sortzea, datuen babesa, administrazioen arteko elkarreragingarritasuna eta administrazioaren informazioaren barne-antolamendua.

269 Estatuko zer legek arautzen du sektore publikoko informazioa berrerabiltzea?

269a) 37/2007 Legeak; Sektore Publikoko Informazioa Berrerabiltzeari buruzko 2003/98/EE Zuzentarauaren transposizioa egiten du.

269b) 19/2013 Legeak; Sektore Publikoko Informazioa Berrerabiltzeari buruzko 2003/98/EE Zuzentarauaren transposizioa egiten du.

269c) 37/2007 Legeak; Sektore Publikoko Informazioa Berrerabiltzeari buruzko EB 2016/679 Erregelamenduaren transposizioa egiten du.

269d) 19/2013 Legeak; Sektore Publikoko Informazioa Berrerabiltzeari buruzko EB 2016/679 Erregelamenduaren transposizioa egiten du.

270 Zer legetan arautzen da informazio publikora irispidea izateko eskubidea?

270a) Estatuko 39/2015 Legean.
270b) Estatuko 37/2007 Legean.
270c) Estatuko 19/2013 Legean.
270d) Estatuko 3/2018 Legean.

271 Informazio publikora irispidea izateko eskubideaz baliatzea

271a) Doakoa izango da beti.
271b) Doakoa izango da. Hala ere, kopiak emateak edo informazioa jatorrizkotik beste formatu batera eramateak zerbait ordaindu beharra ekar dezake, Tasa eta Prezio Publikoen 8/1989 Legean ezarritako eran edo, hala badagokio, aplikatzekoa den tokiko araudian edo autonomikoan ezarritako eran.
271c) Ez da doakoa izango Tasa eta Prezio Publikoen 8/1989 Legean ezarritakoa betez edo, hala badagokio, aplikatzekoa den tokiko araudian edo autonomikoan ezarritakoa betez.
271d) Doakoa izango da beti, hala xedatzen baita Tasa eta Prezio Publikoen 8/1989 Legean edo, hala badagokio, aplikatzekoa den tokiko araudian edo autonomikoan.

272 Hauetako zeinek EZ du informazio publikora irispidea izateko eskubidea mugatzen?

272a) Segurtasun nazionalak.
272b) Segurtasun publikoak.
272c) Interes ekonomiko eta komertzialek.
272d) Ukitutako pertsonen ohorerako eskubideak.

273 Nolakoak izango dira informazio publikora irispidea izateko eskubidea baliatzeko mugak?

273a) Automatikoak izango dira, halaxe baitago jasota legean.
273b) Xedearen eta babes-helburuaren araberakoak izango dira mugak, eta kontuan hartuko da kasu jakin bakoitzaren egoera, bereziki, informaziorako irispidea izatea justifikatzen duen interes publiko edo pribatu handiagorik ote dagoen.
273c) Kontuan hartuko da kasu jakin bakoitzaren egoera; bereziki, interes partikularrak eta irispide-eskubidea erabiltzeak eragin diezaiekeen pertsonen eskubideak aldi berean gertatzen diren.
273d) Modu murriztailean aplikatuko dira, eta kasuz kasu, arrazoi bakarra baitago informazioa ukatzeko: ondasun babesturen bati kalte hipotetikoa eragitea.

274 Informazio publikora irispidea izateko eskubidea baliatzeaz; baieztapen hauetatik zein da zuzena?

274a) Eskatutako informazioak ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio edo bizimodu sexualaren berri ematen duten datu pertsonalak baditu, informazio hori eskuratzea baimendu ahalko da ukitutako pertsonaren berariazko baimen idatzia izanez gero, salbu eta pertsona horrek nabarmen eman baditu aditzera datuok beroiek eskuratzea eskatu baino lehen.
274b) Eskatutako informazioak arrazari, osasunari edo bizimodu sexualari buruzko datu pertsonalak baditu, informazio hori eskuratzea baimendu ahalko da ukitutako pertsonaren berariazko baimen idatzia izanez gero, salbu eta pertsona horrek nabarmen eman baditu aditzera datuok beroiek eskuratzea eskatu baino lehen.
274c) Eskatutako informazioak ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio edo sinesmenen berri ematen duten datu pertsonalak baditu, informazio hori eskuratzea baimendu ahalko da ukitutako pertsonaren berariazko baimen idatzia izanez gero, salbu eta pertsona horrek nabarmen eman baditu aditzera datuok beroiek eskuratzea eskatu baino lehen.
274d) Eskatutako informazioak ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio edo sinesmenen berri ematen duten datu pertsonalak baditu, informazio hori interesdunaren berariazko baimena izanda soilik eskuratuko da edo lege-mailako arauren baten babesa izanda.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**275 Informazio publikora irispidea izateko eskubidea baliatzeaz; baieztapen hauetatik zein da zuzena?**

275a) Informazioak arrazari, osasunari edo bizimodu sexualari buruzko datu pertsonalak baditu, edo datu genetiko edo biometrikoak, edo arau-hausleari ohartarazpen publikorik ez dakarkioten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da ukituaren berariazko adostasuna edukitzea edo lege-mailako arauren baten babesa izatea.

275b) Informazioak arrazari, ideologiari, osasunari edo bizimodu sexualari buruzko datu pertsonalak baditu, edo datu genetiko edo biometrikoak, edo arau-hausleari ohartarazpen publikorik ez dakarkioten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da ukituaren berariazko adostasuna edukitzea edo lege-mailako arauren baten babesa izatea.

275c) Informazioak ideologiari, sindikatu-afiliazioari, erlijio edo sinesmenei buruzko datu pertsonalak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da ukituaren berariazko adostasuna edukitzea edo lege-mailako arauren baten babesa izatea.

275d) Informazioak arrazari, osasunari edo bizimodu sexualari buruzko datu pertsonalak baditu, edo datu genetiko edo biometrikoak, edo arau-hausleari ohartarazpen publikorik ez dakarkioten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da ukituaren berariazko adostasuna idatzia izatea, salbu eta pertsona horrek nabarmen eman baditu aditzera datuok beroiek eskuratzea eskatu baino lehen.

**276 Informazio publikora irispidea izateko eskubidea baliatzerakoan, eskatutako informazioak bereziki babestutako daturik ez badu...**

276a) Arrazoituta neurtu beharko da zerk duen pisu handiagoa: informazioa ezagutaraztearen interes publikoak ala informazio publikoan agertzen diren datu pertsonalen jabe diren ukituen eskubideek, eta, bereziki, datu pertsonalak babestuak izateko duten oinarrizko eskubideak.

276b) Arrazoituta neurtu beharko da zerk duen pisu handiagoa: informazioa ezagutaraztearen interes publikoak ala informazio publikoan agertzen diren datu pertsonalen jabe diren ukituen eskubideek, eta, bereziki, ohorerako duen oinarrizko eskubideak.

276c) Arrazoituta neurtu beharko da zerk duen pisu handiagoa: informazioa eskatu zaionaren interes partikularrak ala eskatutako informazioan edo argitaratu beharrekoan agertzen diren datu pertsonalen jabe diren ukituen eskubideek, eta, bereziki, datu pertsonalak babestuak izateko duten oinarrizko eskubideak.

276d) Arrazoituta neurtu beharko da zerk duen pisu handiagoa: informazioa ezagutaraztearen interes publikoak ala informazio publikoan agertzen diren datu pertsonalen jabe diren ukituen eskubideak, eta, bereziki, ahaztua izateko eskubideak.

**277 Datu Pertsonalak Babesteari buruzko (EB) 2016/679 Erregelamendu Orokorraren 30. artikuluan arautzen den Tratamendu Jardueren Erregistroa dela eta:**

277a) Datuen babeserako ordezkari bat identifikatzeko betebeharraz ari da.

277b) 19/2013 Legeari lotuta dauden subjektuak behartuta daude Tratamendu Jardueren Erregistroa argitaratzera.

277c) Administrazioaren datu-baseetara irispidea izateko erregistro bat sortzeko betebeharraz ari da.

277d) Ez dago sortu beharrik administrazio publikoen kasuan.

**278 Informazio publikoa eskuratzearen arloko ebazpen espresu edo presuntziozkoaren aurka nori aurkeztu ahal izango zaio erreklamazioa?**

278a) Gardentasunaren eta Gobernantza Onaren Kontseiluari, soil-soilik.
278b) Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari edo autonomia-erkidegoetan horretarako sortutako berariazko organoari.
278c) Datuak Babesteko Espainiako Agentziari.
278d) Autonomia-erkidegoetako datuen babesterako agintaritzei.

**279 Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea baliatzean, noiz jar daiteke dagokion administrazio-organoak emandako ebazpenaren aurkako erreklamazioa Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren aurrean?**

279a) Bi hilabeteko epean, aurkaratutako egintza jakinarazi eta biharamunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
279b) Hiru hilabeteko epean, aurkaratutako egintza jakinarazi biharamunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
279c) Hilabeteko epean, aurkaratutako egintza jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita, edo eperik gabe, baldin eta administrazio-isiltasunaren bidez ukatzen bada.
279d) Bi hilabeteko epean, aurkaratutako egintza jakinarazten den egunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunetik kontatzen hasita.

**280 Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari inork erreklamazio bat jartzen badio, zer epe egongo da ebazteko eta ebazpena jakinarazteko?**

280a) Hiru hilabete gehienez; epe hori emaitzen denean, ezetsitzat joko da erreklamazioa.
280b) Hiru hilabete gehienez; epe hori emaitzen denean, onetsitzat joko da erreklamazioa.
280c) Hilabete gehienez; epe hori emaitzen denean, ezetsitzat joko da erreklamazioa
280d) Hilabete gehienez; epe hori emaitzen denean, onetsitzat joko da erreklamazioa.

**281 Herritarrek gai publikoetan parte hartzea dela eta, parte-hartzearen hiru dimentsio bereiz daitezke, balio publikoa sortzen dutenak. Zein dimentsioz ari gara?**

281a) Parte-hartze politikoa, zerbitzu publikoak diseinatzeko parte-hartzea eta parte-hartze korporatiboa.
281b) Parte-hartze politikoa, zerbitzu publikoak diseinatzeko parte-hartzea eta parte-hartze kolaboratiboa.
281c) Parte-hartze korporatiboa, zerbitzu publikoak diseinatzeko parte-hartzea eta parte-hartze kolaboratiboa.
281d) Parte-hartze politikoa, parte-hartze korporatiboa eta parte-hartze kolaboratiboa.

**282 Nola har dezakete parte herritarrek gai publikoetan?**

282a) Banaka, soilik.
282b) Kolektiboki, soilik.
282c) Hainbat interesen ordezkari diren taldeen edo herritarren erakundeen bitartez baino ez.
282d) Banaka nahiz kolektiboki.

**283 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Edonola ere, herritarrek parte hartzeko edozein prozesutan, zer oinarrizko printzipio betetzen direla zaindu beharko da?**

283a) Unibertsaltasuna.
283b) Egiazkotasuna.
283c) Gardentasuna.
283d) Segurtasuna eta elkarreragingarritasuna.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**284 Herritarrek parte har dezaten laguntzeko, antolaketa modu asko daude; hauetako zein dira modu horietako batzuk?**

284a) Kide anitzeko organo partizipatiboak eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaia.
284b) Herritarren erakundeak eta zenbait interesen ordezkari diren taldeak.
284c) Kide anitzeko organo partizipatiboak eta herritarren erakundeak edo zenbait interesen ordezkari diren taldeak.
284d) Herritarren erakundeak eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaia.

**285 Herritarren parte-hartzearen eremuan, zer dira integritate-sistemak?**

285a) Etika publikoaren eta gobernu onaren sistemak dira, eta hori sustatzen duten erakundeek konpromisoa hartzen dute alderdi bi hauek aplikatzeko: batetik, beren kargudunen eta enplegatu publikoen (edo antzekoen) jokabide-kodeak eta kode etikoak, eta, bestetik, ekintza-sare bat —bai ekintza administratiboak, parte-hartzekoak eta prestakuntzakoak, bai analitikoak eta ebaluatzaileak—, erakundeekiko eta sistema demokratikoarekiko konfiantza publikoa sendotzeko.
285b) Interes-taldeen edo zenbait interesen ordezkari diren taldeen erregistroak dira; talde horiek pertsona fisikoekin edo juridiko pribatuekin eta nortasun juridikorik gabeko antolakundeekin osatzen dira, eta administrazioen politika publikoak prestatzen eta aplikatzen aktiboki parte hartzeko jarduerak (zuzenekoak zein zeharkakoak) egiten dituzte, politika horien norabidean eragiteko, interes propioak, hirugarren batzuenak edo orokorrak defendatzeari begira.
285c) Kontsultarako eta parte hartzeko organo tradizionalak dira, eta erakunde publikoen ordezkariekin eta herritarren erakundeekin osatuta daude; kontseilu moduan eratzen dira formalki, kontsultarako eta parte-hartzeko funtzioak dituztela, eta lege-mailako arauen eta arau-xedapen orokorren bidez arautzen dira.
285d) Herritarren erakundeak edo zenbait interesen ordezkari diren taldeak dira. Pertsonen taldeak dira, eta, finantzaketa publikoarekin nahiz gabe, eratzen dira bizitza politikoan parte hartzeko eta beren proposamenak administrazio publikoei helarazteko, dituzten beharrak edo baztertuta dauden kolektiboen beharrak asetzeko, edo kulturaren, kirolaren... arloko interesak sustatzeko.

**286 Administrazio publikoen kalitatea eta efikazia balioesteaz ari garela, zein da zuzena?**

286a) Antolakunde batek kudeaketa-sistema eraginkorra duela esaten dugu bezeroek espero dutena gainditzen duenean eta emaitzak eta prozesuak etenik gabe hobetzen dituenean.
286b) Antolakunde batek kudeaketa-sistema eraginkorra duela esaten dugu etika publikoaren eta gobernu onaren sistema bat duenean, eta hori sustatzen duten erakundeek konpromisoa hartzen dutenean alderdi bi hauek aplikatzeko eta garatzeko: batetik, beren kargudunen eta enplegatu publikoen (edo antzekoen) jokabide-kodeak eta kode etikoak, eta, bestetik, ekintza-sare bat —bai ekintza administratiboak, parte-hartzekoak eta prestakuntzakoak, bai analitikoak eta ebaluatzaileak—, erakundeekiko eta sistema demokratikoarekiko konfiantza publikoa sendotzeko.
286c) Antolakunde batek integritate-sistema bat duela esaten dugu bezeroek espero dutena gainditzen duenean eta emaitzak eta prozesuak etenik gabe hobetzen dituenean.
286d) Antolakunde batek kudeaketa-sistema eraginkorra duela esaten dugu administrazioa digitalizatzeko prozesu bat gauzatzen duenean, prozesuak eta emaitzak hobetuz.

**287 Erreferentziako nazioarteko antolakunde bat da, 2011n sortua, helburu duena gobernu «irekiagoak, arduratsuagoak eta herritarrekiko hurbilagoak» sustatzeko tresnak ebaluatzea eta garatzea. Zer erakunde da?**

287a) Nazioarteko Gardentasuna.
287b) Pro Acceso Koalizioa.
287c) Gobernu Irekirako Aliantza.
287d) Datuak Babesteko Europako Lantaldea.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 15. gaia

**288 Zer dira informazio-laguntzako dokumentuak?**

288a) Lengoaia natural edo konbentzionaleko adierazpen oro eta beste edozein adierazpen grafiko, soinuzkoa edo irudizkoa, edozein euskarri materialetan jasoak, baita euskarri informatikoetan ere.
288b) Erregistratutako informazio oro, haren forma eta ezaugarriak edozein izanik ere, erakunde, entitate edo norbanako batek bere egitekoak burutzean jasoa, sortua edo gordea.
288c) Administrazio-kudeaketan laguntzeko, administrazioak informazioa lortzeko soilik erabiltzen dituen dokumentuen multzoa (inprimakiak, administrazio-dokumentuen fotokopiak, arauzko xedapenen fotokopiak, liburuxkak eta abar). Hortaz, dokumentazio hori ez da espedienteetan sartuko, ezta artxiboetan mantenduko ere.
288d) Modu elektronikoan dagoen edozein eratako informazioa; euskarri elektronikoan artxibatuta dago, formatu jakin batean, eta identifikatu egin daiteke eta tratamendu berezitua izan dezake.

**289 Zer da dokumentu elektronikoa?**

289a) Modu elektronikoan dagoen edozein eratako informazioa; euskarri elektronikoan artxibatuta dago, formatu jakin batean, eta identifikatu egin daiteke eta tratamendu berezitua izan dezake.
289b) Administrazio-objektu digitala, informazioa (datuak) eta informazio horri lotutako datuak (sinadura eta metadatuak) dituena.
289c) Lengoaia natural edo konbentzionaleko adierazpen oro eta beste edozein adierazpen grafiko, soinuzkoa edo irudizkoa, edozein euskarri materialetan jasoak, baita euskarri informatikoetan ere.
289d) Erregistratutako informazio oro, haren forma eta ezaugarriak edozein izanik ere, erakunde, entitate edo norbanako batek bere egitekoak burutzean jasoa, sortua edo gordea.

**290 Baliozkotzat jotzeko, zer baldintza bete behar dituzte administrazio-dokumentu elektronikoek?**

290a) Eman diren unearen denbora-erreferentzia bat izatea.
290b) Sartu behar diren espedienteari dagokion zenbakia jartzea.
290c) Erabili den sinadura elektronikoaren sistemari dagokion erreferentzia jartzea.
290d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

ISBN: 978-84-7777-667-3

291 Adierazi zein den erantzun OKERRA. Dokumentu elektroniko baten osagaiak dira:

291a) Edukia, dokumentuko datu- edo informazio-multzo gisa ulertuta.
291b) Dokumentu elektronikoen metadatuak.
291c) Hala badagokio, sinadura elektronikoa.
291d) Informazio-laguntzarako dokumentuak.

292 Administrazio-espedientea dela eta, zein da zuzen?

292a) Izapideak egiteko beharrezkoa den dokumentazioa eta informazio-laguntzarako agiriak eduki behar ditu.
292b) Administrazio-ebazpen baten aurrekari eta oinarri diren dokumentuen eta egintzen multzo ordenatua da, bai eta ebazpen hori betearazteko eginbideak ere.
292c) Jatorrizko dokumentuak izango ditu.
292d) Paperezko formatua izango du.

293 Sailkapen-taula dela eta, zein da zuzena?

293a) Dokumentu-sail bakoitzarentzat artxibo-maila bakoitzean izan behar duen iraupena, kontserbatzeko epea eta eskuragarritasun-maila ezartzen dituen tresna da.
293b) EAEko administrazio publikoan, sail, erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko edo sozietate publiko bakoitzeko antolaketaz eta artxiboaz arduratzen diren langileek egiten dute.
293c) Administrazio-ebazpen baten aurrekari eta oinarri diren dokumentuen eta egintzen multzo ordenatua da, bai eta ebazpen hori betearazteko eginbideak ere.
293d) Edozein artxibo-sistema kudeatzeko tresna da. Dokumentu-funtsaren antolaketa islatzen du eta haren egiturari buruzko funtsezko datuak ematen ditu.

294 Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren artxibo-sistemaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko 174/2003 Dekretua...

294a) Ez zaio Eusko Jaurlaritzari aplikatzen.
294b) Datuak Babesteko Espainiako Agentziari aplikatzen zaio.
294c) Ez zaio EITBri aplikatzen.
294d) Emakunderi aplikatzen zaio.

295 EAEko Administrazio Publikoaren artxibo-sistema kudeatzeko zer aplikazio informatiko erabiltzen da?

295a) AKS/SGA.
295b) CAU.
295c) EJIE.
295d) GAUR.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 16. gaia

**296 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, zer jasotzen du abiapuntutzat zioen azalpenean?**

296a) Izapidetze elektronikoa administrazio-prozedurak kudeatzeko modu berezi bat da.
296b) Izapidetze elektronikoa ezin da izan prozedurak kudeatzeko modu berezi bat, baizik eta administrazioen ohiko jarduera izan behar da.
296c) Izapidetze elektronikoa betebehar bat da herritarrentzat administrazio publikoekin harremanak izateko.
296d) Izapidetze elektronikoa eskubide bat da administrazioentzat, administrazio-prozedurak kudeatzeko.

**297 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.1 artikuluaren eta Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duen 203/2021 Errege Dekretuaren 37.2 artikuluaren arabera,**

297a) Administrazio publiko bakoitzak erregistro elektroniko orokor bat izango du.
297b) Administrazio publiko bakoitzak erregistro elektroniko orokor bat izan dezake.
297c) Administrazio publikoek erregistro elektroniko orokor bat izan dezakete.
297d) Administrazio publikoek erregistro elektroniko orokor bat dute.

**298 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluak xedatzen duenaren arabera...**

298a) Erregistro elektronikoak beste erregistro batzuekin guztiz uztartzeko modukoa izan behar du.
298b) Erregistro elektronikoa sortzen duen araua dagokion administrazioaren webgunean argitaratu behar da.
298c) Erregistro elektroniko orokorrak atari baten moduan funtzionatuko du, eta organismo edo entitate bakoitzaren erregistro elektronikoetarako irispidea erraztuko du.
298d) Erregistro elektronikoak sortzeko xedapenek haien kudeaketaren ardura zer organok edo unitatek duen zehaztu dezakete, bai eta data eta ordu ofiziala zein den, eta egun baliogabeak zein diren ere.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**299 Behartuta egon gabe ere administrazioarekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatea hautatzen duen pertsona fisikoak, gerora iritziz aldatu eta erabakitzen badu ez duela harremana elektronikoki izan nahi...**

299a) Iritziz aldatu duela adierazteko nahikoa izango da administrazioarekin lehenengo eragiketa papera erabilita egitea.
299b) Jakinarazi egin behar dio izapidetzeko eskumena duen organoari iritziz aldatu duela, erabakia jasota gera dadin, eta komunikazio horrek berehalako ondorioak izango ditu.
299c) Jakinarazi egin behar dio izapidetzeko eskumena duen organoari iritziz aldatu duela, erabakia jasota gera dadin, eta komunikazio horrek prozedura izapidetzeko eskumena duen organoak horren berri izan eta hurrengo bosgarren egun baliodunetik aurrera izango ditu ondorioak.
299d) Jakinarazi egin behar dio izapidetzeko eskumena duen organoari iritziz aldatu duela, erabakia jasota gera dadin, eta komunikazio horrek prozedura izapidetzeko eskumena duen organoak horren berri izan eta hurrengo bosgarren egun naturaletik aurrera izango ditu ondorioak.

**300 Nola definitzen da Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duen 203/2021 Errege Dekretuaren 2. artikuluan elkarreragingarritasunaren printzipioa?**

300a) Informazio-sistemek eta sistema horiek euskarri ematen dieten prozedurek datuak partekatzeko eta elkarren artean informazioa trukatzeko duten gaitasuna.
300b) Zerbitzu elektronikoak diseinatu, sortu, mantendu eta eguneratzeko errespetatu behar diren printzipio eta tekniken multzoa, erabiltzaileei, bereziki desgaitasuna duten pertsonei eta adinekoei irispidea ematerakoan berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko.
300c) Administrazio publikoen gaitasuna, zerbitzuaren azken erabiltzailearengandik lortutako ezagutza abiaburu hartuta, zerbitzu aurrekumplimentatuak eman eta erabiltzaileen beharrei aurrea hartzeko.
300d) Oinarrizko printzipioen eta gutxieneko segurtasun-baldintzen multzoa, dokumentuak biltegiratzen diren bitarteko eta euskarriei segurtasun-neurri egokiak aplikatzeko, sistemen kategorizazioaren arabera.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 17. gaia

301 Zer da administrazio-espedientea?

301a) Dokumentu eta jarduketen multzo ordenatu bat da, jarraitutako prozedura adierazten duena eta administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena, eta hura betearazteko eginbideak ere jasotzen dituena.
301b) Administrazioaren eta administratuaren arteko harremana zuzentzen duen arau-multzoa da.
301c) Autonomia-erkidego bakoitzeko erregistro zibilean gordetzen diren agirien eta karpeten multzoa da.
301d) Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 89. artikuluan adierazten diren dokumentuak dira.

302 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea indarrean sartu zenetik...

302a) Espediente fisikoa eta elektronikoa, biak erabiltzen dira, txandaka.
302b) Espediente elektronikoa da dagoen bakarra.
302c) Espediente elektronikoa zehapen-arloan soilik da nahitaezkoa.
302d) Ebazpenak eta behin betiko egintzak soilik digitalizatzen dira, ez izapide-egintzak.

303 Zer da NISAE?

303a) Ziurtagiri elektronikoak eman eta kudeatzeaz arduratzen den enpresa publiko-pribatua.
303b) Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren izen berria.
303c) Espediente elektronikoak digitalizatzeko udal-sistema.
303d) EAEko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoa.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**304 Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 27.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zein hartuko dira administrazio-dokumentu publiko edo dokumentu pribatu original baten edo beste kopia autentiko baten kopia autentikotzat?**

304a) Administrazio-organo batek prozedura baten barruan emandakoak bakarrik, sekula ez partikularrek aurkeztutako dokumentuak.

304b) Estatuko Administrazioaren fitxategi elektronikoetan aldez aurretik sartutako espedienteetatik datozen dokumentuak.

304c) Edozein euskarritan eginda daudela ere, administrazio publikoetako organo eskudunek egindakoak, bermaturik geratzen bada kopia egin duen organoaren identitatea eta dokumentuaren edukia.

304d) Prozedura ebazteko eskumena duten organoek egindakoak.

**305 Interesdunak dokumentu batzuk paperean aurkeztu, baina edozein arrazoiengatik ezin bazaizkio aurkeztu dituen unean itzuli, dokumentazioa digitalizatu, eta zer egingo da?**

305a) Berehala itzuliko zaizkio titularrari.

305b) Gorde egingo zaizkio, gutxienez, sei hilabetean, jaso ditzan.

305c) Suntsitu egingo dira berehala, Kultura eta Kirol Ministerioaren edo autonomia-erkidegoko organo eskudunaren eskumenen arabera.

305d) Gorde egingo dira balio historikoa, artistikoa edo beste balio garrantzitsu bat duten dokumentu gisa, edo sinadurak edo eskuzko beste adierazpide edo adierazpide mekaniko batzuek dokumentuari balio berezi bat ematen dioten dokumentu gisa.

**306 Zer da administrazio bakoitzaren erregistro elektroniko orokor bakarra?**

306a) Behin prozedura administratiboak edo dagozkien jarduketak amaitu direnean dokumentu eta espediente elektronikoen eta beste dokumentu multzo edo informazio batzuen kudeaketa, kontserbazioa eta berreskuratzea ahalbidetzen duten sistemen eta zerbitzuen multzoa.

306b) Eragiketa logaritmiko-informatiko bat aplikatu ostean lortzen den produktua; administrazio hori identifikatzeko zenbakizko kode bat da emaitza.

306c) 2015a baino lehenagoko espedienteak kontsultatzeko, administrazioetako funtzionario guztientzat eskuragarri dagoen datu-basea.

306d) Dokumentu bakarra duen espedientea, zeina eskumena duen organoak digitalizatu baitu edo legitimatutako alderdietako batek aurkeztu.

**307 Zer da informazio lagungarria edo osagarria?**

307a) Administrazio-espedientearen parte izango da, baldin eta oharrak, zirriborroak, iritziak edo nahitaezkoak ez diren laburpenak badira.

307b) Sinadura elektronikoa behar duen informazioa da, jatorria eta noiz eta non eman diren jakiteko.

307c) Aplikazio, fitxategi eta datu-base informatikoetako informazioa, oharrak, zirriborroak, iritziak, laburpenak, komunikazioak eta barne nahiz administrazio-organo edo entitateen arteko txostenak, eta, orobat, administrazio publikoek emandako balio-judizioak, non eta ez diren prozedurari amaiera ematen dion administrazio-ebazpena baino lehen eskatutako nahitaezko eta aukerako txostenak.

307d) Prozedurari amaiera ematen dion administrazio-ebazpena baino lehen eskatutako nahitaezko eta aukerako txostenak dira.

308 Zer <u>ez</u> da NISAE?

308a) Euskal sektore publikoko administrazio eta entitate guztietarako plataforma komuna da, eta nodo autonomiko gisa eratu da, haien artean eta gainerako administrazioekin (Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoak) datu elektronikoak trukatzeko, sinergiak batuz.
308b) EAEko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoa da.
308c) Erakundeen arteko datu-trukerako, banatutako kudeaketa-ereduaren inguruan egituratzen den irtenbide komuna da.
308d) Estatuko Administrazioan Segurtasuna Informatizatzeari buruzko Araua da.

309 Zer alde dago ziurtagirien —zentsu hertsian ziurtagiri esaten zaienen— eta kopia ziurtatuen artean?

309a) Ziurtagiria agentzia esleipendunak bakarrik ematen du; kopia ziurtatua, berriz, edozein langile publikok eman dezake, horretarako ezarritako prozeduraren bidez.
309b) Ziurtagirien kasuan, dokumentu bat sortzen da, non ziurtagiria egin nahi zaion dokumentuaren eduki osoa edo zati bat kopiatzen edo transkribatzen baita; kopia ziurtatuen kasuan, berriz, dokumentuaren kopia bat egiten da, eta horren gainean ziurtapen-eginbide bat jartzen da.
309c) Ziurtagiriak dokumentu juridikoak dira, eta kopia ziurtatuak, berriz, ez du froga-baliorik izaten, dagokion notario-zigilua ez badauka.
309d) Ziurtagiriak espediente elektronikoaren parte dira, eta kopia ziurtatuak, berriz, nahitaezko txostenetan jaso gabeko egitate juridikoei buruzkoak direnean baino ez dira erantsiko.

310 Zer da kopia autentikoa?

310a) Kopia autentikoa dokumentu bat da, horretarako gaitasuna eta eskumena duen antolakunde batek emana, dokumentatzen dituen egitateei edo egintzei buruz legez tasatutako kasuetara mugatutako froga-balioa duena eta jatorrizko dokumentuaren baliorik ez duena.
310b) Kopia autentikoa dokumentu berri bat da; administrazio bakoitzaren Erregistro Zentraleko zuzendaritza-organoak bakarrik ematen du, eta dokumentatzen dituen egitateei edo egintzei buruzko froga-balio osoa du.
310c) Kopia autentikoa dokumentu berri bat da, horretarako gaitasuna eta eskumena duen antolakunde batek emana, dokumentatzen dituen egitateei edo egintzei buruzko froga-balio osoa duena, eta jatorrizko dokumentuaren balio bera duena zentzu guztietan.
310d) Jatorrizko agirira zuzentzen duen dokumentua da, espediente jakin bat ebazteko erabakigarriak diren egitate eta egintzak soilik ziurtatzeko.

311 «Kopia autentiko» bat emateko:

311a) Eginbide bat behar da nahitaez, non adierazi behar baita egindako dokumentua jatorrizkoaren kopia dela «kopia autentikoa da» formula erabilita.
311b) Nahikoa da zigilu digital instituzionala edo funtzionario publikoaren sinadura digitala.
311c) Nahikoa da Administrazioaren esku dagoen dokumentu baten fotokopia bat egitea, inolako idatzoharrik gabe.
311d) Eginbide bat behar da nahitaez, non adierazi behar baita egindako dokumentua jatorrizkoaren kopia dela «kopia autentikoa da» formula erabilita, bai eta zigilu digital instituzionala edo funtzionario publikoaren sinadura digitala ere.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 18. gaia

**312 Zein dira elektronikoki sinatutako dokumentu baten identitateari buruzko bermeak?**

312a) Identitatea, osotasuna edo integritatea, egiazkotasuna, errebokaezintasuna eta konfidentzialtasuna.
312b) Identitatea, osotasuna edo integritatea, autentikotasuna, errebokagarritasuna eta publizitatea.
312c) Identitatea, osotasuna edo integritatea, publizitatea, errebokaezintasuna eta konfidentzialtasuna.
312d) Identitatea, elkarreragingarritasuna, publizitatea eta errebokagarritasuna.

**313 Europako zer arauk bermatzen du sinadura elektroniko kualifikatuaren eta eskuz idatzitako sinaduraren arteko baliokidetasun juridikoa?**

313a) 910/2014 (EB) Erregelamenduak.
313b) 910/2014 (EB) Zuzentarauak.
313c) 910/2014 (EB) Dekretuak.
313d) Europako Batzordearen 910/2014 Legeak.

**314 Zer dira Zerga Agentzia, Izenpe eta Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusia?**

314a) Estatuko ziurtapen-agentzia bakarrak, zeinak Presidentetzako Ministerioan erregistratuta baitaude.
314b) Ziurtagiria emateko enpresa esleipendunak, baina ez dute sinadurak baliozkoak diren egiaztatzeko eskumenik.
314c) Estatuko ziurtapen-agintaritza batzuk, zeinak Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioan erregistratuta baitaude.
314d) Ziurtapen-agentzien zaintza-eginkizuna baino ez duten agintaritzak.

**315 Zer alde dago ziurtagiri digital baten «gako pribatu» eta «gako publikoaren» artean?**

315a) Gako pribatuak ziurtagiria sinatzeko eta zifratzeko balio du, eta publikoak, berriz, ziurtagiria egiaztatzeko eta deszifratzeko.
315b) Gako pribatuak ziurtagiria deszifratzen du, eta publikoak, berriz, sinatzeko aukera ematen du.
315c) Gako pribatua ziurtagirian bertan egoten da, eta publikoa, berriz, isilpean.
315d) Gako pribatuak sinatzeko baino ez du balio, eta publikoak, berriz, sinatzeko eta deszifratzeko aukera ematen du aldi berean.

**316 Izenpek egiten dituen ziurtagiriak direla eta, zein da zuzena?**

316a) Administrazio zentralak emandako benetakotasun-ziurtagiria badute bakarrik izango dira baliozkoak.
316b) Administrazio- eta lege-balio osoa dute, indarrean dauden bitartean.
316c) Administrazio- eta lege-balio osoa dute Eusko Jaurlaritzarekin eta foru-aldundiekin lotutako prozeduretan, indarrean dauden bitartean.
316d) Administrazio- eta lege-balio osoa dute urtebeterako, eta indarraldia beste bi aldiz luza daiteke.

**317 Hauetako zein izan daitezke ziurtapen-agintaritza?**

317a) Bakarrik Estatuko Administrazio zentralari lotuta dauden erakunde publikoak.
317b) Bakarrik merkataritza-helburuak dituzten pertsona juridikoak.
317c) Bakarrik eskumena duen organismo ofizialak behar bezala egiaztatu dituen pertsona fisiko edo juridikoak.
317d) Bakarrik Estatutako Administrazio zentralari lotutako erakunde publiko eta pribatuak.

**318 Nork eska dezake Izenperen «herritarren ziurtagiria»?**

318a) 18 urtetik gorako pertsona fisikoak eskatu behar du bere izenean, zerbitzu publikoekin lotura duten gaietan erabiltzeko.
318b) 16 urtetik gorako pertsona juridiko pribatuak eskatu behar du bere izenean, zerbitzu pribatuekin lotura duten gaietan erabiltzeko.
318c) 16 urtetik gorako pertsona fisikoak eskatu behar du bere izenean, zerbitzu publikoekin lotura duten gaietan erabiltzeko.
318d) Pertsona fisikoak eskatu behar du, adina edozein dela ere, bere izenean, zerbitzu publikoekin lotura duten gaietan erabiltzeko.

**319 Zer egin daiteke ziurtagiri elektronikoen bidez?**

319a) Mezuak sinatu, ez segurtasun handiegiarekin, ziurtapen-agentziak erabat ziurrak ez direlako.
319b) Ziurtagiria egiteko gaitasuna duen pertsonaren kargua ezkutatu.
319c) Ziurtagiria eskatu eta gakoaren jabe den pertsona identifikatu, eta, hala badagokio, baita kide den antolakundea ere.
319d) Pertsonaren kargua ezkutatu, segurtasunez eta anonimoki sinatu ahal izateko.

**320 Sinadura elektroniko aurreratua dela eta, zein da erantzun zuzena?**

320a) Aukera ematen du sinatu aurretik datuetan egiten den zernahi aldaketa detektatzeko, eta hori desabantaila da dokumentuaren edukia babesteko.
320b) Aukera ematen du sinatu ondoren datuetan egiten den zernahi aldaketa detektatzeko, eta hori sekulako abantaila da dokumentuaren edukia babesteko.
320c) Guztiz segurua da, kopiatu eta erraz erreproduzitu baitaiteke, nahiz eta zailtasun batzuk izan.
320d) Faktura telematikoetan edo hiritarrek erabiltzea onartuko da, baita erakunde publikoek erabiltzea ere segurtasun eta pribatutasun osoa eskatzen duten kudeaketetan.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 19. gaia

**321 Hezkuntzaren arloko eskumena...**

321a) Espainiako Konstituzioaren 148.1.30 artikuluan arautzen da.
321b) Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak elkarrekin partekaturiko eskumena da.
321c) Estatuaren eskumen esklusiboa da, Espainiako Konstituzioaren 149.1.30 artikuluaren arabera.
321d) EAEren eskumen esklusiboa da, Espainiako Konstituzioaren 149.1.30 artikuluaren arabera.

**322 Legediaren arabera, nola emango da hezkuntzaren zerbitzu publikoa?**

322a) Ikastetxe publikoen bidez bakarrik.
322b) Ikastetxe publikoen eta itunpeko nahiz itundu gabeko ikastetxe pribatuen bidez.
322c) Itunpeko ikastetxeen bidez bakarrik.
322d) Ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen bidez.

**323 Udalei hezkuntza-administrazioarekin lankidetzan jardutea dagokie,**

323a) 2025erako hezkuntza eta prestakuntza dela eta, Europan ezarritako ildo estrategikoak biltzeko.
323b) Ikastetxe publikoak sortzeko, eraikitzeko eta haien mantentze-lanak egiteko, baita derrigorrezko eskolaldia betetzen dela ziurtatzeko ere.
323c) Ikastetxe pribatuak sortzeko, eraikitzeko eta haien mantentze-lana egiteko bakarrik, bai eta derrigorrezko eskolatzea betetzen dela ziurtatzeko ere.
323d) Irakaskuntzaren programazio orokorra ezartzeko, herritarren hezkuntza-beharrak asetzera bideraturiko plangintza-neurrien bidez.

324 Zer zeregin du Unibertsitatez kanpoko Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI)?

324a) Besteak beste, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetarako edo berariazko eremuetarako ebaluazio-sistemak eta -adierazleak prestatzea, eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko ikerketak eta azterlanak egitea.
324b) Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak edo berariazko eremuetarako ebaluazio-sistemak eta -adierazleak prestatzea soilik; horretaz gain, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko ikerketak eta azterlanak egiten ditu.
324c) 2011n sortu zen, ikastetxeei irakaskuntza planifikatzen laguntzeko.
324d) Hezkuntzaren arloko prospekzio soziologikoa egiten duen enpresa pribatua da.

325 Non eskaintzen dira A, B eta D hizkuntza-ereduak?

325a) Haur Hezkuntzan eta Oinarriko Hezkuntzan (Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak hartzen ditu) eta derrigorrezkoaren ondoko ikasketetan.
325b) Haur Hezkuntzan eta Oinarriko Hezkuntzan (Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak hartzen ditu).
325c) Derrigorrezkoaren ondoko ikasketetan soilik.
325d) Lehen Hezkuntzan soilik.

326 Zer da Eskola Kontseilua?

326a) Eskola-komunitateko kideek Eusko Jaurlaritzan parte hartzeko organoa.
326b) Eskola-komunitateko kideek EAEko eskola publikoko ikastetxeen gidaritzan parte hartzeko araututa daukaten organoa.
326c) Euskal eskola publikoko ikastetxeen ikuskaritza-organoa.
326d) Eskola-komunitateko kideek EAEko eskola publikoko ikastetxeen gidaritzan parte hartzeko araututa daukaten organoa, ikastetxeko zuzendaritzaren mendekoa.

327 Nola aukeratzen da ikastetxeko zuzendaria?

327a) Merezimendu-lehiaketa bat egiten da irakasleen artean, karrerako funtzionario izan edo ez, betiere ikastetxeari esleitutako irakasgairen bat ematen dutenen artean.
327b) Berdintasun-, pribatutasun-, merezimendu-printzipioen eta ikastetxean duten antzinatasunaren arabera egiten da.
327c) Pribatutasun-, merezimendu-, berdintasun-printzipioen eta ikastetxean duten antzinatasunaren arabera egiten da.
327d) Merezimendu-lehiaketa bat egiten da karrerako funtzionario diren irakasleen artean, betiere ikastetxeari esleitutako irakasgairen bat ematen dutenen artean.

328 Irakasleen klaustroa dela eta, zein da zuzena?

328a) Kide anitzeko organoa da, eta Eskola Kontseiluak aukeratutako presidentea du buru.
328b) Ikastetxean lan egiten duten irakasle guztiek eta gurasoen batzarrak osatzen dute.
328c) Ikastetxean lan egiten duten irakasle guztiek osatzen dute.
328d) Ikastetxean lan egiten duten karrerako funtzionario diren irakasle guztiek osatzen dute.

329 Nork izendatzen du ikasketaburua?

329a) Hezkuntza-administrazioak (Eusko Jaurlaritzak), ikastetxeko zuzendariaren proposamena entzun ondoren.
329b) Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak, hezkuntza-administrazioak proposatuta (Gobernu zentrala).
329c) Ikastetxeko irakasleen eta guraso-batzarraren artetik aukeratzen da ikasketaburua, zuzendariak proposatuta eta zuzendariaren agintaldi bererako.
329d) Izendapena Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren agintaldi bererako egiten da.

ISBN: 978-84-7777-667-3

330 Idazkaritza akademikoaren eginkizunak direla eta, zein da zuzena?

330a) Gurasoen Batzarraren bileren gai-zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea du eginkizun.
330b) Aktak, espedienteak eta gainerako dokumentazioa zaintzera mugatzen da.
330c) Ordezkaritza Organo Gorenaren bileretako buru izatea du eginkizun.
330d) Hezkuntza Sailak, ikastetxeko zuzendariak proposatuta, izendatutako organo baten bidez betetzen dira idazkaritza akademikoaren eginkizunak.

331 Zer arauk erregulatzen ditu euskal administrazio publikoetako irakasleen kidegoak?

331a) Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 4/2013 Lege Organikoak.
331b) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak (uztailaren 6ko 6/1989 Legea).
331c) Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 12/2006 Lege Organikoak.
331d) 30/2020 Lege Organikoak, abenduaren 29koak, 2/2006 Legea aldatzen duenak.

332 Zein dira bitarteko irakasle funtzionarioak?

332a) Izendapena dela medio eta presazko arrazoiak direla eta, plantillako lanpostu hutsak aldi baterako betetzen dituztenak, karrerako irakasle funtzionarioek betetzen ez dituzten bitartean, edo, bestela, karrerako irakasle funtzionarioen ordezko jarduten dutenak haiek aldi batez falta direnean.
332b) Izendapena dela medio eta presazko arrazoiak direla eta, karrerako irakasle funtzionarioak bakarrik ordezten dituztenak haiek modu iraunkorrean falta direnean.
332c) Karrerako irakasle funtzionarioek utzitako lanpostu hutsak betetzen dituztenak modu iraunkorrean.
332d) Izendapena dela medio eta presazko arrazoiak direla eta, plantillako lanpostu hutsak aldi baterako betetzen dituztenak, karrerako irakasle funtzionarioek betetzen ez dituzten bitartean, edo, bestela, karrerako irakasle funtzionarioen ordezko jarduten dutenak haiek modu iraunkorrean falta direnean.

333 Zein dira Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen kidegoak?

333a) Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren Kidegoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa.
333b) Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa.
333c) Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren Kidegoa (maisu-titulua izan behar dute eta dagokion hautaketa-prozesua gainditu) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa.
333d) Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren Kidegoa (maisu-titulua izan behar dute eta dagokion hautaketa-prozesua gainditu).

334 Zer sistemaren bidez hautatzen dira karrerako irakasle funtzionarioak?

334a) Oposizioz, 5 urtean behin.
334b) Bitarteko langileen arteko lehiaketa bidez.
334c) Lan-kontratudun langileen lan-poltsen sistemaren bidez.
334d) Deialdi publikoa egin eta lehiaketa-oposizioaren sistemaren bidez.

335 Zer zehazten du irakasleen hizkuntza-eskakizunak?

335a) 3. hizkuntza-eskakizuna duela zehazten du (gaztelaniazko irakaskuntza).
335b) Lanpostua hornitzeko eta betetzeko behar den gaztelania-maila adierazten du.
335c) Lanpostua hornitzeko eta betetzeko behar den euskara-maila adierazten du.
335d) 3. hizkuntza-eskakizuna duela zehazten du (ingelesezko irakaskuntza).

**336 Zer da Heziberri 2020?**

336a) Hezkuntza Sailaren plan bat da, eta EAEko hezkuntza-sistema hobetzea du xede.
336b) Hezkuntza Sailaren Balantze Plana eta Euskadin COVID-19aren pandemiaren bilakaerari emango zaion erantzun komunitarioaren aurreikuspena.
336c) Kultura Sailaren plan bat da, eta EAEko hezkuntza-sistema hobetzea du xede.
336d) Hezkuntza Ministerioaren plan bat da, eta EAEko hezkuntza-sistema hobetzea du xede.

**337 Zer egiteko ditu EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak eta Administrazioko Zerbitzu Ikuskaritzak?**

337a) Bere autonomia pedagogikoaren esparruan dauden ikastetxeetako proiektu eta programei buruzko txostena egiten du, bai eta programa eta proiektu horien jarraipena eta ikuskapena ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Ministerioaren erabakiaren ondoren.
337b) Hezkuntza-arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela kontrolatzera mugatzen da, eta ikastetxeen funtzionamendu-baldintzak eta hezkuntza-sistemaren oinarrizko helburuak betetzeko laguntza-sistema zaintzen ditu.
337c) Hezkuntza-araubidea betetzen dela kontrolatzea, eta ikastetxeen nahiz haiei laguntza emateko sistemen funtzionamendu-baldintzak zaintzea, hezkuntza-sistemaren oinarrizko helburuak bete ditzaten, besteak beste.
337d) Eskola Kontseiluko kideen kopuru totala eta banaketa ezartzen ditu (Euskal Eskola Publikoaren Legeak ezartzen dituen mugen barruan).

**338 Zer aitortzen du Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak 2. artikuluan?**

338a) Sortze-, ikuskatze- eta kudeaketa-autonomia.
338b) Antolaketa-, ikuskatze-, kontratazio- eta kudeaketa-autonomia.
338c) Antolaketa-, pedagogia- eta kudeaketa-autonomia.
338d) Sortze-, etete- eta kudeaketa-autonomia.

**339 Abenduaren 29ko 3/2020 Lege berrian, nola finkatzen dira hizkuntza koofiziala duten autonomia erkidegoetan gutxieneko irakaskuntzak?**

339a) Estatuak finkatzen du curriculumeko konpetentzien % 45, eta autonomia-erkidegoek gainerako % 55a.
339b) Estatuak finkatzen du curriculumeko konpetentzien % 40, eta autonomia-erkidegoek gainerako % 60a.
339c) Estatuak finkatzen du curriculumeko konpetentzien % 50, eta autonomia-erkidegoek gainerako % 50a.
339d) Estatuak finkatzen du curriculumeko konpetentzien % 60, eta autonomia-erkidegoek gainerako % 40a.

**340 Itunpeko ikastetxe pribatuek zer baldintza bete behar dute?**

340a) Ordainpeko irakaskuntzak eman behar dituzte, eta zeregin horretarako esleipena duen enpresak bermatu beharreko eskolatze-premiak ase.
340b) Doako irakaskuntza onartuak eman behar dituzte, eta administrazioak bermatu beharreko eskolatze-premiak ase.
340c) Erlijio-irakaskuntza onartua eman behar dute, eta Eliza Katolikoak bermatu behar dituen eskolatze-premiak ase.
340d) Doako irakaskuntza onartuak eman behar dituzte, eta zeregin horretarako esleipena duen enpresak bermatu beharreko eskolatze-premiak ase.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 20. gaia

**341 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea dela eta, zein da erantzun zuzena?**

341a) Ezabatu egiten ditu, alde batetik, edozein pertsonari dagozkion eskubideak administrazio publikoarekin harremanak izate hutsagatik, alde batera utzita prozedura baten parte diren edo izan nahi duten, eta, bestetik, administrazio-prozedura baten esparruan parte hartzen dutenei soilik dagozkien eskubideak, eta, beraz, interesduntzat jotzen direnei dagozkienak.
341b) Parekatu egiten ditu, alde batetik, edozein pertsonari dagozkion eskubideak administrazio publikoarekin harremanak izate hutsagatik, alde batera utzita prozedura baten parte diren edo izan nahi duten, eta, bestetik, administrazio-prozedura baten esparruan parte hartzen dutenei soilik dagozkien eskubideak, eta, beraz, interesduntzat jotzen direnei dagozkienak.
341c) Bereizi egiten ditu, alde batetik, edozein pertsonari dagozkion eskubideak administrazio publikoarekin harremanak izate hutsagatik, alde batera utzita prozedura baten parte diren edo izan nahi duten, eta, bestetik, administrazio-prozedura baten esparruan parte hartzen dutenei soilik dagozkien eskubideak, eta, beraz, interesduntzat jotzen direnei dagozkienak.
341d) Aurreko aukera guztiak okerrak dira.

**342 Hauetatik, nork ez du administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasunik?**

342a) Arau zibilen arabera jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko edo juridikoek.
342b) Adingabeek beren eskubideez baliatzeko eta interesen alde egiteko, ordenamendu juridikoaren arabera hori guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duen pertsona gabe egin dezaketen kasuetan. Salbuespen da adingabe ezgaituen kasua, ezintasunaren neurria eragozpen denean kasuan kasuko eskubideez baliatzeko edo interesen alde egiteko.
342c) Legeak espresuki hala adierazten duenean, ukituen taldeek, nortasun juridikorik gabeko batasun eta entitateek, eta ondare independente edo autonomoek.
342d) Arau zibilen arabera jarduteko gaitasunik ez duten pertsona fisiko edo juridikoek.

**343 Hauetako zein ez da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluan aitortzen den eskubidea, pertsona kondizioa izanik administrazio publikoekin harremanetan jartzen direnei aitortzen zaiena?**

343a) Administrazio publikoekin komunikatzea administrazioaren irispide-puntu nagusi elektroniko orokor baten bitartez.
343b) Norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzea, lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.
343c) Prozeduraren edozein alditan, betiere entzunaldiaren izapidea egin aurretik, alegazioak aurkeztu, ordenamendu juridikoak onartzen dituen defentsa-bideak erabili eta agiriak aurkeztea; organo eskudunak ebazpen-proposamena idaztean kontuan hartu beharrekoak, denak ere.
343d) Baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzea administrazio publikoekiko harremanetan.

**344 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 39. artikuluaren arabera, zer da interneteko ataria?**

344a) Finantzaketa publikoa jasotzen duen edozein atari.
344b) Interneteko ataria da irispide-puntu elektroniko bat, administrazio publiko baten, erakunde publiko baten edo zuzenbide publikoko entitate baten titulartasunekoa, Interneten bidez irispidea ematen duena argitaratutako informaziora eta, hala denean, dagokion egoitza elektronikora.
344c) Toki-administrazio bati soilik dagokion irispide-puntu elektronikoa.
344d) Nazioarteko erakundeek argitaratutako informazioa Internet bidez eskuratzea ahalbidetzen duen irispide-puntua.

**345 Zer da BEE?**

345a) Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua.
345b) Baliabide elektrikoak garatzeko eta administratzeko erregelamendua.
345c) Baliabide Estatalen Erregulazioa.
345d) Sektore pribatuak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua.

**346 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluaren arabera, nori ez zaio ezartzen administrazioarekin nahitaez harremana elektronikoki izateko betebeharra?**

346a) Pertsona juridikoei.
346b) Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkariei.
346c) Diharduten lanbidean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenei, jarduera hori dela-eta administrazio publikoekin egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako.
346d) Pertsona fisikoei; izan ere, aukeran izango dute bitarteko elektronikoen bidez aritzea administrazioarekin ala ez. Eta aukera izango dute, era berean, komunikatzeko aukeratutako modua gerora aldatzeko ere.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**347 Zer xedatzen da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. eta 15. artikuluetan?**

347a) Autonomia-erkidego batean egoitza duen Estatuko Administrazio Orokorreko organoetara jotzen duten interesdunek autonomia-erkidego horretan koofiziala den hizkuntza ere erabil dezakete.
347b) Autonomia-erkidego batean egoitza duen Estatuko Administrazio Orokorreko organoetara jotzen duten interesdunek autonomia-erkidego horretan koofiziala den hizkuntza erabil behar dute nahitaez.
347c) Autonomia-erkidego batean egoitza duen Estatuko Administrazio Orokorreko organoetara jotzen duten interesdunek gaztelania erabili beharko dute nahitaez.
347d) Autonomia-erkidego batean egoitza duen Estatuko Administrazio Orokorreko organoetara jotzen duten interesdunek Estatu osoko hizkuntza ofiziala erabili beharko dute nahitaez.

**348 Zer gertatzen da prozedura bateko interesdunek hizkuntza ofizial desberdinak erabiltzen badituzte?**

348a) Prozedura osoa haiek aukeratutako bi hizkuntzetako bakoitzean izapidetuko da.
348b) Gaztelaniaz izapidetuko da prozedura, baina haiek aukeratutako hizkuntzan emango zaizkie interesdunei behar dituzten dokumentu edo lekukotasunak.
348c) Gaztelaniaz soilik izapidetuko da prozedura.
348d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

**349 Zer gertatzen da hizkuntza koofizial batean idatzita egon eta autonomia-erkidegoko lurraldetik kanpo ondorioak izan behar dituzten edo interesdunek espresuki eskatuta haiei zuzendutako dokumentu, espediente edo horien atalekin?**

349a) Ez dute balio juridikorik izango.
349b) Administrazio publiko instrukzio-egileak gaztelaniara itzuli beharko ditu.
349c) Interesdunak gaztelaniara itzuli beharko ditu.
349d) Lurraldetik kanpoko administrazio publiko hartzaileak gaztelaniara itzuli beharko ditu.

**350 Zer ez du xedatzen Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6. artikuluak?**

350a) Herritar guztiei aitortzen zaie, Autonomia Erkidegoaren lurraldean, herri-administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartuak izatekoa.
350b) Neurri egokiak hartuko dira eta beharrezko baliabideak bideratuko eskubide hori (euskara zein gaztelania erabiltzekoa) arian-arian gauzatu dadin bermatzeko.
350c) Pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duten espediente edo prozeduretan, Estatuko hizkuntza ofiziala erabiliko dute nahitaez botere publikoek.
350d) Pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duten espediente edo prozeduretan, parte hartzen duten alderdiek elkarren artean erabakitzen duten hizkuntza erabiliko dute botere publikoek.

**351 Espainiako Konstituzioaren 105.b artikuluak herritarrek administrazioko artxiboetara eta erregistroetara jotzeko duten eskubideari zenbait muga jartzen dizkio; hauetako zein ez da muga horietako bat?**

351a) Estatuaren segurtasuna eta defentsa.
351b) Delituen ikerketa.
351c) Prentsa-askatasuna.
351d) Pertsonen bizitza pribatua.

**352 Zein ez da Gardentasunari buruzko 19/2013 Legean aipatzen den eremu mugatu bat?**

352a) Prozesu judizialetako aldeen berdintasuna eta benetako babes judiziala.
352b) Ebazpen judizialak.
352c) Sekretu profesionala eta jabetza intelektuala eta industriala.
352d) Erabakiak hartzeko prozesuetarako beharrezko den konfidentzialtasunaren edo sekretuaren bermea.

**353 Informazio publikorako eskubidea baliatu daiteke aurrez aurre?**

353a) Ez, gardentasunaren atariaren bidez baliatu daiteke, soilik.
353b) Ez, debekatuta dago espresuki Gardentasunari buruzko Legean.
353c) Eskaera elektronikoarekin batera, soilik.
353d) Bai, badago informazio publikorako eskubidea aurrez aurre baliatzeko aukera.

**354 Zer egin dezaket informaziorako irispidea ukatzen badidate?**

354a) Legeak xedatzen du Herriaren Defendatzaileak aztertuko duela datuetara irispidea izateko eskubidea urratu den ala ez.
354b) Erreklamazioa jarri beharko da aurrez Datuak Babesteko Agentzian.
354c) 19/2013 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako aurretiazko erreklamazioa jarri daiteke dagokion kontrol-organoan; administrazio-errekurtsoaren ordezkoa izango da erreklamazio hori.
354d) 15/2013 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezingo da jarri dagokion kontrol-organoan.

**355 Baieztapen hauetatik zein ez da zuzena? Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak (uztailaren 6ko 6/1989) diziplina-araubide berezi bat ezartzen du,**

355a) eta arau-hauste arin gisa zehatzen du publikoarekiko, nagusiekiko, lankideekiko edo mendekoekiko tratu desegokia (85.c artikulua).
355b) eta arau-hauste arintzat jotzen du arraza, sexu, erlijio, hizkuntza, iritzi, jaioterri edo bizilekuagatik edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik diskriminazioa eragiten duen ezein jarduera (83.b artikulua).
355c) eta arau-hauste oso astuntzat jotzen du arraza, sexu, erlijio, hizkuntza, iritzi, jaioterri edo bizilekuagatik edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik diskriminazioa eragiten duen ezein jarduera (83.b artikulua).
355d) eta arau-hauste astuntzat jotzen du administratuekiko adeitasun-falta astuna izatea (84.b artikulua).

**356 Hauetako zein ez da ponderazio-irizpide gisa erabiltzen administrazio-erantzukizuna eskatzeko orduan?**

356a) Eragindako kaltea.
356b) Erruduntasun-maila.
356c) Administrazioaren ondare-kaudimena.
356d) Administrazioaren zerbitzura dauden langileen erantzukizun profesionala eta kaltea eragitearekin haiek duten zerikusia.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**357 Baieztapen hauetatik zein ez da zuzena?**

357a) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen du herritarrek eskubidea dutela arreta elektronikoki jasotzeko eta beren interesak bide horretatik izapidetzeko, eta harreman juridiko hori elektronikoki eratu ahal izateko beharrezko diren tresna gehigarri batzuk ezartzen ditu.
357b) BEEk interesdunen identifikazio- eta sinadura-araubidea osatu du, eta, horretarako, ziurtagiri elektronikoen gutxieneko ezaugarriak garatu ditu, interesdunak administrazio publikoen aurrean identifikatzeko erabiltzen direnean (27. artikulua), bai eta gako itunduaren sistemak eta interesdunak identifikatzeko beste sistema batzuk (28. artikulua), eta administrazio publikoek onartutako interesdunen sinadura elektronikoko sistemak eta erabilera-araubidea (29. artikulua) ere.
357c) Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritako moduan, NAN elektronikoa ez da ziurtagiri elektroniko berezi bat, eta ez du balio titularraren nortasuna elektronikoki frogatzeko.
357d) Sinadura elektronikoari dagokionez, euskarri elektroniko batean aurkeztutako datuen multzoa da, beste batzuekin batera edo haiekin lotuta kontsignatua, eta sinatzailea identifikatzeko erabil daiteke, bai eta, hala badagokio, hura jasotzen duen eta dagokion sinadura txertaturik daukan dokumentua identifikatzeko ere.

**358 Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, pertsona fisikoak babestuta egotea oinarrizko eskubide bat da; baina Espainiako Konstituzioaren zer artikulutan xedatzen da?**

358a) Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluan.
358b) Espainiako Konstituzioaren 19.4. artikuluan.
358c) Espainiako Konstituzioaren 18.4. artikuluan.
358d) Espainiako Konstituzioaren 17.4. artikuluan.

**359 Espainiako estatuan, zein jotzen da datuak babesteko eskubidea behar bezala interpretatzeko beharrezko arautzat?**

359a) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa, bakarrik.
359b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
359c) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa soilik.
359d) Arau horietako bat ere ez.

**360 Administrazioarekin harreman elektronikoak izatera behartuta ez dagoen interesdun batek administrazio-prozeduran bere burua identifikatzeko edo elektronikoki sinatzeko behar diren bitarteko elektronikoak ez baditu...**

360a) Funtzionario publiko gaituek egin ahal izango dituzte, balio osoz, horretarako duten sinadura elektronikoko sistema erabiliz.
360b) Ezingo dituzte funtzionario publiko gaituek egin, balio osoz, nahiz eta sinadura elektronikoko sistema bat eduki.
360c) Funtzionario publiko gaituek egin ahal izango dituzte, balio osoz, horretarako duten sinadura elektronikoko sistema erabiliz, baina interesdunak ez du bere burua identifikatu beharko funtzionarioaren aurrean.
360d) Funtzionario publikoek ezin dituzte balio osoz egin, horretarako duten sinadura elektronikoaren sistema erabiliz.

# 21. gaia

**361 Norantz doa administrazio publikoaren eta herritarren arteko harreman-eredua?**

361a) Herritarren partaidetza, lankidetza eta protagonismo handiagoko baina erantzukizun gutxiagoko eredu baterantz.
361b) Herritarren desakordio, gatazka eta protagonismo handiagoko eta erantzukizun gehiagoko eredu baterantz.
361c) Herritarren partaidetza, lankidetza eta protagonismo handiagoko eredu baterantz.
361d) Herritarren partaidetza, lehia eta protagonismo handiagoko baina erantzukizun gutxiagoko eredu baterantz.

**362 Zein ez da administrazio elektronikoaren funtzio bat?**

362a) Aurrez aurreko jardunaren ordezko bat eskaintzea.
362b) Administrazio-prozeduraren legedian aurreikusitako gehieneko administrazio-epeak laburtzea.
362c) Autozerbitzuaren kontzeptua erraztea eta balio erantsi txikiko prozesuak automatizatzea, bide horretatik modu egoki eta eraginkorrean konpon baitaitezke prozesu horiek.
362d) Harremanetarako bide nagusi gisa kontaktu elektronikoa erabiltzen duten pertsonen kolektiboekin konektatzea.

**363 Zer ez da «administrazioko informazio orokorra» (administrazioko informazio partikularraren aldean)?**

363a) Administrazio-erakunde eta -unitateen identifikazio, helburu, eskumen, egitura, funtzionamendu eta lokalizazioarekin zerikusia duen informazio administratibo oro.
363b) Herritarrek egin nahi dituzten proiektu, jarduketa edo eskaerei xedapenek ezartzen dizkieten betekizun juridiko edo teknikoei buruzko informazioa.
363c) Prozeduren izapidetzeari, zerbitzu publikoei eta prestazioei buruzko informazioa, bai eta haiek ezagutu behar dituzten beste edozein daturi buruzkoa ere, administrazio publikoekin, oro har, edo horien jarduketa eremuren batekin dituzten harremanetan.
363d) Izapidetzen ari diren prozedurei eta haiekin lotutako elementu eta agenteei buruzko informazioa, pertsona fisikoen intimitateari edo pribatutasunari eragiten dioten datu pertsonalak baditu.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**364 Hauetatik zein ez dira herritarrenganako arretaren funtzioak?**

364a) Orientazioa eta informazioa ematea herritarrei, haiek egin nahi dituzten proiektu, jarduketa edo eskaeretarako prozedurei, izapideei, betekizunei eta dokumentazioari buruz.
364b) Atzerapenengatik, arreta ezagatik edo administrazio-bulegoen funtzionamenduan ikusten duten beste edozein jardun irregularrengatik herritarrek aurkezten dituzten kexak eta erreklamazioak jasotzea.
364c) Herritarrek edo enplegatu publikoek egindako ekimenak edo iradokizunak jasotzea, zerbitzuen kalitatea hobetzeko, errendimendua edo gastu publikoaren aurrezpena handitzeko, izapideak sinplifikatzeko edo beharrezkoak ez direnak ezabatzeko, edota administrazioarekiko harremanetan gizartearen gogobetetze-maila handiagoa dakarren beste edozein neurri hartzeko.
364d) Administrazioaren ondare-erantzukizuneko erreklamazioen ondoriozko administrazio-espedienteak ebaztea.

**365 Hauetatik zein ez da herritarrarenganako arretaren harrera-fasean lehenespenak ezartzeko arau bat?**

365a) Bezeroak lehentasuna du edozein elkarrizketa pribaturen aurretik.
365b) Bezeroak lehentasuna du gure lankideen aurretik (lana).
365c) Bi bezerok zerbitzua aldi berean eskatzen dutenean, lehenengo iritsi denak du lehentasuna (telefonokoa barne).
365d) Bi bezerok zerbitzua aldi berean eskatzen dutenean, ez zaio kasurik egin behar bigarren iritsi denari, hasitako harremanarekin nola jarraitu antolatzeko, edo itxaron dezala eskatu behar zaio.

**366 Informazio-funtzioen eta herritarrenganako arretaren barruan, zer ez da egin behar?**

366a) Zehaztu, galdera espezifikoak eginez eta alderdi nahasiak argitu.
366b) Jardun, behar bezala eta azkar, dagokion sailari kontsultatuta, beharrezkoa denean.
366c) Herritarrak jakin behar ez dituen datuak eskaini, eta hizkuntza ez-zuzena erabili.
366d) Ziurtatu, herritarrari egindakoaren berri emanez, eta hurrengo urratsak zein diren azalduz, halakorik balego.

**367 Otsailaren 9ko 208/1996 Errege Dekretuaren 10. artikuluaren arabera, zer behar da edozein administraziotako informazio- eta arreta-bulegoetatik beste edozein administrazioren informazio administratiboa eskaini ahal izatea erabakitzeko, informazioa trukatzeko beharrezkoak diren komunikazio-mekanismoak antolatuz eta informazio-bulego integratuak sortuz hainbat administrazio publikoren parte-hartzearekin?**

367a) Hainbat administrazio publikok sinatutako errege-dekretu berri bat.
367b) Hainbat administrazio publikok sinatutako lankidetza-hitzarmena.
367c) Hainbat administrazio publikok sinatutako erregelamendu komunitario bat.
367d) Hainbat administrazio publikok sinatutako legegintzako dekretu bat.

**368 Idatzizko komunikazioaren eta ahozko komunikazioaren arteko aldeak aztertzen ditugunean, zer eduki behar dugu kontuan idatzizko komunikazioari buruz?**

368a) Ahozkoa baino gutxiago landu behar dela.
368b) Berehala desagertzen dela.
368c) Hartzaileak interpretazioak egin ditzakeela.
368d) Ahoz transmititzen dela.

369 **Zein printzipio <u>ez</u> dator bat 40/2015 Legearen 3. artikuluan adierazitakoekin?**

369a) Errentagarritasuna, interes partikularra eta komertzializazioa.
369b) Administrazio-prozeduren eta kudeaketako jarduera materialen arrazionalizazioa eta bizkortasuna.
369c) Sinpletasuna, argitasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna.
369d) Administrazio-jarduketan parte-hartzea, eta administrazio-jarduketa hori objektiboa eta gardena izatea.

370 **Zer <u>ez</u> dira herritarrei arreta emateko bulegoak?**

370a) Administrazioak herritarrekin zuzeneko harremana izateko erabiltzen dituen bulego edo espazio fisikoak, prestazioei, zerbitzuei eta prozedurei buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza emateko.
370b) Administrazioak herritarrekin zuzeneko harremana izateko erabiltzen dituen bulego edo espazio fisikoak, dokumentazioa, eskaerak eta komunikazioak jasotzeko.
370c) Interesdunak pertsonalki agertzeko bulego edo espazio pribatuak.
370d) Administrazioak herritarrekin zuzeneko harremana izateko erabiltzen dituen bulego edo espazio fisikoak, Administrazioaren eskumenekin edo zerbitzuekin zuzenean lotutako kudeaketak egiteko.

371 **Zerbitzuaren kalitatea neurtzeko tresna, zeinaren bidez dagokion administrazioaren zerbitzuei buruzko informazioa ematen baitzaie herritarrei, zerbitzu horiei lotutako eskubideei dagokien informazioa eta kalitate-konpromisoak barne. Zer tresnaz ari gara?**

371a) PLATEA.
371b) Zerbitzu-kartak.
371c) Administrazio-espediente elektronikoa.
371d) Erreklamazio-orriak.

372 **Kexei eta erreklamazioei erantzuteari dagokionez, baieztapen hauetatik zein <u>ez</u> da zuzena?**

372a) Pertsonak arrazoirik ez duenean, azalpen objektiboak eta zehatzak eman behar zaizkio.
372b) Pertsonak arrazoia duenean, arazoa berehala eta profesionaltasunez konpondu behar da, eta barkamena eskatu behar zaio erakundearen izenean.
372c) Pertsonak arrazoia izanez gero, kritikatu egin beharko dira beste langileak, herritarra bera edo beste administrazio batzuk.
372d) Ez da komeni aitzakiatzat eta jarrera mugiezintzat har daitezkeen justifikazioetan sartzea.

373 **Kexei eta erreklamazioei erantzuteari dagokionez, baieztapen hauetatik zein <u>ez</u> da zuzena?**

373a) «Tiro automatikoa»-ri ekin behar zaio.
373b) Galdera irekiak egin behar dira egoera argitzeko.
373c) Egoera konpontzeko prozedurak adostu behar dira.
373d) Bezeroak eskubidea du kexatzeko edo erreklamatzeko.

374 **Baieztapen hauetatik zein <u>ez</u> dago kexa eta erreklamazioak kudeatzeko printzipio garrantzitsuen artean?**

374a) Akatsak onartzea oso ondo dago; deskalifikazioak onartzea irudi txar bat «saltzea» da.
374b) Arrazoia eman behar zaio beti bezeroari administrazioaren politikari edo kudeaketari prestigioa kenduz.
374c) Beste pertsonari probokazioa eragin diezaiokeen hizkera oro saihestea. Ez izan tematia, saihestu hizkuntza probokatzaile oro.
374d) Labur erantzun behar zaio bezeroari, eskatutakoak baino azalpen gehiago eman gabe; izan ere, gehiegizko informazioak gatazka-egoera berriak eragin ditzake, erantzun luzeetan emandako informazioak aprobetxatzen direlako.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**375 Hona hemen herritarren arretarako bulegoetarako irisgarritasuna bermatzea helburu duten zenbait neurri edo gomendio, baina zein ez da irisgarritasuna bermatzeko neurri edo gomendio bat?**

375a) Bide publikoaren mailan dagoen solairuan kokatuko dira bulegoak, edo, bestela, sartzeko arrapalak edo igogailuak izan beharko ditu, desgaitasuna duten pertsonek modu autonomoan eta seguruan erabili ahal izateko.
375b) Bulegoak kanpotik behar bezala seinaleztatuta egon behar du, erraz identifikatzeko moduan.
375c) Bulegoko sarbideak eta bide publikoa, erantsitako zerbitzuak edo eraikinak eta aparkalekuak lotzen dituzten ibilbideetako batek, gutxienez, irisgarria izan beharko du, hiri-ibilbide irisgarri baterako ezarritako baldintzen arabera.
375d) Herritarren arretarako bulegoek, aparkaleku-plazarik izanez gero, bertako funtzionarioentzat bakarrik diren eta behar bezala seinaleztatuta dauden plaza kopuru nahikoa gordeko dute, eta bermatuko dute plazen eta bulegoaren beraren artean ibilbide irisgarriak daudela.

**376 Herritarren arretarako bulegoen irisgarritasuna dela eta, zein da erantzun okerra?**

376a) Haize-babeseko ateak badaude, dagoen espazioa erabiltzaile guztiei maniobratzeko, hurbiltzeko eta ateak irekitzeko aukera emateko modukoa izan behar da.
376b) Kanpoko eta barruko espazioen arteko zoruak jarraitua izan behar du, eta lurzoruko elementu guztiak (ura biltzeko kanaletak, lanpasak etab.) zoladurarekin berdinduta egongo dira.
376c) Sarrera nagusiaren ondoan, ahal dela atearen eskuinaldean, kartel batean, atariaren zenbakia eta letra adieraziko dira horrela badagokio, baita erabilera ere, interes orokorreko eraikinen kasuan.
376d) Ateak kristalezkoak edo beirazkoak direnean, inpaktuagatiko hausturak saihesteko moduan babestuko dira, eta seinaleztatu egingo dira 5 zentimetroko zabalera eta gainazalarekin kontraste kromatikoa duten bi banda horizontalekin, eta honela kokatuko dira: lehenengoa 20 eta 25 zentimetro arteko altueran, eta, bigarrena,30 eta 35 zentimetro artekoan.

**377 Herritarren arretarako bulegoen irisgarritasuna dela eta, zein da erantzun zuzena?**

377a) Sarbidea kontrolatzeko sistemak oztopo izango dira ibiltzeko arazoak dituzten pertsonen edo gurpil-aulkien erabiltzaileen zirkulaziorako, bai eta mugikortasunari laguntzeko beste gailu batzuk erabiltzen dituzten pertsonen zirkulaziorako ere, hala nola txakur gidariak, laguntza-txakurrak edo mugitzeko makilak.
377b) Segurtasun-sistemak edo sarbidea kontrolatzeko sistemak gurpil-aulkian doazen pertsonei pasatzen uzteko adinako neurririk ez duenean, kontrol hori igarotzeko bestelako neurri edo bitartekoak aurreikusiko dira, pertsonak bere laguntza teknikoarekin jarrai dezan.
377c) Segurtasun-sistemek behar ez bezala seinaleztatuta egon behar dute, eta argibide zehaztugabeak eman behar dituzte kasu partikularretan zer egin behar den azaltzeko, hala nola gurpil-aulkiak, entzumen-protesiak edo taupada-markagailuak eramanez gero.
377d) Harrera-ataria erabiltzaileei orientazioa zailtzeko moduan antolatuko da. Horretarako, eraikinaren eremu eta erabileretara, komunikazio bertikaleko guneetara eta eraikineko sarrera eta irteeretara iristea zailtzeko seinale bisualak eta ukimenezkoak jarriko dira.

**378 Herritarrei arreta emateko postuak konfiguratzerakoan, gomendio hauetatik zein ez da kontuan hartu beharko?**

378a) Neurgailu kromatikoak, banda fotosentikorrak dituzten karteletako informazioa helarazteko.
378b) Mostradoreen eta informazio-puntuen ondo-ondoan dagoen zirkulazio-espazioak oztoporik gabe egon behar du, eta gurpil-aulkien erabiltzaileak haietara hurbildu ahal izateko behar adinako maniobra-espazioa izan behar du.
378c) Mostradoreen eta informazio-puntuen altuerak egokia izan behar du erabiltzaile mota guztiei harrera egiteko.
378d) Mostradoreek eta arreta-puntuek indukzio magnetikoko begizta-sistemak izan beharko dituzte, behar bezala seinaleztatuta, entzumen-protesien erabiltzaileek ahalik eta entzumen eta ulermen onena izan dezaten.

**379 Erraz irakurtzeko informazioa sortzeko Europako jarraibideen arabera, zein ez da dokumentuak idazteko ematen den gomendio nagusi bat?**

379a) Hizkuntza sinplea eta zuzena erabiltzea.
379b) Esaldi bakoitzean ideia bakar bat adieraztea.
379c) Teknizismoen, laburduren, inizialen eta abarren erabilera sustatzea.
379d) Testua argi eta koherentziaz egituratzea.

**380 Zerekin lotzen da kulturartekotasuna?**

380a) Gizarte asimilazionistekin.
380b) Gizarte segregazionistekin.
380c) Gizarte anitz eta pluralekin.
380d) Gizarte anitz eta integristekin.

**381 Zer ez du esan nahi kulturen arteko aniztasunak?**

381a) Kultura-desberdintasunak administrazioan zerbitzua ematen duen pertsonarengandik hura jasotzen duen pertsonarengana soilik gertatzen direla.
381b) Bi aldeek desberdintzat jotzen dutela beste pertsona.
381c) Administrazio publikoek (zerbitzua ematen duten pertsonek) kontuan hartu behar dutela gaiak nola integratu behar diren komunikazioa erraz gauzatzeko, bi alderdiek elkar uler dezaten eta beharrizanen gainean jardun ahal izan dadin.
381d) Kultura-desberdintasunak bi norabidetan gertatzen direla, hau da, administrazioan zerbitzua ematen duen pertsonarengandik hura jasotzen duen pertsonarenganantz, eta alderantziz.

**382 Kultura neutroez eta kultura emozionalez ari garela, baieztapen hauetatik zein da okerra?**

382a) Kultura neutroetan emozioek arrazoibidea, argudioak eta une jakin batean hartu beharreko erabaki posibleak errazten dituztela uste da.
382b) Kultura neutroetan emozioek arrazoibidea, argudioak eta une jakin batean hartu beharreko erabaki posibleak okertzen dituztela uste da.
382c) Kultura emozionaleko pertsona bati ematen zaion zerbitzuak haserreak, ahots-bolumen altua, desadostasunak eta abar izan ditzake, eta tentsioa sor dezake.
382d) Kultura neutroko pertsona bati emandako zerbitzuak esan nahi du, kasu gehienetan, ez dagoela informaziorik egoera zer neurritan ulertzen ari den jakiteko.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**383 Printzipio hauetatik zein ez dator bat kulturarteko arretarekin?**

383a) Beste alderdia eta haren desberdintasunak eta ezaugarriak errespetatzea eta ezagutzea.
383b) Berezitasunak eta beharrak ulertzea.
383c) Elkarrizketaren eta harremanen aldeko jarrera eta borondatea izatea, konponbideak edo irtenbide-aukerak eskaini ahal izateko.
383d) Pertsonen autonomia mugatzea.

**384 Zein dokumentu juridiko-politiko ez da kulturarteko integrazioaren eremukoa?**

384a) Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak estatu kideei kulturarteko integrazioari buruz emandako 2015eko urtarrilaren 21eko Gomendioa.
384b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa.
384c) Cities Kulturarteko Programa.
384d) Legez besteko proposamena, zeinaren bidez Gobernuari udalen artean aniztasuna kudeatzeko politikak garatzeko kulturarteko ikuspegia erabil dezatela bultzatzeko eskatzen baitzaio.

**385 Irisgarritasuna dela eta, hauetako zein <u>ez</u> dagokio Administrazioaren jardunbide egoki bati?**

385a) Aukera-berdintasuna, desgaitasunagatiko diskriminaziorik eza eta irisgarritasun unibertsala bermatzea.
385b) Desgaitasuna duten herritarrek Administrazioarekiko harremanetan izan ditzaketen desabantailak konpentsatzeko ekintza positiboa.
385c) Desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasuna urratzen duen edozein arau, irizpide, jarraibide, jarduera, praktika edo erabaki promulgatzea.
385d) Neurriak hartzea eta, hala badagokio, giza baliabide eta laguntza material osagarriak jartzea desgaitasuna duten herritarren eskura, dagozkien eskubideak erregulartasunez eta normaltasunez baliatu ahal izateko.

**386 Informazio osagarriko sistemen konfigurazioan, zein gomendio <u>ez</u> da kontuan hartuko?**

386a) Aktibatutako ekintza guztiak berretsi egin behar dira soinu-mezuen bidez. Aginteek, teklatuak eta botoiek egokituta egon beharko dute kontraste handiko etiketa edo ikonoekin, letra handiekin, goi-erliebearekin eta braillearekin.
386b) Pantailak islatzaileak izango dira, eta ia kontrasterik gabeak.
386c) Informazioak argia izan behar du, pantaila berean aukera askorik gabe, eta erantzun-denbora luzea ahalbidetu behar du.
386d) Ukipen-pantailek informazioa eskuratzeko hautazko beste sistema bat izango dute, behar duten pertsona guztientzat.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 22. gaia

**387 Hitzezko komunikazioa:**

387a) Ahozko komunikazioa baino ez da.
387b) Ahozko komunikazioaz gain, idatzizkoa ere bada.
387c) Gorputz- eta keinu-hizkuntza ere hartzen ditu.
387d) Ikusten den guztia da.

**388 Nolakoak izan daitezke komunikazio-oztopoak?**

388a) Pertsonalak, kulturalak, semantikoak eta fisikoak.
388b) Pertsonalak, semantikoak, fisikoak eta psikologikoak.
388c) Hitzezkoak eta ez-hitzezkoak.
388d) Semantikoak, kulturalak, administraziokoak eta testuingurukoak.

**389 Hauetako zein da komunikaziorako oztopo pertsonal bat?**

389a) Zarata.
389b) Pertzepzioak.
389c) Sinesmenak.
389d) Esperientziak.

**390 Zer oztopo mota da igorleak eta hartzaileak adierazpen bat modu berean interpretatzeko zailtasuna izatea?**

390a) Oztopo semantiko bat.
390b) Oztopo kultural bat.
390c) Oztopo pertsonal bat.
390d) Oztopo fisiko bat.

**391 Komunikazio-oztopoak saihesteko, zer gomendatzen da?**

391a) Emozioak transmititzea, mezua nabarmentzeko.
391b) Lagunarteko hizkuntza erabiltzea, baita adierazpen desegokiak ere, baldin eta mezua ulertzeko balio badute.
391c) Jarrera ez-enfatikoa edukitzea, itxaropen faltsuak ez sortzeko.
391d) Atzeraelikadura erabiltzea, ondo ulertu dela egiaztatzeko.

ISBN: 978-84-7777-667-3

392 Idatzizko komunikazioa dela eta, zein da zuzena?

392a) Segurua eta iraunkorra da.
392b) Normalean, mezu inprobisatu bat ematen da.
392c) Aldiberekotasuna du ezaugarri, igorleak eta hartzaileak elkarri eragiten diotelako.
392d) Dituen ezaugarriak direla eta, bide egokia da emozioak transmititzeko.

393 Igorlea, hartzailea, mezua, kodea eta kanalaz gain, zer beste faktore ditu idatzizko komunikazioak?

393a) Papera, boligrafoa eta estilo-hiztegia.
393b) Ordenagailua, komunikazioa online bada.
393c) Egitura, estiloa eta edukia.
393d) Izenburua, garapena eta amaiera.

394 Idatzizko komunikazioan:

394a) Ahozko komunikazioan ez bezala, ezin da mezu-hartzailearen berehalako erantzunik jaso.
394b) Igorlearen eta hartzailearen arteko distantzia ez da eragozpen bat, harremanak mantentzen laguntzen baita.
394c) Igorlearen eta hartzailearen arteko distantzia eragozpen bat da komunikazio egokirako.
394d) Akats gramatikalak onargarriak dira, baldin eta komunikazioa elektronikoa bada.

395 Webgunea Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazio-tresna dela jota:

395a) Transmititu nahi diren mezuek idatzizko komunikazioaren idazketa-arau berak betetzea gomendatzen da.
395b) Idatzizko komunikazioaren diseinu berari jarraitu behar dio (ezkerretik eskuinera).
395c) Hartzailea komunikazio-prozesuko eragile aktibo bihurtzen du.
395d) Testu-formatuko mezuak baino ez dira jasotzen.

396 Hauetako zein da administrazio-hizkera hobetzeko proposamen bat?

396a) Hirugarren pertsona erabiltzea, esaterako, erantzukizunpeko adierazpenetarako.
396b) Testu osoa paragrafo bakarrean idaztea, irakurketa errazten duelako.
396c) Testua idazterakoan, boz pasiboa erabiltzea lehentasunez, formalismo handiagoa ematen diolako.
396d) Estilo nominala gehiegi ez erabiltzea (gaztelaniaz), eta aditza substantibo ez bihurtzea.

397 Administrazio-dokumentu bat euskaraz idatzi behar badugu, zer hartu behar da kontuan?

397a) Siglak marrarik gabe deklinatzen direla; baina badira zenbait salbuespen, esate baterako, sigla «K» letraz bukatzea; kasu horretan marraz bereiziko da.
397b) Sekula ez da marrarik erabiliko siglak deklinatzeko.
397c) Gaztelaniazko idazkeraren kalkoa egin behar da.
397d) Baldintza hipotetiko bat erabiltzen bada, egokiagoa da subjuntiboa erabiltzea indikatiboa baino.

398 Gaztelaniaz ari garela, komunikazio berdinzalerako hizkuntza ez-sexistaren gomendioen artean EZ dago hauetako bat. Zein da?

398a) Perifrasiak erabiltzea (clase trabajadora, adibidez), testua gehiegi luzatzen duelako.
398b) Izen abstraktuak erabiltzea (la dirección, adibidez), ezin delako jakin emakumeak kontuan hartzen diren.
398c) «@» zeinua erabiltzea, bi sexuetako pertsonei erreferentzia egiteko.
398d) Maskulinoa eta femeninoa erabiltzea (los funcionarios y las funcionarias), kargatuegia geratzen delako.

**399 Euskarak ez du genero gramatikalik. Horrenbestez:**

399a) Ezin dira generikoak erabili (irakasleria).
399b) Hitz-elkarketa erabiltzea gomendatzen da bi sexuetako pertsona-taldeak aipatzeko (seme-alabak).
399c) Hitanoa erraz asko erabil daiteke edozein egoeratan.
399d) Egokiagoa da «alkatesa» terminoa erabiltzea «alkate andrea» baino.

**400 Administrazio-dokumentu itxiak idazterakoan, zer hartu behar da kontuan?**

400a) Emakumeak hor daudela nabarmentzeko, emakumeak izen-abizenekin aipatzea gomendatzen da eta gizonak, berriz, nahikoa da abizenez aipatzea.
400b) Gaztelaniaz, ez da hartzaileari dagokion genero gramatikala erabiliko (director edo directora), eta horren ordez izen abstraktua erabiliko da (dirección).
400c) Egokiena da tratamendu bera erabiltzea hala gizon nola emakumeentzat, eta batzuen nahiz besteen izena eta abizena erabiltzea.
400d) Hizkuntzaren erabilera ez-sexistari dagokionez, ez dago arretaz jokatu beharrik, hartzailea nor den badakigulako.

**401 Administrazio-dokumentu irekietan, hartzailea nor den eta zer sexutakoa den ez dakigunez, zer gomendatzen da hizkuntzaren erabilera ez-sexistari dagokionez?**

401a) Gaztelaniaz, generiko maskulinoa erabiltzea gomendatzen da.
401b) Gaztelaniaz, bi sexuak barra batez bananduta aipatzea gomendatzen da.
401c) Gaztelaniaz, forma inpertsonalak erabiltzea gomendatzen da.
401d) Sexuari buruzko aipamenik ez egitea gomendatzen da.

**402 Kargu bat betetzen duen pertsona gizonezkoa ala emakumezkoa den ez dakigunean:**

402a) Ordezko aukera generikoak erabil daitezke, administrazio-organoaren edo administrazio-unitatearen izena aipatuta.
402b) Ez da komeni kargurik aipatzea.
402c) Betiere, kargua betetzen ari dena nor den jakiteko behar den guztia egitea gomendatzen da.
402d) Kargua betetzen ari den pertsona gizona edo emakumea den ez badakigu, hari idazkirik ez bidaltzea gomendatzen da.

**403 Zer dira ziurtagiriak?**

403a) Ebazpeneko administrazio-dokumentuak.
403b) Administrazioko transmisio-dokumentuak.
403c) Ziurtatzeko edo egiaztatzeko administrazio-dokumentuak.
403d) Judizio-dokumentuak.

**404 Zer agertu behar da administrazio-dokumentu baten goiburuan?**

404a) Goiburu inprimatua, igorlearen identifikazio korporatiboa duela.
404b) Mezuaren eduki luzea.
404c) Organo igorlearen sinadura.
404d) Igorpen lekua eta eguna.

**405 Administrazio-dokumentu baten lekua eta egunari erreferentzia egitea dela eta:**

405a) Gaztelaniaz «en» eta «a» erabili behar dira, lekua eta eguna aipatzerakoan.
405b) Urtea puntuarekin idatzi behar da (2.021).
405c) Hilabeteko eguna eta urtea zenbakiz idazten dira.
405d) Hilabeteko eguna, hilabetea eta urtea zenbakiz idazten dira, baita dokumentuaren formatuak data zenbakiz soilik idazteko laukitxorik ez badu ere.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**406 Zer eduki behar du administrazio-dokumentu baten sinadurak?**

406a) Soilik dokumentua sinatzen duenaren izenpekoa.
406b) Sinadura-aurrekoa, dokumentua sinatzen duen pertsonaren postua edo kargua adierazten duela, eta zigilua.
406c) Sinatzen duenaren izen-abizenak.
406d) Sinadura-aurrekoa, izenpekoa, sinatzen duenaren izen-abizenak eta zigilua.

**407 Idatzizko dokumentuen aurkezpena dela eta, zein da zuzena?**

407a) Ofizioa, hurbiltasunez eta tonu pertsonalean idatzi behar da.
407b) Posta elektronikoan hobea da letra larriak erabiltzea.
407c) Ziurtagirietan, izenburuek ez dute zertan zer helburu duten adierazi.
407d) Ofizioetan, hasierako eta amaierako agurrek neutroak izan behar dute.

**408 Komunikabide gisa posta elektronikoa erabili behar dugunean, zein da zuzena?**

408a) Dituen ezaugarriengatik, lagunarteko hizkuntza erabili ohi da.
408b) Komeni da behar adina luze izatea.
408c) Informazio asko eman behar badugu, hobea da atxikitako dokumentu moduan edo esteka baten bidez eranstea.
408d) Ezin da Administrazioarekiko harremanetan erabili.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 23. gaia

**409 Hauetako zein da ahozko komunikazioaren ezaugarri bat?**

409a) Ahotsa bakarrik erabiltzen da komunikatzeko.
409b) Komunikazioa osatzeko beste baliabide batzuetan oinarritzen da: keinuak, begiradak, ahots-tonua...
409c) Guztiz planifikatua da.
409d) Norabide bakarrekoa da, igorleak bakarrik esku hartzen baitu.

**410 Administrazioaren eta herritarren arteko ahozko komunikazioa hobetzeko, zer gomendio ematen da?**

410a) Lehenik eta behin, informazio garrantzitsuena ematea, eta, ondoren, informazio osagarria.
410b) Aginterazko aditz-formak erabiltzea.
410c) Aditzaren forma pertsonaletara ez jotzea, konfiantza-egoerak saihesteko.
410d) Konparaziorik ez egitea, nahastea sortzen dutelako.

**411 Euskarazko ahozko komunikazioan:**

411a) Telefono-zenbakiak binaka irakurtzen dira.
411b) «https://www.euskaltzaindia.eus» URLa honela irakurri behar da: hatxe-te-te-pe-ese, bi puntu, barra barra, uve bikoitza, uve bikoitza, uve bikoitza, puntu, euskaltzaindia, puntu eus.
411c) «g.isasi@gmail.com» posta elektronikoko helbidea honela irakurri behar da: ge, puntu, isasi, arroba, ge mail, puntu, com
411d) Telefono-zenbakiak banan-banan irakurtzen dira.

**412 Zein da ahozko komunikazioaren eta komunikazio idatziaren arteko aldea?**

412a) Ahozko komunikazioak hartzailearen eta igorlearen arteko feedbacka ahalbidetzen du, baina ezinezkoa da idatzizko komunikazioan.
412b) Idatzizko komunikazioan, plangintzak berebiziko garrantzia du, eta ahozko komunikazioan, berriz, inprobisatu egiten da beti.
412c) Ahozko komunikazioari dagokionez, azalpenean, hartzaileen beharren arabera, ahozko hizkuntzaren erregistroa egokitu egin daiteke; idatzizko komunikazioan, berriz, testua idazten amaitu aurretik hartu behar dira hizkuntza-erregistroarekin lotutako erabaki guztiak.
412d) Ahoz iristen zaigun informazioa «entzun» eta «ikusi» egiten dugu, eta idatzizko informazioa, berriz, «ikusi”.

ISBN: 978-84-7777-667-3

413 Hitzik gabeko hiru komunikazio mota dago; zein?

413a) Kinesikoa, proxemikoa eta paralinguistikoa.
413b) Kinesikoa, paralinguistikoa eta elebakarra.
413c) Paralinguistikoa, elebakarra eta norabide bikoa.
413d) Proxemikoa, protoxemikoa eta paraxemikoa.

414 Zer sartzen da hitzik gabeko komunikazioaren sistema kinesikoaren barruan?

414a) Pertsonek ahoz komunikatzean gordetzen duten distantzia.
414b) Ahotsaren bolumena eta erabilitako tonua.
414c) Ahozko jarioa.
414d) Keinuak, aurpegiera, ikus-kontaktua eta jarrera.

415 Komunikatzeko gorde behar diren pertsonen arteko distantziak direla eta, zein da zuzena?

415a) Distantzia pertsonala (45-120 cm) egokia da ezezagunekin elkartzeko.
415b) Distantzia pertsonala (45-120 cm) egokia da pertsona ezagun ez-intimoekin elkartzeko.
415c) Distantzia soziala (120-360 cm) ezagunekin elkartzeko erabiltzen da.
415d) Distantzia intimoa (14-45 cm) beti saihestu behar da.

416 Zer gomendatzen da hitzezko komunikazioaren bidez ematen den mezua ulergarria izan dadin?

416a) Minutuko 80 eta 100 hitz bitarteko erritmoan aritzea.
416b) Minutuko 100 eta 150 hitz bitarteko erritmoan aritzea.
416c) Minutuko 150 eta 200 hitz bitarteko erritmoan aritzea.
416d) Minutuko 60 bat hitzeko erritmoan aritzea.

417 Isiluneen bidez:

417a) Ezin da ezer komunikatu.
417b) Komunikatu egin daiteke.
417c) Hartzaileak igorleak zer isildu duen asma dezala lortu nahi da.
417d) Igorlea haserre dagoela adierazten da.

418 Zer gomendatzen zaie administrazioan herritarrekin harreman zuzena duten langileei?

418a) Solaskideei zuzen eta zintzo ez begiratzeko.
418b) Eztarria garbitzeko eta hatz-kolpeka hasteko, eskatu zaion informazioaren berri ez duenean.
418c) Serio agertzeko, eta alferrikako irribarrerik ez egiteko.
418d) Aurpegiko keinuei eta gorputz-jarrerei arreta jartzeko.

419 Herritarrei arreta emateko prozesuan, hasierako kontaktua edo harremana egiten denean:

419a) Ez da konfiantza sortuko duen harremanik egin behar.
419b) Erabiltzaile desorientatuak ikusten direnean, itxaron egin behar da administrazioko langileengana jo arte, laguntzarik eskaini gabe.
419c) Saihestu egin behar da beste zeregin garrantzitsuago bat izatearen sentsazioa ematea.
419d) Saihestu egin behar da egoera pertsonalizatzea eta izenarekin identifikatzea.

**420 Administrazioko langileak administrazioko bulegoetara jo duen erabiltzaile baten beharra kudeatzen ari direnean, nola jardun behar dute?**

420a) Eskatutakoa konpondu ezin bada, onena «sentitzen dut, baina ezin dizut lagundu» erantzutea da.
420b) Eskatutakoari bulego horretan erantzun ezin bazaio, arazoa non eta nork konpon diezaiekeen adieraziko zaio informazio zehatza emanez.
420c) Eskaera beti idatziz egiteko eskatuko zaio.
420d) Beste egun baterako hitzordua emango zaio automatikoki.

**421 Herritarrei arreta emateko prozesuan, nola jardun behar dugu erabiltzaileak egindako eskaerari beste lankide batek erantzun behar badio?**

421a) Erabiltzaileari gure lankidearengana lagundu eta aurkeztu egingo diogu.
421b) Erabiltzaileari norengana joan behar duen esango diogu, harengana joan dadin.
421c) Ez da komeni erabiltzaileri lankidearengana laguntzea, lanpostua hutsik geratuko delako.
421d) Atezainari esango diogu erabiltzaileari laguntzeko.

**422 Hauetako zein da jendaurreko langileen eta erabiltzaileen arteko elkarreraginean eragin positiboa izan dezaketen oinarrizko aldagaietako bat?**

422a) Etengabe besoak eta eskuak mugitzen aritzea.
422b) Besoak gurutzatzea.
422c) Ahots-bolumen handian hitz egitea.
422d) Erabiltzaileei begietara begiratzea.

**423 Jendaurreko arretan, zer gomendatzen da hitzezko komunikaziorako?**

423a) Administrazio-hizkera guztia erabiliko duen hizkera egokia erabiltzea.
423b) Jarrera aseptikoa izatea, ez enpatikoa, erabiltzailea zer eskatu nahi duen azaltzen ari denean.
423c) Ulermen-adierazpenak ez erabiltzea.
423d) Hizkera positiboa erabiltzea.

**424 Asertibotasuna:**

424a) Pertsonek pentsatzen, desiratzen edo irizten dutena zuzenean adierazteko duten trebetasuna da, besteen iritziak alde batera utzi gabe.
424b) Solaskideak jaso nahi duen irudia erakustea du helburu.
424c) Jokabide oldarkorrak edo arbuiozkoak eragiten saiatzen da.
424d) Jasotako kritikei ihes egiteko trebetasuna da.

**425 Telefono bidezko komunikazioa eraginkorra izan dadin, trebetasun hauetako bat izan behar da; zein?**

425a) Telefonoari erantzun eta aldi berean beste zenbait zereginetan aritzea.
425b) Behar den materiala hurbil eta agerian jartzea.
425c) Telefonoari ez erantzutea beste zerbait egiten ari bagara.
425d) Telefono bidezko elkarrizketa zutik edukitzea.

**426 Zer fase ditu telefono bidezko arretak?**

426a) Agurra eta zer behar duen galdetzea, pasiboki entzutea eta agurra.
426b) Aurkezpena, itxarote-denbora, erantzuna eta amaiera.
426c) Aurkezpena, mezua entzutea eta beharra identifikatzea, erantzuna, agurra eta amaiera.
426d) Agurra, mezua entzutea, argibideak eskatzea, beste hitzordu bat ematea eta agurra.

ISBN: 978-84-7777-667-3

427 Erabiltzaileei arreta telefonoz ematen zaienean, nola jardun behar da aurkezpen-fasean?

427a) Telefonoa hartu bezain laster, administrazio-erakundea edo -unitatea identifikatu behar dugu, ondoren nor garen adierazi eta, jarraian, adeitasunez agurtu eta gure laguntza eskaini.
427b) Telefonoa hartu bezain laster, administrazio-erakundea edo -unitatea identifikatu behar dugu bakarrik, eta zer nahi duen galdetu.
427c) Telefonoa hartu, agurtu eta laguntza eskaini.
427d) Telefonoa hartu, agurtu eta itxaron.

428 Mezua entzun eta beharra identifikatzeko fasearen parte dira:

428a) Orientazioa eta erantzuna.
428b) Ikerketa eta konponbidea.
428c) Erantzuna eta agurra.
428d) Baieztapena eta arakatzea.

429 Telefono bidezko arretan zer erantzun mota eman daitezke?

429a) Presentziala edo atzeratua.
429b) Berehalakoa, izena hartzea eta ondoren deitzea edo deribatzea.
429c) Laburra, atzeratua edo behin betikoa.
429d) Berehalakoa, osoa edo idatzizkoa.

430 Nola jardun behar dugu une horretan ez dagoen beste pertsona batentzako dei bati erantzuten diogunean?

430a) Pertsona hori ez dagoela eta zergatik ez dagoen adieraziko diogu telefono-deia egin duenari, eta beste momentu batean deitzeko esango diogu.
430b) Erantzuten duenak ea lagun diezaiokeen galdetuko dio telefono-deia egin duenari, eta laguntzerik ez badu, geroago deitzeko esan.
430c) Pertsona hori lokalizatzen ez badugu, dei bat izan duela eta zer nahi zuen jasoko dugu ohar batean, eta dagokion pertsonari helaraziko diogu.
430d) Telefonoari erantzuten dionak barkamena eskatu eta ez zuela telefonorik hartu behar adierazi beharko dio deia egin duenari.

431 Nola jardun behar dugu Administraziora deitzen duenak beste norbaitekin hitz egin nahi duela adierazten badigu?

431a) Informazio hau jaso behar dugu: deia noiz eta zer ordutan egin den, komunikatzailearen izena, kargua eta enpresa edo erakundea, harremanetan nola jarri den (telefonoz, posta elektronikoz eta abar) eta mezua laburturik.
431b) Deia pasatu aurretik, eskatu duenarekin komunikatzeko aukera badagoen edo ez esango diogu deia egin duenari, eta, ondoren, identifikatzeko eskatuko diogu.
431c) Telefono-deiaren hartzailea okupatuta badago, dei-egilea konbentzitzen saiatu beharko dugu bere kasua beste norbaiti azal diezaion.
431d) Deia zuzenean pasatuko zaio dei-hartzaileari.

ISBN: 978-84-7777-667-3


# 24. gaia

**432 Konstituzioaz, zein da zuzena?**

432a) Ez da arau juridiko bat.
432b) Estatuburuak onartzen du.
432c) Esparru bat ezartzen du, eta esparru horretan, legegileak askatasuna du zenbait legegintza-politikaren artean aukeratzeko.
432d) Ezin da aldatu.

**433 Legeaz, zein da zuzena?**

433a) Gobernuak ematen duen arau-mota bat da.
433b) Herriaren ordezkaritzaren jarduera arauemailearen emaitza da.
433c) Ez dago Konstituzioaren mende, bi arauak Gorte Nagusiek ematen baitituzte.
433d) Konstituzioaren aginduak garatzera mugatzen da.

**434 Nori dagokio legea Konstituzioarekin bat datorren kontrolatzea?**

434a) Gobernuari.
434b) Auzitegi arruntei.
434c) Konstituzio Auzitegiari.
434d) Herriaren Defendatzaileari.

**435 Zer adierazi nahi da lege-erreserba esamoldearen bidez?**

435a) Galarazi egiten dela gai jakin batzuk erregelamendu bidez arautzea.
435b) Erregelamendu-erreserbarik egin ez zaien gaiei buruzko legeak soilik eman daitezkeela.
435c) Gobernuari dagokiola Konstituzioak adierazitako gaiak arautzea.
435d) Konstituzioak gai jakin batzuk erreserbatu egiten dituela, nahitaez lege bidez arautu daitezen.

**436 Zer da «konstituzionaltasun-blokea»?**

436a) Arau multzo bat da: Konstituzioa, autonomia-estatutuak eta estatu-lege jakin batzuk, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean eskumenak banatzen dituztenak.
436b) Estatuko legeen multzoa da.
436c) Ordenamendu juridiko osoa da.
436d) Konstituzioak eta autonomia-estatutuek osatutako multzoa da.

ISBN: 978-84-7777-667-3

437 Zer da legegintza-funtzioa?

437a) Gobernuak esklusiban duen funtzioa.
437b) Legeak lantzea da.
437c) Konstituzio Auzitegiari dagokion funtzioa.
437d) Edozein arau juridiko egitea da.

438 Autonomia-erkidegoek emandako legeak direla eta, zein da zuzena?

438a) Estatuko legeen azpian daude hierarkikoki.
438b) Estatuko legeen maila eta indar bera dute.
438c) Auzitegi arruntek kontrolatzen dituzte.
438d) Organikoak edo arruntak izan daitezke.

439 Lege organikoez ari garela, zein da zuzena?

439a) Lege organikoen bidez Konstituzioak arau mota horretarako erreserbatzen dituen gaiak arautzen dira.
439b) Hierarkikoki Konstituzioaren maila berean daude.
439c) Lege organikoak onesteko, Diputatuen Kongresuko eta Senatuko gehiengo osoa behar da.
439d) Lege arruntek alda ditzakete.

440 Konstituzioak zer arautzeko egiten du lege-organiko baten erreserba?

440a) Administrazio-prozedura arautzeko.
440b) Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak garatzeko legeak egiteko.
440c) Toki-araubidea arautzeko.
440d) Estatuko erakunde guztiak arautzeko.

441 Legegintza-dekretuak direla eta, zein da zuzena?

441a) Lege-organikoei erreserbatutako gaiak arautu ditzakete.
441b) Gobernuak eman eta Kongresuak berretsi behar ditu.
441c) Gobernuko edozein kidek eman ditzake, eskuordetza egon bada.
441d) Gobernuak ematen dituen lege-indarreko arauak dira.

442 Testu bategina, legegintza-dekretu mota bat den aldetik:

442a) Aldez aurretik oinarrizko lege bat eman behar da, gobernuari testu bategina egiteko baimena emateko.
442b) Konstituzio Auzitegiak soilik kontrola dezake.
442c) Auzitegi arruntei dagokie kontrolatzea eskuordetzaren mugak gainditzen direnean.
442d) Eskuordetzen den gaiaren beste erregulazio bat onestea du xede.

443 Lege-dekretuak direla eta, zein da zuzena?

443a) Legeen mende daude.
443b) Hauteskunde-zuzenbide orokorra arautu dezakete.
443c) Kongresuan eztabaidatu eta bozkatu ondoren jartzen dira indarrean.
443d) Gobernuak ematen dituen arauak dira, aparteko eta presako beharrizana dagoenean.

444 Erregelamenduak direla eta, zein da zuzena?

444a) Gobernuak ematen dituen xedapen orokorrak dira.
444b) Administrazio-egintzek bezalaxe, kasu jakin bati aplikatzen diote ordenamendua.
444c) Independenteak badira, legea osatzen eta garatzen dute.
444d) Konstituzio Auzitegiak kontrolatzen ditu, oro har.

**445 Erregelamenduen hierarkia dela eta, zein da zuzena?**

445a) Zirkularrak eta jarraibideak errege-dekretuen eta ministro-aginduen azpitik dauden arau juridikoak dira.
445b) Errege-dekretuak ministro-aginduen gainetik daude.
445c) Erregelamendu guztiek, eman dituen organoa edozein dela ere, hierarkia-maila bera dute.
445d) Gobernuaren presidenteak emandako errege-dekretuak Ministro Kontseiluaren errege-dekretuen gainetik daude.

**446 Konstituzioak autonomia-erkidegoei, probintziei eta udalerriei aitortzen dien autonomiaren babesean, zein da zuzena?**

446a) Autonomia-erkidegoei legegintza-ahala aitortzen zaie, baina ez erregelamendu-ahala.
446b) Toki-administrazioa osatzen duten erakundeek, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen tutoretzapean daudenez, ez dute erregelamendu-ahalik.
446c) Erregelamendu autonomikoak Konstituzio Auzitegiak kontrolatzen ditu.
446d) Toki-administrazioa osatzen duten erakundeei erregelamenduak egiteko ahala aitortzen zaie.

**447 Erregelamendu bat indarrean jartzeko:**

447a) Dagokion aldizkari ofizialean argitaratu behar da (Estatukoan, autonomia-erkidegokoan edo probintziakoan).
447b) Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, arauaren jatorria edozein dela ere (estatukoa, autonomikoa edo tokikoa).
447c) Nahikoa da iragarki bat jartzea dagokion lurraldeko tirada handieneko egunkarian.
447d) Iragarki bat argitaratu behar da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean.

**448 Zer esan nahi du erregelamenduak bakarrarentzat indargabetu ezinaren printzipioak?**

448a) Administrazio-egintza batek erregelamendu bat ez aplikatzea erabaki dezakeela kasu jakin baterako.
448b) Ezin dela kasu zehatz bat arautu erregelamendu batean xedatutakoaren aurka.
448c) Erregelamenduak administrazio-egintzen bidez indargabetu daitezkeela.
448d) Erregelamenduak ezin direla maila bereko edo handiagoko beste erregelamendu batzuen bidez indargabetu, legeen bidez baizik.

**449 Arauen arteko hierarkiaren arabera:**

449a) Arau batek berea baino maila txikiagoko beste arau batzuk aldatu edo indargabetu ditzake, baina ez maila berekoak.
449b) Maila handiagoko arau baten aurka egiten duen araua erabat deuseza da, eta, beraz, automatikoki ordenamendu juridikotik kanpo geratzen da, auzitegi batek deuseztasuna deklaratu beharrik gabe.
449c) Arau bat maila handiagoko, bereko edo txikiagoko beste batek aldatu edo indargabetu dezake.
449d) Arau bat maila hierarkiko bereko beste batek aldatu edo indargabetu dezake.

**450 Nola aldatu daiteke Konstituzioa?**

450a) Legegintzako prozedura arruntari jarraitu behar zaio.
450b) Konstituzioan bertan jasotako prozedura berezietako bat baliatu behar da.
450c) Lege organiko bidez aldatzen da.
450d) Estatuburuak baino ezin du aldatu.

ISBN: 978-84-7777-667-3

451 Zer eskumen du Konstituzio Auzitegiak?

451a) Lege-mailako arauen konstituzio-kontrola egiten du konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoaren eta auziaren bidez.
451b) Erregelamendua legearen aurkakoa ez dela kontrolatzen du.
451c) Ordenamendu juridiko osoa kontrolatzen du.
451d) Erregelamendu bat legearen aurkakoa dela adierazi duten auzitegiak kontrolatzen ditu.

452 Nazioarteko tratatuak direla eta, zein da zuzena?

452a) Hierarkikoki Konstituzioaren gainetik daude.
452b) Ez daude Konstituzio Auzitegiaren konstituzionaltasun-kontrolaren mende.
452c) Konstituzioaren aurkako xedapenak izan ditzakete.
452d) Arauen artean gatazkarik sortuz gero, nazioarteko tratatuetan jasotako arauak nagusituko dira ordenamenduko beste edozein arauren aldean, Konstituzioa salbu.

453 Zer esan nahi du legezkotasun-printzipioak?

453a) Herritarrek ordenamendu juridiko osoa bete behar dutela, baina betebehar horrek ez diela botere publikoei eragiten.
453b) Herritarrek nahiz botere publikoek indarrean dauden legeak bete behar dituztela, baina ez gainerako ordenamendu juridikoa.
453c) Administrazioaren jardun orok ordenamendu juridikoko arauak izan behar dituela kontuan.
453d) Botere publikoak ordenamendu juridikoaren mende daudela, baina ez herritarrak.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 25. gaia

454 Administrazio-antolaketa dela eta, zein da zuzena?

454a) Ez dira organoa eta organo hori okupatzen duen pertsona fisikoa bereizi behar.
454b) Organoa eta organo hori okupatzen duen pertsona fisikoa bereizi behar dira.
454c) Ez da arau juridikorik behar.
454d) Administrazio-organoen titularrak pertsona juridikoak dira.

455 Zer printzipiotan oinarritzen da administrazio publikoen ezaugarri konstituzionala?

455a) Efikazia-, hierarkia-, deszentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioetan.
455b) Deszentralizazio-, deskonzentrazio-, eskuordetza- eta goragokoak bereganatzeko printzipioetan.
455c) Hierarkia-, tutoretza-, estatuarenganako mendekotasuna eta kontrol-printzipioetan.
455d) Efikazia-, efizientzia-, gardentasun- eta leialtasun instituzionalaren printzipioetan.

456 Adierazi zein den erantzun zuzena:

456a) Deszentralizazioa da eginkizunak administrazio-organoen artean berrantolatzea.
456b) Deskontzentrazioa lurraldekoa edo funtzionala izan daiteke.
456c) Deszentralizazioa eta deskontzentrazioa sinonimoak dira.
456d) Deskontzentrazioak esan nahi du administrazio publiko baten barruko eginkizunak beheragoko mailako organoetan edo organo periferikoetan berrantolatzea.

457 Estatuko Administrazio Orokorraren antolaketa-egitura dela eta, zein da zuzena?

457a) Espainiako Konstituzioan ezarrita dago.
457b) Tutoretza gauzatzen duten organoak eta tutoretzapeko organoak daude.
457c) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak arautzen du.
457d) Estatuko Administrazioak bere burua antolatzeko duen ahalaren mendekoa da soil-soilik.

458 Zein dira Estatuko Administrazioaren goi-mailako organoak?

458a) Ministerioak eta estatu-idazkaritzak.
458b) Idazkariordetzak eta idazkaritza nagusiak.
458c) Zuzendaritza-organo guztiak.
458d) Gobernuko presidentea eta ministerioak.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**459 Estatuko Administrazio Orokorraren organo periferikoek:**

459a) Madrilen dute egoitza.
459b) Estatuko lurralde osoan jarduteko eskumena dute.
459c) Estatuko lurraldearen zati batean jarduteko eskumena dute (autonomia-erkidegoan edo probintzian).
459d) Ceutan eta Melilla dute egoitza.

**460 Estatuko Administrazio periferikoaren parte dira:**

460a) Gobernuak autonomia-erkidegoetan dituen ordezkariordetzak.
460b) Gobernuak autonomia-erkidegoetan dituen ordezkaritzak.
460c) Gobernuak probintzietan dituen ordezkaritzak.
460d) Probintzietako Gobernu Zibilak.

**461 Noren eskumena da autonomia-erkidego bakoitzaren administrazio-antolaketa arautzea?**

461a) Estatuaren eskumena da, oinarriak emateari dagokionez.
461b) Autonomia-erkidego bakoitzaren eskumen esklusiboa da, oso-osorik.
461c) Estatuari dagokio, oso-osorik.
461d) Europar Batasuneko Zuzenbidearen arloko zeregin bat da.

**462 Lehendakaritzaz eta Eusko Jaurlaritzaz gain, zein dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organo nagusiak?**

462a) Sailak, zuzendaritzak eta idazkaritzak.
462b) Sailak, sailburuordetzak eta zuzendaritzak.
462c) Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa.
462d) Zuzendaritzak, idazkaritzak eta zerbitzuak.

**463 Toki-administrazioa:**

463a) Probintziek eta udalek bakarrik osatzen dute.
463b) Administrazio bakarra da.
463c) Espainiako Konstituzioa onetsi zenetik, Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik iraun du.
463d) Toki-administrazioaren barruan administrazio ugari sartzen da, hala nola probintziak, udalak, eskualdeak, metropolialdeak, mankomunitateak eta toki-erakunde txikiak.

**464 Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoak direla eta, zein da zuzena?**

464a) Probintziako diputazioak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak erregulatutakoaren mende daude.
464b) Eusko Legebiltzarrak erakunde-antolaketari buruz araututakoaren mende daude.
464c) Lurralde historiko bakoitzak erakunde-antolaketari buruzko bere foru-arauak ditu.
464d) Ez dute inolako berezitasunik Estatuko probintzia-antolaketarekin alderatuta.

**465 Udalerrien antolaketa dela eta, zein da zuzena?**

465a) Udalerri guztietan dira beharrezkoak alkatea, alkateordeak, udalbatza eta tokiko gobernu -batzarra.
465b) Ez da aurreikusten beharrezkoak ez diren beste organo osagarri batzuk sortzeko aukerarik.
465c) Toki-erakundeen antolaketaren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoaren Estatuko erregelamendua osagarria da, udalaren berezko araudi organikorik ez dagoen bitartean soilik aplikatzen baita.
465d) Toki-erakundeen antolaketaren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoaren Estatuko erregelamendua udal bakoitzaren erregelamendu organikoei gailentzen zaie.

466 Toki-araubidea dela eta, zein da zuzena?

466a) Berbera da estatu osoan, autonomia-erkidegoek ez baitute eskumeni gai horretan.
466b) Toki-araubideak berezitasunak izan ditzake autonomia-erkidego bakoitzean, autonomia-erkidegoek gai horri buruzko legeak eman baititzakete.
466c) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak erregulatzen du oso-osorik, eta ezin da gaiari buruzko beste legerik eman, ez estatukorik, ez autonomikorik.
466d) Probintziaz eta udalerriaz gain ez du beste erakunderik.

467 Zer esan nahi du nork bere burua antolatzeko ahalak?

467a) Lege-esparrua errespetatuta, administrazio bakoitzak bere antolaketa-egitura diseina dezakeela.
467b) Administrazio bakoitzak libreki bere antolaketa-egitura diseina dezakeela inolako araurik bete gabe.
467c) Administrazio-antolaketa ez da arau bidez ezartzen.
467d) Erregelamenduak bakarrik arau dezake administrazio-antolaketa.

468 Zer irizpideren arabera esleitzen zaizkie eskumenak administrazio-organoei?

468a) Eskumenak esleitzeko bi irizpide mota erabiltzen dira: deszentralizazioa eta deskontzentrazioa.
468b) Eskumenak esleitzeko hiru irizpide mota erabiltzen dira: materiala, hierarkikoa eta antolaketakoa.
468c) Eskumenak esleitzeko hiru irizpide mota erabiltzen dira: materiala, lurralde-arlokoa eta funtzionala.
468d) Eskumenak esleitzeko bi irizpide mota erabiltzen dira: esklusiboak eta partekatuak.

469 Eskumenak esleitzeko arau batek ez badu eskumenaren titulartasuna duen organoa zein den zehazten:

469a) Gaiaren eta lurraldearen arabera eskumena duten beheragoko organoek izango dute espedienteen instrukzioa egiteko eta espedienteak ebazteko ahalmena.
469b) Administrazio-antolamenduko organo gorenak izango du espedienteen instrukzioa egiteko eta espedienteak ebazteko ahalmena.
469c) Estatuko edo autonomia-erkidegoko lege batek zehaztuko du zein organori dagokion espedienteen instrukzioa egin eta espedienteak ebazteko ahalmena.
469d) Beste administrazio bati eslei dakioke espedienteen instrukzioa egin eta espedienteak ebazteko ahalmena.

470 Zer esan nahi du eskumenari uko ezin egin ahal izateak?

470a) Egintza bat, gaia edo lurraldea dela eta, argi eta garbi eskumenik ez duen organo batek ematen badu ere, egintza baliozkoa izango dela.
470b) Egintza bat, hierarkiagatik, argi eta garbi eskumenik ez duen organo batek ematen badu, egintza erabat deuseza izango dela.
470c) Organoaren titulartasuna duenaren arabera gauzatuko dela eskumena.
470d) Eskumena esleituta duten organoek nahitaez baliatu behar dutela.

471 Administrazio publikoaren hierarkizazioari esker:

471a) Estatuko Administrazioak autonomia-erkidegoetako administrazioak babes ditzake.
471b) Toki-erakundeak estatuko eta autonomia-erkidegoko administrazioaren mende jar daitezke.
471c) Estatuko Administrazioaren organo zentralak hierarkikoki organo periferikoen gainetik egon daitezke.
471d) Eskumenak bertikalean bana edo ordena daitezke.

ISBN: 978-84-7777-667-3

472 Zer esan nahi du hierarkia-printzipioak?

472a) Goi mailako organoek emandako zerbitzuko jarraibide eta aginduak herritarrak lotzen dituzten arau juridikoak direla.
472b) Zerbitzuko jarraibide eta aginduek ordenamendu juridikoa berritzeko ahalmena dutela.
472c) Beheragoko administrazio-organoek beren goikoek emandako jarraibideak ez betetzeak haiek emandako administrazio-egintzak baliogabetzen dituztela, baina ezin dela diziplina-erantzukizunik eskatu.
472d) Beheragoko administrazio-organoek beren goikoek emandako jarraibideak ez betetzeak ez diola berez haiek emandako administrazio-egintzen baliozkotasunari eragiten, nahiz eta diziplina-erantzukizuna eskatzea ekar dezakeen.

473 Zer helburu nagusi du efikazia-printzipioak, antolaketari dagokionez?

473a) Administrazio-organoak abian eta funtzionamenduan jartzea beharrezko krediturik badagoen edo ez kontuan hartu gabe.
473b) Administrazio-organoak ezin bikoiztu izatea.
473c) Administrazio-organoen bikoizketa ez saihestea, horrela, interes orokorrak betetzeko berme gehiago baitago.
473d) Administrazio-organoen gatazkak ebaztea, oro har, tartean diren organoei dagokiela.

474 Administrazio-organoen eskumenei ezin zaie uko egin:

474a) Eta ezinezkoa da haien erabilera lagatzea, eskumen horiek berezkotzat esleitua dituzten organoek soilik egikaritu behar baitituzte.
474b) Eta, arau orokor gisa, eskumen horien titulartasuna laga egin daiteke.
474c) Baina zenbait kasutan onargarria da haien erabilera lagatzea.
474d) 40/2015 Legeak ez du ukaezintasun-printzipioaren aldaerarik aurreikusten.

475 Adierazi zein den erantzun zuzena:

475a) Eskumenak eskuordetzan ematea betirako da, ezin baita errebokatu.
475b) Eskumenak eskuordetzeak esan nahi du organo delegatzailearen edozein eskumen lagatzen dela.
475c) Administrazio-ebazpenak delegazioz ematen direnean organo delegatzaileak emandakotzat joko dira.
475d) Eskuordetutako eskumenez baliatu behar denean, ez dago inolako eragozpenik eskumena eskuordetzan jasotako organoak beste organo bati berriz ere eskuordetzan emateko.

476 Goragokoak eskumena bereganatzea:

476a) Hierarkikoki antolatuta dauden organoen artean erabiltzen da; horren arabera, goragoko organoak normalean beheragoko organo bati dagokion kasu jakin bat beregana dezake.
476b) Horren arabera, goragoko organoak beheragoko organo baten eskumen propioa bereganatuko du behin betiko.
476c) Erabakia hartzeko balio duen akordioaren kontra errekurtsoa jartzeko aukera ematen du.
476d) Erabakia hartzeko balio duen akordioa dagokion aldizkari ofizialean argitaratzea eskatzen du.

477 Nola deitzen zaio jarduera materialak edo teknikoak egiaz eskudunak ez diren administrazio-organoek egiteari?

477a) Sinadura delegatzea.
477b) Kudeaketa-gomendioa.
477c) Deskontzentrazioa.
477d) Goragokoak eskumena bereganatzea.

478 Ordezkotzaren bidez:

478a) Administrazio-organo baten titularra ordezten da kargua hutsik badago, edo titularra falta bada edo gaixorik badago.
478b) Administrazio-organo baten eskumenak beste organo bati ematen zaizkio.
478c) Eskumenak eskuordetzan ematen dira, non ordezkoak organo-titularraren eskumen propioak gauzatzen dituen, baina hark jarraitzen duen titular izaten.
478d) Administrazio-organoak funtzionatzen jarraitzen du, baina mugatuta.

479 Nor izango da kide anitzeko organo baten idazkari?

479a) Kide anitzeko organotik kanpoko bat izan behar da beti.
479b) Kide anitzeko organoko bertako kide bat izan daiteke.
479c) Zeregin horretarako deitutako oposizioak gainditzen dituena izango da.
479d) Kide anitzeko organoaren presidentea izango da.

480 Kide anitzeko organo bat balio osoz era dadin gutxieneko zer quorum behar da?

480a) Presidentea, idazkaria eta kide guztiak.
480b) Presidentea eta idazkaria.
480c) Kide anitzeko organoa balio osoz eratuko da bileran dauden kide kopurua edozein dela ere.
480d) Presidentea, idazkaria eta kideen erdiak.

481 Kide anitzeko organoek erabakiak hartzeaz ari garela, zein da zuzena?

481a) Organoko kideek aurkako botoa ematen badute edo abstenitzen badira, salbuetsita geratuko dira erabakietatik erator daitezkeen erantzukizunetatik.
481b) Arau orokor gisa, gehiengo kualifikatua behar da erabakiak hartzeko.
481c) Arau orokor gisa, gai-zerrendan sartu gabeko gaiei buruzko erabakiak har daitezke.
481d) Presidentearen aldeko botoa behar da erabakiak hartzeko.

482 Zer helburu dute abstentzioak edo prozeduran parte ez hartzeak eta errekusazioak?

482a) Administrazioko organoak osatzen dituzten pertsonen inpartzialtasuna bermatzea.
482b) Administrazio-prozeduretan kasu bakoitzean eskatzen diren ezagutzak dituzten pertsonek bakarrik esku hartzea.
482c) Administrazio-prozeduretan hartutako administrazio-ebazpenak beti espresuak izatea.
482d) Interesdunek espedientea eskuragarri izan dezaten bermatzea.

483 40/2015 Legean parte ez hartzeko zerrendatutako arrazoien artean hauetako zein EZ da aipatzen?

483a) Organoko titularrarekin ezkontza-lotura edo antzeko izatezko egoera bat izatea.
483b) Administrazio-prozeduran aditu gisa parte hartu izana.
483c) Organoko titularrarekin ikasketan egin izana.
483d) Organoko titularrarekin ahaidetasun-maila jakin bat izatea.

484 Zer gertatuko da parte ez hartzeko arrazoiak izan eta hori egiten ez bada?

484a) Emandako egintza baliogabetu egingo da.
484b) Interesdunak onartu egin behar du.
484c) Delitu bat da.
484d) Ez du esan nahi emandako egintza nahitaez baliogabea denik.

ISBN: 978-84-7777-667-3

485 Errekusazioa dela eta, zein da zuzena?

485a) Arazo intzidental gisa, ez du administrazio-prozeduraren izapidetzea eteten.
485b) Administrazio-prozedura izapidetzen ari den organoaren titularrak duen eskubide bat da.
485c) Interesdunaren eskubide bat da.
485d) Behin planteatuta, errekusatutako subjektuak berak ebatziko du.

486 Interesdunak administrazio-prozedura izapidetzen ari den organoaren titularra errekusa dezake:

486a) Administrazio-prozedurari amaiera ematen dion ebazpena eman ondoren.
486b) Prozeduraren izapidetzen ari den bitartean, noiznahi.
486c) Eta organoaren titularrak (errekusatuak) erabakitzen du ordezkoa jarri behar den edo ez.
486d) Eta horri buruzko erabakiaren aurka errekurtsoa jar daiteke.

ISBN: 978-84-7777-667-3


# 26. gaia

487 Zer da administrazio-egintza?

487a) Exekuzio materialeko egintza bat da, administrazio publikoek gauzatzen dutena.
487b) Administrazioaren borondatearen, judizioaren, jakitearen edo nahiaren deklarazio bat da.
487c) Administrazioak eta partikularrek sinatutako itun eta hitzarmenek osa dezaketen egintza bat da.
487d) Borondatearen, judizioaren, jakitearen edo nahiaren deklarazio bat da, zeinak erregelamenduak egiteko ahala ere baduen.

488 Aukera ezazu erantzun zuzena:

488a) Administrazio-egintzak partikularren borondatearen esku-hartzea eskatzen du.
488b) Administrazio-prozedura batzuk Administrazioarekin egindako itun edo hitzarmen bidez amai daitezke.
488c) Administrazio egintza guztiek ez dute eskatzen, eraginkorra izan dadin, hartzaileen onarpena.
488d) Administrazio-egintza pertsonek eskatuta ematen den aldebakarreko deklarazio bat da.

489 Zer esan nahi da administrazio-egintza borondatezkoa izan daitekeela diogunean?

489a) Jarduketa material bat dela, hala nola zerbitzu publiko bat ematea.
489b) Pertsonaren aurretiko egoera juridikoa ezagutaraztea helburu duen deklarazio bat dela.
489c) Administrazioak pertsonek gauzatutako jarduera bat baimentzeko edo debekatzeko asmoa duela.
489d) Administrazioak judizio edo iritzi bat ematen duela egoera juridiko baten legezkotasunari edo legezkontrakotasunari buruz.

490 Zer behar da nagusiki administrazioak administrazio-egintza bat eman dezan?

490a) Administrazio hori bera existitzea eta ordenamendu juridikoak onartua izatea.
490b) Jarduteko ahalmen edo gaikuntza bat izatea, ordenamendu juridikoak emana.
490c) Administrazio-organoak jarduteko borondatea izatea, idazki formal baten bidez adierazia.
490d) Administrazio-ahal jakin bat, ordenamendu juridikoak emana.

ISBN: 978-84-7777-667-3

491 Aukera ezazu erantzun zuzena:

491a) Administrazio-egintza zuzenbide pribatuko arauei loturik dago.
491b) Administrazio-egintza zuzenbide pribatuak esleitutako ahalen arabera ematen da.
491c) Administrazio-egintza administrazio-zuzenbideko arauei loturik dago.
491d) Administrazio-egintza zuzenbide pribatuko arauei eta administrazio-zuzenbidekoei loturik dago.

492 Zer betekizun bete behar da administrazio-egintzak egiteko?

492a) Eskumena duen organoak eman behar ditu.
492b) Eskumena duen organoak emango ditu ezarritako prozedurari jarraituz.
492c) Eskumena duen organoak formalizatutako eredu baten bidez eman behar dira.
492d) Ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio, eskumena zer organok duen kontuan hartu gabe.

493 Zer organok du administrazio-egintzak emateko eskumena?

493a) Arauek finkatzen duenak, eta, halakorik ezean, hierarkian beheragokoak.
493b) Eskumena administrazio jakin bati esleitzen dioten arauek ezartzen duenak.
493c) Beste administrazio-egintza batek esleitutako administrazio-ahala duenak.
493d) Beste organo batek eskuordetuta eskumena jasotzen duen organoak.

494 Zer da denborako eskumenik eza?

494a) Organoa hierarkia eskalarekin bat ez datorrelako, eskumenik ez izatea.
494b) Eskumenik ez izatea, eskumena arauetan aurreikusita gabeko uneren batean egikaritzeagatik.
494c) Gai jakin batean ahalak baliatzeko eskumenik ez izatea.
494d) Lurralde-eremu jakin batean ahalak baliatzeko eskumenik ez izatea.

495 Administrazio-organo batek abstenitzeko-arrazoiak baditu...

495a) Egintza baliogabetu egiten du.
495b) Ere, izan daiteke egintza baliozkoa eta efikaza.
495c) Deuseztasuna dakar, eskumenik ezaren akatsagatik.
495d) Egintza baliozkoa izan daiteke, abstenitzeko arrazoiak dituen organoari diziplina-erantzukizunik eskatu beharrik gabe.

496 Aukera ezazu erantzun zuzena:

496a) Esku hartzen duen organoaren titularra izendatu egin behar da dagokion eginkizunetarako.
496b) Administrazio-organo bat hertsatzeak hark emandako administrazio-egintza baliogabetzea dakar.
496c) Egintza bat ematerakoan egitezko errore bat egiteak administrazio-egintza deuseztatzea dakar.
496d) Organo bat errekusatzea administrazio-egintza baliogabetzeko arrazoia da.

497 Zer dira behin betiko egintzak?

497a) Instrukzio-organoari prozedura bultzatzeko aukera ematen dioten egintzak dira.
497b) Administrazio-bidea amaitzen duten egintzak dira, eta horien aurka ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean.
497c) Interesdunek planteatutako gaiak erabakitzen dituzten egintzak dira, baina ez dituzte prozeduraren ondoriozko beste batzuk kontuan hartzen.
497d) Administrazio-prozedura amaitzen dutenak dira, eta bai interesdunek agertutako gai guztiak, bai prozedura horretatik eratorritakoak erabakitzen dituzte.

498 Zer dira administrazio-bideari amaiera ematen dioten egintzak?

498a) Administrazio-bidean inolako errekurtsorik jarri ezin zaienak.
498b) Zuzenean zein zeharka gaiaren mamiaz erabakitzen dutenak.
498c) Administrazioarekiko auzietako organo judizialetan zuzenean aurkaratu daitezkeenak.
498d) Hierarkian beheragoko organoak ematen dituenak.

499 Zer egintza motak ez diote amaierarik ematen administrazio-bideari?

499a) Gora jotzeko errekurtsoa ordezten duten aurkaratze-prozeduren ebazpenek.
499b) Prozedurak amaitzen dituzten itun, hitzarmen edo akordioek.
499c) Ondare-erantzukizunaren arloko prozeduren ebazpenek.
499d) Mailaz goragoko organoren bat duten administrazio-organoen ebazpenek.

500 Aukera ezazu erantzun zuzena:

500a) 7/1985 Legean jasotzen dira Estatuko Administrazioan administrazio-bideari amaiera ematen dioten egintzak.
500b) Administrazio publikoen antolaketa- eta funtzionamendu-arauak ezartzen dituzten egintzak dira administrazio-bideari amaiera ematen diotenak.
500c) Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 114.2 artikuluan datoz jasota toki-administrazioan administrazio-bideari amaiera ematen dioten egintzak.
500d) 7/1985 Legearen 52.2 artikuluan arautzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-bideari amaiera ematen dioten egintzak.

501 Zer izapide-egintza aurkaratu daitezke autonomiaz eta zuzenean?

501a) Prozedura bultzatzeko balio eta interesdunei jakinarazten zaizkienak.
501b) Prozeduraren jarraipena ezinbestean baldintzatzen ez dutenak.
501c) Defentsa-gabezia eragiten dutenak.
501d) Gertakariak argitzen laguntzen dutenak.

502 Jar daiteke errekurtsorik administrazio-egintza irmoen aurka?

502a) Bai, baldin eta berrikuspen-errekurtso berezia jartzen bada legez ezarritako arrazoien arabera.
502b) Ez, sekula ez, errekurtsoa jartzeko epeak amaitu direlako.
502c) Bai, agintaritza judizialak administrazio-erabakia berretsi egin dezakeelako.
502d) Emandako beste egintza batzuk berresteko egintzak badira jar daiteke errekurtsoa.

503 Aukera ezazu erantzun zuzena:

503a) Egintza singularra interesdun zehatz bati dagokio nahitaez.
503b) Egintza plurala bat da prozedura batean baino gehiagotan ondorio juridikoak sortzen dituena.
503c) Egintza pluralak hartzaile jakin bat edo batzuk ditu.
503d) Egintza singular bat interesdun jakin bati edo batzuei dagokie.

504 Egintza baten edukiak elementu diskrezionalak baditu...

504a) Egintza baliogabea da ordenamendu juridikoarekin bat ez datorrelako.
504b) Egintza arrazoitu egin behar da, zuzenbidearekin bat datorrela bermatzeko.
504c) Administrazio-egintza elementu arautuak kontuan hartuta gauzatu behar da.
504d) Alde batera utzi behar dira egintzaren elementu arautuak, exekutatzeko.

ISBN: 978-84-7777-667-3

505 Nolakoa izan behar du administrazio-egintzaren edukiak?

505a) Baldintza bakarra dauka: gertaeretara egokitu behar da, eta gertaerek posibleak izan behar dute.
505b) Administrazio-egintzaren edukiak zehatza eta posiblea izan behar du, eta ordenamendu juridikoak ezarritako helburuetara egokitu behar du.
505c) Elementu arautuak eta diskrezionalak eduki behar ditu.
505d) Ordenamendu juridikoak ezarritako helburuetara egokitu behar da, baina zehaztu gabeko kasuetarako ere eman daiteke.

506 Aipatzen diren administrazio-egintzetatik, zein arrazoitu behar dira?

506a) Ahal arautuetan oinarritutako egintzak, kargak ezartzen dituztenak eta nahitaezko txostenekin bat ez datozenak.
506b) Aurretiazko txostenak berresteko egintzak eta eskubideak murriztea dakartenak.
506c) Prozedura bultzatzen duten izapide-egintzak, egintza diskrezionalak eta behin-behineko neurriak.
506d) Eskubide subjektiboak edo interes legitimoak mugatzen dituzten egintzak, administrazio-prozeduran behin-behineko neurriak hartzeko onesten direnak eta organo aholku-emaileek eman duten irizpenarekin bat ez datozenak

507 Aukera ezazu erantzun zuzena:

507a) Errekurtsoak edo ofiziozko berrikuspen-prozedurak ebazten dituzten egintzak ez dira arrazoitu behar.
507b) Arrazoitu egin behar dira zehapen-prozeduretako ebazpen-proposamenak, onartu nahi badira.
507c) Egintzak eteteko akordioak arrazoi espezifiko jakin batzuetan oinarritzen direnean arrazoitu behar dira.
507d) Ondare-erantzukizuneko prozeduretako ebazpen-proposamenak arrazoitu egin behar dira.

508 Zer baldintza bete behar dira lehia-konkurrentziako prozeduretako ebazpenak arrazoitzeko?

508a) Epaimahai kalifikatzaileak kasu bakoitzerako ezarritako irizpideari lotuko zaio ebazpena.
508b) Epaimahai kalifikatzaileak banan-banan arrazoituko du.
508c) Epaimahai kalifikatzaileak automatikoki aplikatuko ditu arautatako elementuak, inolako arrazoirik eman gabe.
508d) Deialdien arauak kontuan hartuta arrazoituko dira, eta onartzen den ebazpena egiaztatu egin behar da.

509 Nola agertu behar dute adierazita administrazio-egintzek?

509a) Oro har, ahoz adierazi daitezke, eta ez dago idatziz jaso beharrik.
509b) Kide anitzeko organoek emandako egintzak ahoz eman daitezke, eztabaidatu ondoren.
509c) Administrazio-egintzak idatziz emango dira, bitarteko elektronikoen bidez, eta beharrezkoa denean idatziz jasota utzi behar dira.
509d) Administrazio egintzak, oro har, idatziz jaso behar dira eta paperean.

510 Zer eduki behar dute administrazio-egintzek barne-egituran?

510a) Egintza zer organok eman duen, zer oinarri juridiko erabili diren, zer egunetan eman den eta sinadura.
510b) Ebazpenaren testu osoa, zer organok eman duen, zer egunetan eman den eta ebazpena jakinarazteko eta argitaratzeko zer baldintza bete behar diren.
510c) Aurrekariak, zer erabaki den, erabakia zer organok eta zein egunetan hartu duen.
510d) Forma-askatasunaren printzipioaren arabera, eskumena duen organoak beharrezkotzat jotzen dituenak jasoko ditu.

511 **Bildu daitezke zenbait administrazio-egintza egintza bakarrean?**

511a) Ez, kasu bakoitzerako arrazoitze espezifiko bat behar baita.
511b) Ezin da, ezin baitira pertsona multzo zehaztugabe batengana zuzendu.
511c) Organo eskudunak nori zuzenduta dauden zehazten duenean soilik bildu daitezke egintza bakarrean.
511d) Bai, izaera bereko egintzak badira, hala nola izendapenak edo lizentziak, eta organoak egintza horiek indibidualizatzeko inguruabarrak aurreikusten baditu.

512 **Zer kasutan geroratu daiteke administrazio-egintza baten efikazia?**

512a) Administrazioak kasuz kasu hala erabakitzen duenean, edozein zirkunstantzia tarteko.
512b) Egintza jakinarazten denean, baina ez argitaratu behar denean.
512c) Administrazioak kasuz kasu hala erabakitzen duenean, baina egintzaren edukia kontuan hartu gabe.
512d) Egintzaren efikazia jakinarazpenaren edo argitalpenaren mende dagoenean.

513 **Zer kasutan izan dezakete atzeraeragina administrazio-egintzek?**

513a) Egintza kaltegarriak direnean, baldin eta eman aurretik zeuden egoerei buruzkoak badira.
513b) Hartzaileentzat mesedegarriak diren ondorioak dituztenean, nahiz eta beste pertsona batzuen eskubide eta interes legitimoei kalte egin.
513c) Deuseztatutako beste egintza batzuen ordezkoak direnean.
513d) Aldeko egintzak direnean eta egintza atzera eramaten den unean nahitaez existitzen ez ziren egitatezko kasuei buruzkoak direnean.

514 **Aukera ezazu erantzun zuzena:**

514a) Administrazio-egintzak ezin dira eten, legezkotasun-presuntzioa dutelako.
514b) Administrazioak egintza baten efikazia eten dezake, egintza horretan deuseztasun-kausaren bat egon badaiteke.
514c) Administrazio-egintzak automatikoki eteten dira haien aurkako errekurtsoa aurkezten bada.
514d) Egintza eteteko eskatu eta 30 egun igaro ondoren, egintza eten egingo da automatikoki.

515 **Elementu hauetatik, zein ez dute eduki behar jakinarazpenek?**

515a) Ebazpenaren testu osoa eta errekurtsoa jartzeko epea.
515b) Ebazpenaren testu osoa, errekurtsoak jartzeko epeak, egintza eman duen organoa eta jakinarazpen-egilearen izena.
515c) Ebazpenaren testu osoa, errekurtsoak jartzeko epeak, errekurtsoak zein administrazio -organotan edo organo judizialetan aurkeztu behar diren eta administrazio-bidea agortzen duen ala ez.
515d) Ebazpenaren testu osoa, zer administrazio-errekurtso jar daitezkeen, errekurtsoa zein organotan jarri behar den eta administrazio-bidean behin betikoa den ala ez.

516 **Nori egin behar dizkio jakinarazpenak Administrazioak?**

516a) Ezagutzen dituen pertsona guztiei, salatzaileak barne.
516b) Interesdunei.
516c) Eskubide eta interes legitimoak dituzten pertsonei eta interes soil bat dutenei.
516d) Pertsona guztiei, emaitzarik gabeko jakinarazpenak argitaratu egin behar baititu.

ISBN: 978-84-7777-667-3

517 Noiz geratuko da zuzenduta jakinarazpen akastun bat?

517a) Interesdunak administrazio- edo jurisdikzio-bidean dagokion errekurtsoa jartzen duenean.
517b) Administrazioak interesdunak errekurtsoak jartzeko dituen bideak aipatzen ez dituenean.
517c) Interesdunak jakinarazpenaren edukia zein den badakiela erakusten duten jarduketak egiten dituenean.
517d) Jakinarazpenak ebazpenaren testu osoa jasotzen duenean eta interesdunak jakinarazpenaren aurkako dagokion errekurtsoa jartzen duenean.

518 Noiz jotzen da Administrazioak ebazpena epearen barruan jakinarazteko betebeharra bete duela?

518a) Lehen aldiz ebazpenaren testu osoa jakinarazten saiatu direla egiaztatu ondoren.
518b) Ebazpena bigarren aldiz jakinarazten saiatu ondoren; hau da, jakinarazpenaren abisua interesdunaren helbide partikularreko kutxatilan uzten duenean.
518c) Egintza argitaratzen den egunean, jakinarazpen-saiakera bik huts egin ondoren.
518d) Administrazioak bere betebeharra ez duela bete joko da, baldin eta interesdunak jakinarazpena jaso duela egiaztatzen ez badu.

519 Nor dago behartuta administrazioarekin harremanak bitarteko elektronikoz izatera?

519a) Guztiak, jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egitea lehentasunezkotzat jotzen baita.
519b) Pertsona juridikoak eta ahalmen teknikoagatik edo ogibideagatik administrazioarekin elektronikoki erlazionatzeko irispidea eta gaitasuna badutela egiaztatzen duten pertsona fisikoak.
519c) Pertsona juridikoak eta legeak aurreikusten dituen pertsona fisikoak, eta ez dute sarbide elektronikoa badutela egiaztatu beharrik.
519d) Administrazioak administrazio-egintza bidez erabakitzen dituen talde jakin batzuetako pertsona fisikoak.

520 Zer ondorio dute interesdunaren gailu elektronikora bidalitako abisuek?

520a) Jakinarazpen bat da, eta ondorio berberak ditu.
520b) Adierazten du adierazitako egunean eta orduan jaso behar duela jakinarazpena interesdunak etxean.
520c) Interesdunari adieraztea jakinarazpen bat daukala organismo edo administrazio jardulearen egoitza elektronikoan.
520d) Abisuari kasurik egiten ez bazaio, baliogabetu egingo da jakinarazpen elektronikoa.

521 Zer kasutan ez da jakinarazpen elektronikorik egin behar, nahiz eta kolektibo batzuentzat nahitaezkoa izan?

521a) Jakinarazpenek obligaziodunaren aldeko ordainbideren bat daramate.
521b) Zehapenak edo exekutatze aginduak jakinarazten badira.
521c) Jakinarazpenaren edukiak, formatu elektroniko bihur badaiteke ere, ulertzen zailak diren fitxategiak baditu.
521d) Administrazioak, kasuz kasu, jakinarazpena paperean egitea erabakitzen badu, prozeduraren izapidetzea hobetzeko.

ISBN: 978-84-7777-667-3



522 Aukera ezazu erantzun zuzena:

522a) Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egin behar zaizkie pertsona fisikoei beti, salbuespenik gabe.
522b) Jakinarazpena bitarteko elektronikoen ordez paperean ere egin daiteke interesduna erregistro-bulegoetara joan eta une horretan bertan pertsonalki jakinaraztea eskatzen badu.
522c) Jakinarazpenak bide elektronikoz jaso behar dituzten pertsonek uko egin diezaiokete jakinarazpenak bide hori erabiliz jasotzeari eta paperean egiteko eska dezakete.
522d) Bi jakinarazpen egin ondoren, bat paperean eta bestea elektronikoa, elektronikoak izango ditu beti ondorioak

523 Zer jaso behar da jakinarazpena egin dela egiaztatzeko?

523a) Jasotze-data, hartzailearen edo haren ordezkariaren identitatea eta jakinarazpenaren eduki osoa.
523b) Jasotze-data eta -ordua, interesdunak edo interesdunaren ordezkariak jaso duela eta eduki osoa.
523c) Bidaltzailearen eta hartzailearen identitate fidagarria, jakinarazpena hartu den eguna eta ordua eta eduki osoa.
523d) Interesdunaren edo haren ordezkariaren eta hartzailearen identitatea, eta jakinarazpena hartu den eguna eta ordua.

524 Non entregatuko da jakinarazpena?

524a) Ofizioz hasitako prozeduretan, interesdunak aldez aurretik adierazitako edozein lekutan.
524b) Interesdunak eskatuta hasitako prozeduretan, udal-erroldan agertzen den helbidean.
524c) Interesdunak eskatuta hasitako prozeduretan, hark eskabidean adierazitako helbidean.
524d) Administrazioak erabakiko du, lehenik, jakinarazpena egiteko lekurik egokiena zein den.

525 Zer bitarteko erabilita egin behar da jakinarazpena?

525a) Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da.
525b) Interesdunak edo ordezkariak jaso duela segurtatzeko aukera ematen duen edozein bitartekoren bidez, eta orobat egiaztatzen duena data, jakinarazitako egintzaren edukia eta interesdunaren identitatea.
525c) Jakinarazpena paperean egin behar da, eta posta-zerbitzu ofizialak erabilita.
525d) Administrazioak, bere gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta, kasu bakoitzean erabakitzen duen bitartekoa erabilita.

526 Zer ondorio ditu interesdunak jakinarazpenari uko egiteak?

526a) Administrazioak berriz egin behar dio jakinarazpena; bien bitartean geldiarazi egingo da prozedura.
526b) Interesdunak eskatutakoa ezetsi eta ebatzi egingo da prozedura.
526c) Izapidea betetzat joko da, baina prozedura geldiarazi egingo da interesdunak jakinarazpena modu frogagarrian jaso arte.
526d) Izapidea betetzat joko da, eta prozedurak jarraitu egingo du.

527 Nork jaso dezake paperean egiten den jakinarazpen bat?

527a) Hartzailearen etxean dagoen hamalau urtetik gorako edozein pertsonak.
527b) Hartzailearen etxean dagoen edonork.
527c) Jarduteko gaitasuna egiaztatuta duten pertsonek.
527d) Hartzaileak eta une horretan bere etxean dagoen edonork.

ISBN: 978-84-7777-667-3

528 Jakinarazpena inork jaso ezin badu, nola jokatu behar da?

528a) Beste ahalegin bat egingo da hurrengo hiru egunetan, edozein ordutan.
528b) Beste ahalegin bat egingo da, hurrengo bost egunen barruan arratsaldeko hiruretatik aurrera, lehenbiziko jakinarazpen-ahalegina ordu hori baino lehen egin bada, betiere hiru orduko tartea utzirik, gutxienez, bi ahaleginen artean.
528c) Jakinarazpena baztertutzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du.
528d) Beste ahalegin bat egingo da, hurrengo hiru egunen barruan, eta arratsaldeko hiruretatik aurrera, lehenbiziko jakinarazpen-ahalegina ordu hori baino lehen egin bada, betiere, gutxienez, hiru orduko tartea utzirik.

529 Nola jardun behar da egin beharreko ahaleginak egin eta jakinarazpena egiterik izan ez bada?

529a) Jakinarazpena egintzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du.
529b) Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da jakinarazpena.
529c) Jakinarazpena ez dela egin ulertuko da, eta Administrazioak behar beste ahalegin egingo ditu jakinarazpena benetan egin arte.
529d) Jakinarazpen-ohar bat argitaratuko da autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean.

530 Aukera ezazu erantzun zuzena:

530a) Paperean egiten diren jakinarazpenak ez dira zertan interesdunaren eskura jarri, jarduten ari den administrazioaren egoitza elektronikoan.
530b) Interesdunak jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez jasotzen badu, administrazioak hurrengo izapideetan jakinarazpenak bitarteko hori erabilita jasotzera behartuko du.
530c) Paperean egiten diren jakinarazpen guztiak interesdunaren eskura jarri behar dira jarduten ari den administrazioaren edo organismoaren egoitza elektronikoan.
530d) Interesdunak jakinarazpena paperean jasotzea aukeratu badu, prozeduran zehar ezingo du jakinarazpenak jasotzeko modua aldatu.

531 Nola egiten dira jakinarazpen elektronikoak?

531a) Diharduen administrazioaren edo organismoaren egoitza elektronikoan agertuz.
531b) Posta elektronikoko mezu baten bidez.
531c) Interesdunak adierazten duen helbide elektronikoaren bidez.
531d) Interesdunak adierazitako gailuetara bidalitako jakinarazpen-abisuen bidez.

532 Noiz joko da bitarteko elektronikoen bidez interesdunak jakinarazpena jaso duela?

532a) Administrazioak jakinarazpena interesdunaren eskura jartzen duenean, administrazio edo organismo jardulearen egoitza elektronikoan.
532b) Jakinarazpena administrazio edo organismo jardulearen egoitza elektronikoan eskura jarri zenetik hamar egun baliodunekoepean.
532c) Interesduna edukira sartu, eta edukia eskuratzen duenean, zein egun eta ordutan jasota utziz.
532d) Jakinarazpena interesdunaren eskura jartzen denean, gaitutako helbide elektroniko bakarrean.

533 Zer kasutan argitaratu behar dira administrazio-egintzak?

533a) Prozedura bakoitzaren arauek hala ezartzen dutenean.
533b) Jakinarazpen pertsonalek eragiten dituzten gastuak aurreztea komeni denean.
533c) Jakinarazpen pertsonala egin behar den kasu berberetan.
533d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

534 Aukera ezazu erantzun zuzena:

534a) Egintzak argitaratzeak ezin ditu jakinarazpenen elementu berberak izan behar.
534b) Egintza pertsona multzo zehaztugabe bati zuzentzen bazaio, ez dago zertan horietako bati edo batzuei jakinarazpena eginik.
534c) Lehia-konkurrentziako prozeduretako administrazio-egintza guztiak argitaratu egin behar dira.
534d) Egintza argitaratzeak jakinarazpenaren ondorio berberak izango ditu hautaketa-prozeduretan edo lehia-konkurrentziako prozeduretan.

535 Administrazioak erabaki dezake jakinarazpenaren eduki osoa ez argitaratzea?

535a) Ez, akatsak izango lituzkeelako, eta, beraz, baliogabea izango litzatekeelako.
535b) Bai, administrazioaren iritziz edukiak kalte egiten badie eskubide edo interes legitimoei.
535c) Bai, administrazioak egoki dela uste badu, eta aldizkari ofizialean egintzaren edukiaren azaleko adierazpen bat egiten badu.
535d) Ez, babesgabetasuna eragingo liokeelako hartzaileari.

536 Zer da administrazioaren autobabes-ahal betearazlea?

536a) Administrazioak duen ahalmen bat da, zeinaren bidez administrazioak ez baitu auzitegietara jo behar egintzak betearazteko.
536b) Administrazioak duen ahalmen bat da, eta berak emandako egintzen aurka aurkezten diren errekurtsoak ebazteko erabiltzen da.
536c) Ahalmen bat da, zeinak behartzen baitu administrazioa, bere egintzak betearazteko, justizia-auzitegien babesa izatera.
536d) Ahalmen bat da, zeinak aukera ematen baitio administrazioari egoera juridikoak epaitegietara jo beharrik gabe deklaratzeko.

537 Administrazio-egintza bat noiz <u>ez</u> da berehala betearaztekoa?

537a) Interesdunak dagokion errekurtsoa jartzen badu egintza horren kontra.
537b) Ebazpen irmo bidez zehapen bat ezartzen bada.
537c) Administrazioak, kasuz kasu, hala erabakitzen badu, interesdunak aurretik errekurtsorik jarri beharrik gabe.
537d) Xedapen batek hala ezartzen badu.

538 Egintzak Ogasun Publikoari ordainketa bat egin behar zaiola ezartzen badu…

538a) Ordainketa-betebeharra duenak egoki iritzitako eran egingo du ordainketa.
538b) Ordainketa-betebeharra duenak ebazpenaren kontrako errekurtsoa ebatzi arte itxaron dezake ordainketa egiteko.
538c) Ordainketa-betebeharra duenak 39/2015 Legean ezarritako bitartekoen bidez egin behar du ordainketa edo Ogasun Publikoaren gaian eskumena duen organoak baimendutako beste edozein bitartekoren bidez.
538d) Ordainketa-betebeharra duenak Ogasun Publikora jo behar du, ordainketa egiteko.

539 Zer egin behar du administrazio publikoak bere egintzak nahitaez betearazi aurretik?

539a) Betebeharra duten pertsonei ohartarazpena egin beharko die administrazioak, betebeharra betetzen ez badute nahitaez betearaziko duela adierazteko.
539b) Administrazioak ez du ezer egin behar, eta betebeharra berehala betearazteari ekin diezaioke.
539c) Agintaritza judizialaren laguntza beharko du egintza betearazten hasteko; horretarako, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsoa aurkeztu beharko du.
539d) Ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsoa ebatzi beharko du, baina aldez aurretik ezetsi egin beharko du.

ISBN: 978-84-7777-667-3

540 Administrazioak zein kasutan ezin du egintza baten nahitaezko betearazpena berehala hasi?

540a) Interesdunak zor duena ordaintzeko baliabide ekonomikorik ez duela adierazten duenean.
540b) Konstituzioak edo legeek organo judizialen esku-hartzea eskatzen dutenean.
540c) Inoiz ere ez. Ohartarazpena egiten bada, ez dago nahitaezko betearazpenari ekiteko inolako eragozpenik.
540d) Inguruabarrek betearazpena etetea gomendatzen dutenean, baldin eta betebeharra duen pertsonak hala eskatzen badu.

541 Noiz egin behar da ondarearekiko premiamendu bidezko nahitaezko betearazpena?

541a) Ezarritako betebeharra betetzekoa edo ez betetzekoa bada, eta guztiz pertsonala bada.
541b) Betebeharra zerbait egitea bada eta pertsonala ez bada.
541c) Diru-kopuru bat ordaindu behar bada.
541d) Betebeharra duen pertsonak bere eskubideak mugatzen dituen administrazioaren agindu bat betearazi behar badu.

542 Zer irizpide aplikatu behar du administrazioak nahitaezko betearazpenerako zer bitartekoa aukeratu erabakitzeko?

542a) Kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, eraginkorrena iruditzen zaiona aukera dezake.
542b) Legeak ezarritako irizpideak bete, eta askatasun indibiduala gutxien murrizten duena aukeratuko du.
542c) Behartutako pertsonen eskaerak erabili beharreko nahitaezko betearazpena kontuan hartuta ebatziko ditu.
542d) Legean ezarritako irizpideak aplikatu behar ditu, bere jardunaren proportzionaltasuna kontuan hartu gabe.

543 Zein kasutan aukeratu behar du administrazioak betearazpen subsidiarioa?

543a) Betebeharrak egintza guztiz ez pertsonalak gauzatzea dakarrenean.
543b) Ez egiteko edo diru-kopuru bat ordaintzeko betebeharra dagoenean.
543c) Betebeharra betebeharra duen pertsonak bakarrik bete behar duenean.
543d) Zerbait egiteko edo ez egiteko betebeharra ezartzen denean, eta betebeharra duenaz beste norbaitek egin dezakeenean.

544 Administrazioak pertsona bat legez kontra okupaturiko eraikin batetik atera behar badu indarra erabiliz, nahitaez betearazteko zer bitarteko erabili behar du?

544a) Betearazpen subsidiarioa.
544b) Hertsatzeko isuna.
544c) Ondarearekiko premiamendua.
544d) Pertsonak derrigortzea.

545 Aukera ezazu erantzun zuzena:

545a) Hertsatzeko isuna erabil daiteke egitekoak diren betebehar guztiz pertsonaletan edo guztiz pertsonalak ez direnetan.
545b) Betearazpen subsidiarioa betebehar guztiz pertsonalak betearazteko erabili behar da.
545c) Betearazpen subsidiarioak eragiten dituen kostuak administrazioak ordaindu behar ditu.
545d) Hertsatzeko isuna ezin da erabili betebeharra daukan pertsona zuzenean derrigortzea eskatzen duten egintzak betearazteko.

546 Zer epe du administrazioak administrazio-ebazpenak eman eta jakinarazteko?

546a) Sei hilabete.
546b) Hiru hilabete.
546c) Prozedura erregulatzen duen arauak ezartzen duena.
546d) Administrazioak, kasuz kasu, ezartzen duen epea, prozeduraren inguruabarrak kontuan hartuta.

547 Noiztik hasita zenbatzen dira administrazio-ebazpenak eman eta jakinarazteko gehieneko epeak?

547a) Ofizioz hasitako prozeduretan, prozedura hasteko erabakiaren egunetik aurrera.
547b) Interesdunak eskatuta hasitako prozeduretan, prozedura hasteko erabakia hartzen den egunetik aurrera.
547c) Ofizioz hasitako prozeduretan, interesdunak prozedura hasteko erabakiaren jakinarazpena jasotzen duen unetik.
547d) Interesdunak eskatuta hasitako prozeduretan, eskabidea izapidetzea onartzen den unetik aurrera.

548 Aukera ezazu erantzun zuzena:

548a) Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea automatikoki eteten da, froga konplexuak egin behar badira.
548b) Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea eten egin daiteke, administrazioak ebazpena jakinarazteko epea luzatzea erabakitzen badu.
548c) Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea eten egin daiteke, interesdun batek akatsak zuzendu behar baditu.
548d) Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea ezin da eten.

549 Luzatu daiteke prozedura baten ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea?

549a) Ez, ezinezkoa da, nahitaezko epeak direlako.
549b) Luzatu daiteke salbuespenez, ebazpena emateko eta jakinarazitako ezarritako epearen halako bi, gehienez ere.
549c) Erabaki daiteke epea luzatzea, baina errekurtsoa jar daiteke erabaki horren kontra.
549d) Luza daiteke epea, salbuespenez, administrazioak dituen baliabide pertsonal eta material eskuragarriak agortu direnean.

550 Noiz izaten da administrazio-isiltasun ezeslea edo negatiboa?

550a) Administrazio publikoen ondare-erantzukizuneko prozeduretan.
550b) Arau batek isiltasun ezeslea ezartzen duenean.
550c) Prozedura guztietan oro har, errekurtsoak ebatzi behar diren prozeduretan izan ezik.
550d) Ofizioz hasitako prozedurak izanik, interesdunentzako kargak ezartzen dituzten egintzak ematen direnean.

551 Administrazio-isiltasuna baieslea edo positiboa bada, zer ondorio izan behar du epez kanpo emandako ebazpenak?

551a) Baieslea edo ezeslea izan daiteke, prozedura motaren eta egintzaren ondorioen arabera.
551b) Berandu emandako ebazpena administrazio-isiltasunaren berresteko baino ezin da izan.
551c) Prozeduraren iraungitzea gertatuko da.
551d) Ez da pentsatuko administrazioak prozedura amaitzeko ebazpena eman duenik.

ISBN: 978-84-7777-667-3

552 **Zer ondorio dakar administrazio-isiltasunagatik eskabide bat ustez ezesteak?**

552a) Eskaera atzera bota dela jotzen da, prozedura amaitzen duen egintza balitz bezala.
552b) Dagozkion errekurtsoak jar daitezke, prozedura amaitzen duen ebazpentzat jotzen delako.
552c) Ez da prozedura amaitzen duen egintzatzat hartzen, eta dagozkion errekurtsoak aurkez daitezke.
552d) Prozedura berriz hasi behar da, interesdunaren nahiak ukatu egin direlako.

553 **Zehapen-prozedura batean, ebazpena jakinarazteko gehieneko epea amaitzen bada, zer ondorio izango du administrazio-isiltasunak?**

553a) Prozedura iraungi egingo da, eta jarduketak artxibatu egingo dira.
553b) Administrazioak inkulpatua absolbitu egin duela ulertuko da.
553c) Prozedura iraungi egingo da, eta administrazioak ezin izango du inola ere beste prozedura bat abiarazi.
553d) Kondenatzeko ebazpen-proposamenari eutsiko zaio, eta dagokion zigorra ezarriko da.

554 **Aukera ezazu erantzun zuzena:**

554a) Administrazio-egintzak presuntzioz baliozkotzat joko dira, eta agintaritza judizialak erabakitzen duenean sortuko dituzte ondorioak.
554b) Administrazio-egintzak presuntzioz baliozkotzat joko dira ematen diren unetik beretik.
554c) Administrazio-egintzek iuris tantum presuntzioa dute, eta, beraz, ez dute kontrako frogarik onartzen.
554d) Administrazio-egintzak dagokion errekurtso judiziala aurkeztu ondoren baino ezin dira baliogabetu.

555 **Egintza hauetatik zein da egintza erabat deuseza?**

555a) Epeei buruzko arauak urratu dituen administrazio-egintza.
555b) Aginte-desbideratzea egin duen administrazio-egintza.
555c) Forma-betekizunak betetzen ez dituen administrazio-egintza.
555d) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz eman den administrazio-egintza.

556 **Zer motatako baliogabetasuna dakar administrazioak epeak ez betetzeak?**

556a) Epeak ez betetzeak ez dakar baliogabetasunik.
556b) Legez ezarritako epeak betetzen ez dituen egintza erabat deuseza izango da.
556c) Egintza deuseztagarria izango da epearen izaerak hala eskatzen duenean.
556d) Egintza deuseztagarria izango da eta ezingo da baliozkotu.

557 **Zer egintza baliozkotu ditzake administrazioak?**

557a) Ekintza deuseztagarriak.
557b) Egintza erabat deusezak.
557c) Egintza baliogabeak ezin dira baliozkotu.
557d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 27. gaia

558 Zer da administrazio-espedientea?

558a) Zehapen bat.
558b) Dokumentuen eta jarduketen multzo bat, administrazio-ebazpenaren oinarri izateko balio duena.
558c) Egoera juridiko bat deklaratzera bideratutako jardueren multzoa, egoera horri amaiera ematen dion ebazpena betearazi gabe.
558d) Prozedura desberdinei erreferentzia egin diezaieketen eta haien artean truka daitezkeen dokumentuen multzoa.

559 Aukera ezazu erantzun zuzena:

559a) Administrazio-prozedura erkideari buruzko arauek administrazio-prozedura guztietan bete beharreko izapide guztiak arautzen dituzte.
559b) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotzen diren izapide guztiak bete behar dituzte prozedura guztiek.
559c) Administrazio-prozedura erkideak prozedura-arau eta -berme batzuk jasotzen ditu, administrazio-prozedura guztietan bete beharrekoak.
559d) Estatuak administrazio-prozeduraren antolaketa- eta prozedura-alderdi guztiak arautuko ditu.

560 Administrazio-prozedurari buruzko zer arau aplikatzen zaie zuzenbide pribatuko erakunde publikoei?

560a) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.
560b) Kode Zibila eta haren araudi osagarria.
560c) Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.
560d) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean berariaz zuzenbide pribatuko erakunde publikoei buruz jarduten duten arauak.

ISBN: 978-84-7777-667-3

561 Zer arauk arautzen ditu elkargo profesionalak?

561a) Haien araudi espezifikoek funtzio publikoak betetzeko orduan, eta, osagarri gisa, 39/2015 Legeak.
561b) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak, eta, osagarri gisa, 39/2015 Legeak.
561c) Haien araudi espezifikoek, funtzio publikoa betetzeko orduan izan ezik; kasu horretan, lehentasunez, 39/2015 Legea aplikatzen da.
561d) Lurralde-administrazio bat direnez, 39/2015 Legea aplikatzen zaie.

562 Administrazio-prozedura hauetatik, zein zuzentzen da bere araudi espezifikoaren arabera?

562a) Tributu-gaietako zehapen-prozedura eta administrazio publikoei ondare-erantzukizuna eskatzeko prozedura.
562b) Atzerri eta asilo gaietako prozedurak eta zehapen-prozedura ez-tributarioa.
562c) Lan-arloko eta trafikoaren arloko zehapen-prozedurak.
562d) Legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala egokitu behar diren prozedurak.

563 Hauetatik, nork du administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna?

563a) Pertsona juridikoek eta adin nagusiko pertsona fisikoek.
563b) Pertsona juridikoek, adin nagusiko pertsona fisikoek eta adingabeek, ordenamendu juridikoaren araberako jarduera jakin batzuetarako.
563c) Pertsona juridikoek eta administrazioak bere aurrean jarduteko behar bezala gaitutako pertsona fisikoek.
563d) Edozein prozedura motak ukitzen dituen taldeek.

564 Zer da ahala?

564a) Administrazioak botere bat zuzenbidearen gai edo arlo jakin batean erabiltzeko duen eskubidea da.
564b) Administrazioak prozedura espezifikoak izapidetzeko duten botere zehatza da.
564c) Ordenamendu juridikoak administrazioari oro har aitortzen dion ahala da.
564d) Administrazioak pertsona espezifiko batzuei obligazio bat eskatzeko duen eskubidea da.

565 Aukera ezazu erantzun zuzena:

565a) Eskubide subjektiboak pertsona botere-egoeran jartzen du, baina horrek ez du esan nahi eskubide hori bete dadin exijitzeko aukerarik dagoenik.
565b) Pertsona baten interes bakunak bere jarrera defendatzeko aukera ematen dio, kalte egiten dion edo mesede egiten dion prozedura baten aurrean.
565c) Pertsona batek interes legitimoa izango du administrazio-jarduketa jakin batek bere interesei eragiten diela uste izan eta haren aurka egin badezake.
565d) Eginbehar bat betetzea harreman juridiko jakin batean oinarritzen da.

566 Prozedura batean, zein dira interesdunak?

566a) Eskubideen titular gisara prozedura bultzatzen dutenak edo interes lausoak dituztenak.
566b) Interes bakun bat izan eta administrazioari legea betetzea exijitzen diotenak.
566c) Interes ekonomiko eta sozialak ordezkatzen dituzten elkarteak, lege edo erregelamendu batek aitortutako moduan.
566d) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimoak dituztenak, prozeduran agertzen badira.

**567 Administrazioak interesdun guztiei jakinarazi behar al die prozedura bat izapidetzen ari dela?**

567a) Ez, espedientearen arabera interesdun direla dakienei bakarrik.
567b) Bai, bestela babesgabetasuna eragingo lieke izapideen berri ematen ez dienei.
567c) Bai, prozedura izapidetzen den bitartean balia ditzaketen eskubideak dituztelako.
567d) Ez, prozeduran agertu diren interesdunei bakarrik.

**568 Eskubide hauetatik, zein ez dagokio interesdun denari?**

568a) Prozedurak izapidetzeko ardura duten administrazio publikoetako agintari eta langileak identifikatzeko eskubidea.
568b) Ordainketa-betebeharrak 39/2015 Legean aurreikusitako bitarteko elektronikoen bidez betetzeko eskubidea.
568c) Zehapen-prozedura bat hasteko eskubidea, interesdunaren ustez legearen arabera administrazioko arau-hauste gisa tipifikatutako egitateak gertatzen direnean.
568d) Administrazio publikoek dauzkaten datuak edo dokumentuak ez aurkezteko eskubidea.

**569 Pertsona hauetatik nor ez dago behartuta administrazioarekin harremana bitarteko elektroniken bidez izatera?**

569a) Abokatu gisa jarduten dutenak.
569b) Administrazio publikoetako enplegatuak, enplegatu publiko izateagatik administrazio publikoekin egiten dituzten jardueretarako.
569c) Prozeduran interesdun direnen ordezkariak.
569d) Pertsona juridikoak.

**570 Zein kasutan da nahitaezkoa sinadura elektronikoa erabiltzea administrazio-prozedurak izapidetzeko?**

570a) Alegazioak aurkezteko eta dokumentuak entregatzeko, ebazpena emateko ezinbestekoak izan ala ez.
570b) Administrazioari eskabideak egiteko eta erantzukizunpeko adierazpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezteko.
570c) Administrazioko jakinarazpenak jasotzeko.
570d) Interesdunaren izenean jardungo duen ordezkari bat izendatzeko.

**571 Pertsona batek administrazioarekin harremanak izateko baliabide elektronikorik ez badu baina prozedura bide elektronikoak erabilita izapidetzea erabakitzen badu, zer egin dezake?**

571a) Administrazioarekin harremanak izatera behartuta dauden ala ez, administrazioak laguntza emango die identifikazioari eta sinadura elektronikoari dagokienez.
571b) Interesdunek behar dituzten bitarteko elektronikoak erosi beharko dituzte. Hala egiten ez badute, izapideak egiteko eskubidea galduko dute.
571c) Ezingo dute bide elektronikoa erabili, batetik, horretara behartuta ez daudelako eta, bestetik, beharrezko bitartekoak ez dituztelako.
571d) Administrazioarekin harreman elektronikoa izatera behartuta ez dauden interesdunek laguntza jaso behar dute beren eskaera erregistro elektronikoaren bidez aurkezteko.

**572 Aipatzen diren zer izapidetarako egiaztatu behar da ordezkaritza?**

572a) Alegazioak aurkezteko.
572b) Ebazpena emateko ezinbesteko izapideak egiteko.
572c) Eskabideak aurkezteko eta errekurtsoak ipintzeko.
572d) Eskabideak zuzentzeko.

ISBN: 978-84-7777-667-3

573 Egin daiteke edozein izapide izapidea egiten den unean ordezkaritza egiaztatu beharrik gabe?

573a) Bai, baldin eta hamar eguneko epean egiaztatzen bada, eta ordezkaritza egiaztatu behar den izapidea bada.
573b) Ez, zenbait izapidek ordezkaritza nahitaez berehala egiaztatu behar izatea exijitzen baitute.
573c) Bai, interesdunak, entzunaldiaren izapidearen aurretik, prozeduraren edozein unetan egiazta dezake ordezkaritza.
573d) Ez, inoiz ere ez.

574 Aukera ezazu erantzun zuzena:

574a) Ahalordetzeen erregistro elektronikoak ez dute nahitaez elkarreragingarriak izan behar, administrazio bakoitzak horrelako bat eduki behar baitu.
574b) Ahalordetzeen erregistro elektronikoan inskribatutako ahalordeek gehienez ere hiru urterako balio dute.
574c) Administrazioek baimenduta dauden pertsona fisiko edo juridikoak gaitu ditzakete zenbait transakzio elektroniko egiteko.
574d) Administrazioak pertsona jakin batzuei beste batzuk ordezkatzeko baimena ematen badie ere, edozein unetan egiaztatu beharko dute ordezkari direla.

575 Hauetako zein ez da prozedura bat ebazterakoan abstenitzeko arrazoi bat?

575a) Interesdunak laugarren gradurainoko odolkidetasuna du prozedura ebazteko eskumena duenarekin.
575b) Prozeduran interesdun dena ebazteko eskumena duenaren aholkulari fiskal izan zen.
575c) Interesduna ebazpena emateko eskumena duenaren etxeko langilea da.
575d) Interesduna duela hiru urte epai irmo bidez amaitutako prozedura batean eskumena zuenari kalte-ordaina ordaintzera kondenatu zuten.

576 Prozedura ebazteko ardura duen pertsonak parte ez hartzeko edo abstenitzeko arrazoiren bat badu eta, hala ere, abstenitzen ez bada, zer ondorio izango du horrek azken ebazpenean?

576a) Ebazpena erabat deuseza da, babesgabetasuna eragiten duelako.
576b) Ebazpena deuseztagarria da, prozeduraren akats formal bat delako.
576c) Ebazpena baliozkoa izango da, haren aurkako errekurtsoak jar baitaitezke.
576d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

ISBN: 978-84-7777-667-3


# 28. gaia

**577 Zer helburu du prozeduran behin-behineko neurriak hartzeak?**

577a) Azken ebazpena eman ondoren hartu beharreko neurriak zehaztea.
577b) Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena eraginkorra dela ziurtatzea.
577c) Prozeduraren instrukzio-fasean izandako gertakariak argitzea.
577d) Interesdunei jakinarazpenak egiten zaizkiela eta prozeduran parte hartzen dutela bermatzea.

**578 Prozedura hasi aurretik, behin-behineko neurriak hartuta daudela...**

578a) Eskumena duen organoak neurri horiei eutsiko dien, aldatuko dituen edo kenduko dituen erabaki beharko du hamabost eguneko epean.
578b) Eutsi egingo zaie neurriei prozedura, ebazpen irmo bidez, amaitzen den arte.
578c) Hamabost eguneko epean eskumena duen organoak neurriei eutsi behar dien erabakitzen ez badu, interesdunek iraungitzeko eskatu beharko dute.
578d) Ebazteko eskumena duen organoak neurri horiei eutsiko dien, aldatuko dituen edo kenduko dituen erabakiko du hogei eguneko epean, interesdunei entzun gabe.

**579 Aukera ezazu erantzun zuzena:**

579a) Behin-behineko neurrien edukia eta irismena Prozedura Kriminalaren Legearen arabera zehaztuko dira.
579b) Behin-behineko neurriak ezingo dira aldatu prozedura izapidetzen ari den bitartean.
579c) Behin-behineko neurriak ondoriorik gabe utzi ahal izango dira prozedura izapidetzen den bitartean, ofizioz edo alderdi batek eskatuta.
579d) Organo eskudunak behin-behineko neurriak har ditzake, eragin ditzaketen kalteak kontuan hartu gabe.

**580 Pertsona batek salaketa bat aurkezten badu administrazioaren aurrean, zer ondorio izango ditu?**

580a) Zehapen-prozedurari edo prozedura penalari emango zaio hasiera, administrazioko arau-haustea edo delitua diren egintza baita.
580b) Ez da prozedura abiaraziko, salaketaren aurretik beste era bateko jarduketa batzuk egin behar direlako.
580c) Une horretatik aurrera espedientearen instrukzioari ekingo zaio.
580d) Organo eskudunak dagokion administrazio-prozedura hastea edo ez erabakiko du, eta erabakia arrazoitu egingo du.

ISBN: 978-84-7777-667-3

581 Zer ondorio ditu salatzailearentzat salaketa bat aurkezteak?

581a) Alegazioak aurkez ditzake administrazio-prozeduran.
581b) Salatzaileak parte hartu badu arau-haustea egiten, salbuetsi egin daiteke zehapena betetzetik prozedura hasteko aukera ematen duten froga-elementu garrantzitsuak aurkezten baditu.
581c) Ez zaio prozedura hasteko erabakiaren berri emango.
581d) Salaketa aurkeztu ondoren, eta arau-haustea egiten parte hartu badu, arau-hauste horrek eragindako kalte-galerak konpontzetik salbuetsiko da.

582 Elementu hauetako zein <u>ez</u> da nahitaez eskabidean agertu behar?

582a) Eskatzailearen izen-abizenak.
582b) Eskaera administrazioko zer organori zuzentzen zaion.
582c) Eskaeraren egitateak eta oinarri juridikoak egiaztatzen dituen dokumentazioa.
582d) Eskaeraren oinarri juridikoa.

583 Leku hauetako zeinetan <u>ezin</u> da eskabide bat aurkeztu?

583a) Edozein administrazio publikoren erregistro elektronikoetan.
583b) Aurrez aurreko arreta eskaintzen den administrazio publikoen edozein bulegotan.
583c) Ebazpena emateko eskumena duten administrazio publikoen erregistro elektronikoetan.
583d) Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.

584 Eskabidea paperean aurkezten bada, zer egin behar du administrazioak?

584a) Eskabideari zigilua ezarri, eta interesdunari kopia bat eman behar dio, erregistroan sarrera zer egunetan eta ordutan eta zer administrazio-bulegotan eman zaion adierazteko.
584b) Dokumentua digitalizatu egin behar du, espediente elektronikoari gehitzeko, eta dokumentuaren kopia elektroniko bat itzuliko dio eskatzaileari, dokumentua aurkeztu duela eta zein egunetan eta ordutan aurkeztu duen egiaztatzeko, eta erregistroko sarrera-zenbaki bat emango dio.
584c) Dokumentuaren kopia bat itzuli behar dio paperean, non jaso behar baita zer egunetan, ordutan eta erregistro-bulegotan aurkeztu duen, eta zer sarrera-zenbaki eman zaion.
584d) Sarrera eman behar dio erregistroan eta paperean artxibatu, eta bermatu idazpena jasota geratu dela, baita zer egunetan eta ordutan aurkeztu den eta interesduna nor den ere.

585 Pertsona batek eskabidea paperean aurkezten badu, baina administrazioarekin harremanetan jartzeko bide elektronikoak erabili behar baditu, zer egin behar du administrazioak?

585a) Eskabidea ez onartutzat joko du, administrazio publikoarekin harremanetan bide elektronikoak erabilita jartzeko betebeharra ez betetzeagatik.
585b) Eskabidea onartuko du, baina akatsa hamar egun baliodunek epean konpontzeko eskatuko dio.
585c) Eskatzaileari eskabidea bide elektronikoak erabilita aurkezteko eskatuko dio, eta, horretarako, bost egun baliodun emango dizkio.
585d) Eskatzaileari hamar eguneko epea emango dio eskabidea bide elektronikoz aurkezteko. Kasu horretan, zuzenketa egin den eguna hartuko da eskabidearen aurkezpendatatzat.

586 Aukera ezazu erantzun zuzena:

586a) Aurretiazko komunikazioa aurkeztu ondoren, administrazioak prozedura erregulatzen duen arauan ezarritako epea du ebazpena eman eta jakinarazteko.
586b) Erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duenak datu faltsuak ematen baditu, administrazioak zehapen-prozedura bat irekiko dio, baina horrek ez dio egiten duen jarduerari eragingo.
586c) Administrazio-prozedura ezin da geldiarazi, organo baten errekusazioa ebazteko ez bada.
586d) Interesdunari hamar eguneko epea ematen bazaio izapide bat egiteko, izapideak egiteko eskubidea bertan behera geratuko da, baldin eta, epea amaituta, eskubide hori galdu duela jakinarazi baino lehen izapidea betetzen badu.

587 Zer eratako izapideak egingo dira egintza bakar batean?

587a) Batera bultza daitezkeen eta nahitaez bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapideak.
587b) Batera bultza daitezkeen eta bata bestearen ondoren bete behar diren izapideak.
587c) Batera bultzatu ezin diren eta nahitaez bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapideak.
587d) Batera bultzatu ezin diren eta bata bestearen ondoren bete behar diren izapideak.

588 Interesdunek, baldin eta dagokion arauak beste eperen bat ezartzen ez badu, zer epetan egin behar dituzte izapideak, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita?

588a) Hogei egun.
588b) Hamabost egun.
588c) Hamar egun.
588d) Bost egun.

589 Auziak bideratzerakoan, nola jokatu behar da?

589a) Prozedurak hasi diren hurrenkerari jarraitu behar zaio zorrotz, antzeko izaera duten auziak izan edo ez, salbuespenik gabe.
589b) Antzeko izaera duten auzietan, zorrotz gordeko da prozedurak hasi diren hurrenkera, salbuespenik gabe.
589c) Prozedurak hasi diren hurrenkerari jarraitu behar zaio zorrotz, antzeko izaera duten auziak izan edo ez, administrazio-organoaren titularrak ebazpen arrazoitua eman ezean.
589d) Antzeko izaera duten auzietan, zorrotz gordeko da prozedurak hasi diren hurrenkera, administrazio-organoaren titularrak ez badu beste ezer ebazten, betiere horretarako arrazoiak emanda.

590 Interesdunek administrazio-espedientean bildurik dauden dokumentuak kontsultatzeko, erkatzeko edo aztertzeko baimena izatea eta haiei buruz egoki iritzitako azalpenak ematea; zeren adierazpena da?

590a) Ofizioz bultzatzearen printzipioa.
590b) Entzunaldi-izapidea.
590c) Bizkortasun-printzipioa.
590d) Informazio publikorako izapidea.

591 Ordutan adierazitako epeak...

591a) Debekatuta daude oro har Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean.
591b) Hogeita lau ordu baino gehiago iraun dezakete.
591c) Orduz ordu eta minutuz minutu zenbatuko dira dena delako egintza jakinarazten edo argitaratzen den ordu eta minututik aurrera.
591d) Ez dira zenbatuko dagokien administrazio-erregistroaren bulego-ordutegitik kanpo.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**592 Europar Batasuneko arau batek edo lege-mailako arau batek besterik ezarri ezean, zein dira egun baliodunak?**

592a) Larunbatak, igandeak eta jaiegunak izan ezik, gainerako guztiak.
592b) Igandeak eta jaiegunak izan ezik, gainerako guztiak.
592c) Ostiral arratsaldeak, larunbatak, igandeak eta jaiegunak izan ezik, gainerako guztiak.
592d) Egun guztiak.

**593 Hilabetetan adierazitako epe batean, muga-eguneko hilean ez bada hasierako egunaren baliokiderik, noiz bukatuko da epea?**

593a) Epea hurrengo hilabeteko lehen egunean bukatzen dela joko da.
593b) Epea hilaren azken egunean bukatzen dela joko da.
593c) Epea beste hiru egunez luzatuko da, hilaren azken egunetik kontatzen hasita.
593d) Epea beste bost egunez luzatuko da, hilaren azken egunetik kontatzen hasita.

**594 Administrazioaren erregistro elektroniko batean egun baliogabean aurkeztutako dokumentuak...**

594a) Ez dira kontuan hartuko dagokion prozedura izapidetzean.
594b) Interesdunak geroago aurrez aurre aurkezten baditu bakarrik sartuko dira espedientean.
594c) Epez kanpo aurkeztu direla joko da.
594d) Hurrengo egun baliodunean aurkeztutakoak baino lehenagokotzat joko dira.

**595 Zer kasutan luza ditzake administrazioak prozeduren epeak?**

595a) Ofizioz edo interesdunek aldez aurretik eskatuta, kontrako agindurik izan ezean.
595b) Ofizioz hasitako prozeduretan baino ez.
595c) Alderdi batek eskatuta hasitako prozeduretan baino ez.
595d) Europar Batasuneko Zuzenbideko arau batek edo lege-mailako arau batek berariaz aurreikusten duen kasuetan baino ez.

**596 Zenbat murriztu ditzake administrazioak prozedura arrunterako ezarritako epeak urgentziazko izapidetzean?**

596a) Epeak erdira laburtuko dira, izapide guztietan.
596b) Epeak erdira laburtuko dira, eskabideak eta errekurtsoak aurkeztekoak izan ezik.
596c) Epeak erdira laburtuko dira, eskabideak eta errekurtsoak aurkeztekoak eta beste administrazio-organo batzuek ematen dituzten txostenenak izan ezik.
596d) Egoki jotzen duen bezainbeste, interes publikoko arrazoiek hala gomendatzen badute.

**597 Kontrakorik berariaz xedatu ezean, nolakoak izaten dira txostenak, oro har?**

597a) Nahitaezkoak eta lotesleak.
597b) Nahitaezkoak eta ez-lotesleak.
597c) Aukerakoak eta ez-lotesleak.
597d) Aukerakoak eta lotesleak.

**598 Interesdunek noiz egin ditzakete alegazioak eta aurkeztu dokumentuak edo bestelako irizpen-elementuak?**

598a) Prozeduraren edozein urratsetan, entzunaldi-izapidearen ostean.
598b) Prozeduraren edozein urratsetan, entzunaldi-izapidea egin baino lehen.
598c) Prozeduraren instrukzio-egileak irekitako frogaldian bakarrik.
598d) Prozeduraren instrukzio-egileak frogaldia ireki aurreko edozein unetan.

**599 Prozedura baten instrukzio-organoak noiz bazter ditzake interesdunak proposatutako frogak?**

599a) Argi eta garbi desegokiak edo alferrikakoak direnean.
599b) Administrazioari gastu ekonomikoak dakarzkionean.
599c) Alderdi interesdunak frogak noiz egin behar diren ados jartzen ez direnean.
599d) Interesdunak prozedura irekitzeko aurkeztutako hasierako eskabidean proposatu ez direnean.

**600 Prozedura baten instrukzio-organoak interesdun batek proposatutako froga bat baztertzen badu...**

600a) Errekurri ezina da erabaki hori.
600b) Ebazpen arrazoitu bat eman behar du.
600c) Interesdunaren funtsezko eskubide bat urratzen da automatikoki.
600d) Prozeduran ematen den azken ebazpena erabat deuseza izango da.

**601 Zein kasutan utzi daiteke egin gabe entzunaldi-izapidea administrazio-prozeduran?**

601a) Beti, instrukzio-organoak emandako ebazpen arrazoituaren bidez.
601b) Interesdun bat baino gehiago egon eta alderdi gehienek izapidea ez egitea erabakitzen dutenean.
601c) Aurretik frogak egin edo aurkezten direnean.
601d) Espedientean interesdun bakar batek aurkeztutako dokumentuak bakarrik agertzen direnean.

**602 Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean, zer epe dago entzunaldi-izapiderako?**

602a) Gehienez hamabost egun eta gutxienez hamar egun.
602b) Gehienez hogei egun eta gutxienez hamar egun.
602c) Gehienez hogei egun eta gutxienez hamabost egun.
602d) Gehienez hogeita hamar egun eta gutxienez hamabost egun.

**603 Informazio publikoaren izapidean parte hartzen duten pertsonek:**

603a) Interesdun izango dira ondorio guztietarako prozeduraren barruan.
603b) Ezin izango dute prozeduran ematen den azken ebazpena errekurritu, izapide horretan arrazoiak jasoarazi ez bazituzten.
603c) Gutxienez, hogei eguneko epea izango dute izapide horren barruan alegazioak egiteko.
603d) Interesdun izan behar dute, bai espedientea aztertzeko, bai izapide horren barruan alegazioak egiteko.

**604 Ebazpen-proposamena dela eta, zein baieztapen da zuzena?**

604a) Amaiera ematen dio administrazio-prozeduraren izapideari.
604b) Galarazi egiten dio ebazpena eman behar duen organoari ikerketa-jarduera gehigarriak egitea.
604c) Ez du organo eskuduna ebazpena ematera lotzen, zeinak aplikatzekoak diren arauen bestelako interpretazio bat egin baitezake.
604d) Ebazteko eskumena duen organoak ematen du, eta prozeduraren instrukzio-egileari jakinarazi behar zaio.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**605 Prozedura baten emaitzak administrazioaren alde bakarreko erabaki baten ondorio izan ordez, administrazioaren eta interesdunaren arteko borondate-akordio baten ondorio badira, zer izen hartzen du egoera horrek?**

605a) Prozeduraren amaiera informala.
605b) Administrazioak atzera egitea.
605c) Prozedura gerora sortutako arrazoiengatik amaitzea.
605d) Prozeduraren amaiera itundua.

**606 Administrazio-prozeduran, zer esan nahi du kongruentzia-printzipioak?**

606a) Ebazpenak arrazoitua izan behar duela beti.
606b) Ebazpenak alderdi interesdunek eskatutakoari edo prozeduratik eratorritako gaiei erantzun behar diela.
606c) Ebazpenaren edukiak ezin duela ebazpen-proposamenean xedatutakoa aldatu.
606d) Administrazioa behartuta dagoela ebaztera, eta ezin duela alegatu kasuan aplikatu beharreko arauen iluntasuna.

**607 Administrazioak ebazpena eman aurretik, interesdunek, gaiarekin lotura izan arren, planteatu ez dituzten auziak agertzen badira prozeduran, zer gertatuko da?**

607a) Administrazio-organoak ezingo du ebazpenik eman.
607b) Egindako jarduketa guztiak deusez deklaratu behar dira, eta prozedurari hasieratik ekin, berriz ere.
607c) Organo eskudunak haiei buruzko ebazpena eman ahal izango du, baina, horretarako, interesdunei entzunaldia eman beharko die, gai horiek agerian ipintzeko eta alderdiek egokitzat jotzen dituzten alegazioak eta frogabideak aurkeztu ahal izateko.
607d) Administrazio-organoak ebazpena eman dezake, baldin eta berariaz adierazten badu planteatu gabeko auzi horien kontra berariazko errekurtsoa jar daitekeela administrazio-bidean.

**608 Zer esan nahi du reformatio in peius debekuak?**

608a) Ebazpenak ez duela okerragotu behar errekurtsoa jartzen duen edo administrazioari zerbait eskatzen dion pertsonaren egoera juridikoa.
608b) Ezin dela errekurtso administratibo edo judizialik jarri eskubideak aitortzen dituzten administrazio-egintzen aurka.
608c) Ezin dela administrazio-xedapen orokor bat erreformatu.
608d) Ezin dela administrazio-ebazpen bat ofizioz berrikus dadin eskatu.

**609 Administrazioa:**

609a) Ez dago behartuta ebaztera, aplikatu beharreko arauen isiltasunaren kasuan.
609b) Ez dago behartuta ebaztera, aplikatu beharreko arauen iluntasunaren kasuan.
609c) Ez dago behartuta ebaztera, aplikatu beharreko arauen gutxiegitasunaren kasuan.
609d) Behartuta dago ebaztera, eta ezin du alegatu kasuan aplikatu beharreko arauen isiltasuna, iluntasuna edo gutxiegitasuna, baina erabaki dezake ordenamendu juridikoan aurreikusi gabeko eskubideak aitortzeko eskabideak ez onartzea.

**610 Interesdun batek aurkeztutako eskaeran atzera egin nahi badu:**

610a) Administrazioak ez du inolako ebazpenik eman beharrik prozedura horretan.
610b) Administrazio-prozedura ofizioz artxibatuko da, nahiz eta erabaki horrek prozedurarekin jarraitu nahi duten beste interesdun batzuei eragin.
610c) Gerta liteke administrazioak ez onartzea atzera egitea, eta jarduketekin jarrai dezaten behartzea, izapidetik interes publikoko kasuak ondoriozta badaitezke.
610d) Administrazioa ez da salbuesten gaiaren funtsari buruzko ebazpen bat emateko obligaziotik.

611 **Interesdunak eskaturik hasitako prozedura batean, interesdunak ebazpena emateko ezinbestekoak diren zenbait tramite ez egiteagatik administrazioak prozedura iraungitzat jo aurretik zer epe eman behar dio izapideak bete ditzan?**

611a) Hiru hilabete.
611b) Hamar egun.
611c) Hogei egun.
611d) Hilabete.

612 **Zehapen-prozedura batean, zer gertatuko da prozedura izapidetzen hasi eta administrazio-ebazpena ematen ez bada prozedura erregulatzen duen arauan ezarritako epean?**

612a) Administrazio-zehapen arinena ezarri dela joko da, administrazio-isiltasunez.
612b) Izapidetze-epea luza daiteke, instrukzio-organoak hala erabakitzen badu.
612c) Prozedura hasteko erabakian jasotako administrazio-zehapena ezarriko da, baldin eta behar bezala jakinarazi bada.
612d) Administrazioak prozedura amaitutzat jo behar du eta espedientea artxibatu, eta ezingo du interesduna zehatu.

613 **Administrazio publikoek akordioak, itunak, hitzarmenak eta kontratuak egin ditzakete,**

613a) Baina zuzenbide publikoko beste pertsona batzuekin bakarrik.
613b) Eta parte hartzen duten alderdiak ez ezik, esparru pertsonala, funtzionala eta lurraldekoa ere identifikatu behar da, baita indarraldia ere.
613c) Eta nahitaez aldizkari ofizial batean argitaratu behar dira.
613d) Edozein gai edo auziri buruz, baldin eta interes publikoa asebetetzea badute helburu.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 29. gaia

**614 Erabat deuseza den administrazio-egintza bat badugu:**

614a) Berriz azter dezake ofizioz administrazioak berak edo administrazio-errekurtso bat aurkez diezaioke interesdun partikularrak.
614b) Berriz azter dezake ofizioz administrazioak berak, baina ezingo dio administrazio-errekurtsorik aurkeztu interesdun partikularrak.
614c) Administrazio-errekurtso bat aurkez diezaioke interesdun partikularrak, baina ezingo du berriz ofizioz aztertu administrazioak.
614d) Ezingo zaio administrazio-errekurtsorik aurkeztu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan soilik errekurritu baitaiteke.

**615 Administrazio-egintza hauetatik, zein ez dira egintza erabat deusezak?**

615a) Ezinezko edukia dutenak.
615b) Hierarkia aintzat harturik, organo nabarmen eskumengaberen batek ematen dituenak.
615c) Arau-hauste penal baten ondorioz ematen direnak.
615d) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz ematen direnak.

**616 Erabat deusezak diren zer administrazio-egintza berrikus daitezke ofizioz?**

616a) Edo administrazio-bideari amaiera eman diotenak edo irmo bihurtu direnak, errekurtsoa epe barruan ipini ez delako.
616b) Administrazio-bideari amaiera eman eta irmo bihurtu direnak, errekurtsoa epe barruan ipini ez delako.
616c) Administrazio-bidea amaitu ez dutenak eta irmo ez direnak, errekurtsoa epe barruan ipini ez delako.
616d) Administrazio-bideari amaiera eman eta irmo ez direnak, errekurtsoa epe barruan ipini delako.

617 Administrazio-egintza deuseztagarriak:

617a) Administrazioak alde bakarretik berrikus ditzake ofizioz, edozein unetan.
617b) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango ditu egintzak eman dituen administrazioak, aurrez interes publikorako kaltegarri deklaratuta.
617c) Administrazioak alde bakarretik berrikus ditzake, aurrez kaltegarri deklaratzen baditu administrazioarekiko auzien arloko organo judizial batek.
617d) Administrazioak ofizioz berrikus ditzake, erabat deusezak diren egintzetarako bete behar diren baldintza eta izapide berberekin.

618 Noiz zuzendu ditzake administrazioak bere egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak?

618a) Eman eta jakinarazten direnetik, gehienez ere, hamar eguneko epean.
618b) Interesdunek eskatzen dutenean; sekula ez ofizioz.
618c) Ofizioz; sekula ez interesdunek eskatzen dutenean.
618d) Noiznahi.

619 Interesdunen kalterako diren administrazio-egintzak:

619a) Errebokatu egin ditzake administrazioak, baina zenbait mugekin.
619b) Administrazioak ezin ditu errebokatu.
619c) Libreki erreboka ditzake administrazioak, nahiz eta preskripzio-epea igarota izan.
619d) Interesdunek administrazio-errekurtsoa jar diezaiekete, baina administrazioak ezin ditu errebokatu.

620 Non jartzen dira administrazio-egintza baten aurkako administrazio-errekurtsoak?

620a) Egintza eman duen administrazio-organoan bertan.
620b) Egintza eman duena ez den beste administrazio-organo batean.
620c) Administrazioarekiko auzien ordenako organo judizial batean.
620d) Objektibotasun- eta neutraltasun-bermeak dituen edozein erakunde publikotan.

621 Zer errekurtso jar daiteke administrazio-xedapen orokor baten aurka (erregelamendua)?

621a) Gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke.
621b) Berraztertze-errekurtsoa jar daiteke.
621c) Kexa-errekurtsoa jar daiteke.
621d) Ezin da administrazio-errekurtsorik jarri.

622 Izapideko administrazio-egintzak direla eta, zein da zuzena?

622a) Ezin zaie administrazio-bidean errekurtsorik jarri modu autonomoan.
622b) Administrazio-errekurtsoa jarri ahala izateko, gaiaren funtsa erabaki behar dute nahitaez.
622c) Administrazio-errekurtsoa jar dakieke, defentsa-gabezia eragiten badute.
622d) Administrazio-errekurtsoa jar dakieke, prozedura aurrera egin ezinik uzten badute izan ezik.

623 Administrazio-errekurtso bat ebazteko eskumena duen organoak:

623a) Ezin dio eskumen hori eskuordetu aurkaratutako administrazio-egintza eman zuen organoari.
623b) Aurkaratutako administrazio-egintza eman zuen organoari eskuordetu diezaioke eskumen hori, baldin eta gora jotzeko errekurtsoa bada.
623c) Aurkaratutako administrazio-egintza eman zuen organoari eskuordetu diezaioke eskumen hori, baldin eta berraztertze-errekurtso bat bada.
623d) Aurkaratutako administrazio-egintza eman zuen organoari eskuordetu diezaioke eskumen hori, erregelamendu-arau batek ahalbidetzen badio.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**624 Zer ondorio du egintza baten aurkako administrazio-errekurtsoa jartzeak?**

624a) Efikazia kentzen dio aurkaratutako egintzari, xedapen batek berariaz kontrakoa xedatzen duen kasuetan izan ezik.
624b) Errekurtsoa jartzeak ez dio efikaziarik kentzen aurkaratutako egintzari, xedapenek ezarritako salbuespenezko kasu jakinetan izan ezik.
624c) Ez dio inola ere efikaziarik kentzen aurkaratutako egintzari.
624d) Nolanahi ere, eta salbuespenik gabe, efikazia kentzen dio aurkaratutako egintzari.

**625 Administrazio-errekurtso bat ebazteko eskumena duen organoak aurkaratutako egintzaren betearazpena eten dezake, interes publikoari edo hirugarrenei zer kalte eragingo lieken haztatuta, betiere:**

625a) Edozein kasutan.
625b) Errekurtsogileak eskatzen duenean bakarrik.
625c) Betearazpenak konpondu ezin diren edo nekez konpon daitezkeen kalteak eragin eta aurkaratzearen oinarria erabateko deuseztasunerako aurreikusitako arrazoietakoren bat bada.
625d) Betearazpenak konpondu ezin diren edo nekez konpon daitezkeen kalteak eragiten baditu edo aurkaratzearen oinarria erabateko deuseztasunerako aurreikusitako arrazoietakoren bat bada.

**626 Aurkaratutako administrazio-egintzaren betearazpena eten dela ulertuko da, baldin eta, epe bat igaro delarik egintza eteteko eskaera erabakitzeko eskumena duen administrazioaren edo organoaren erregistro elektronikoan sartu denetik, errekurtsoa ebazteko eskumena duen organismoak ez badu hari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi. Zenbatekoa da epe hori?**

626a) Hamar egun.
626b) Hogei egun.
626c) Hilabete.
626d) Hiru hilabete.

**627 Administrazio-errekurtso bat izapidetzen ari dela, froga egiteko eskaera:**

627a) Ezin da egin, baldin eta hori ez bazen egin errekurritutako ebazpena eman zen prozeduran interesdunari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik.
627b) Ezin da egin, baldin eta hori ez bazen egin errekurritutako ebazpena eman zen prozeduran administrazioari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik.
627c) Nahitaezkoa da beti.
627d) Debekatuta dago beti.

**628 Errekurtsoaren ebazpenak errekurtsogilearen hasierako egoera inola ere larriagotu ezin izatea, zer printzipioren adierazgarri da?**

628a) Ofizialtasuna edo ofiziozko bultzada.
628b) Administrazioaren arbitrariotasunaren debekua.
628c) Reformatio in peius deritzonaren debekua.
628d) Egintzak mantentzea.

**629 Nork ebatzi behar du gora jotzeko errekurtsoa?**

629a) Ebazpena eman duen administrazio-organoak.
629b) Errekurritutako egintza eman zuen organoaren goragoko organoak.
629c) Errekurritutako egintza eman zuen organoari dagokion ministerioko edo saileko titularrak.
629d) Errekurritutako egintza eman zuen organoari dagokion administrazioaren gobernu-organoak.

630 Zer epe dago administrazio-egintza espresu baten aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzeko?

630a) Hogei egun.
630b) Hilabete.
630c) Hiru hilabete.
630d) Sei hilabete.

631 Gora jotzeko errekurtsoaren bidez zer egintza errekurri daitezke?

631a) Aurretik jarritako gora jotzeko errekurtso baten ebazpena.
631b) Ondare-erantzukizuneko prozedura baten ebazpena.
631c) Prozedura amaitzekoak diren akordio edo hitzarmenak.
631d) Administrazio-bidea amaitzen ez duten ebazpenak.

632 Zer epe du, gehienez ere, administrazioak gora jotzeko errekurtsoa ebazteko eta ebazpena interesdunei jakinarazteko?

632a) Hilabete.
632b) Hiru hilabete.
632c) Sei hilabete.
632d) Urtebete.

633 Gora jotzeko errekurtsoa ebazteko epea igaro eta ebazpenik ematen ez bada:

633a) Errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da.
633b) Errekurtsoa baietsi egin dela ulertuko da.
633c) Administrazio-prozedura berriz hasi beharko da.
633d) Egintza erabat deuseza dela ulertuko da.

634 Zer errekurtso jar daiteke gora jotzeko errekurtsoaren aurka?

634a) Gora jotzeko beste errekurtso bat jar daiteke.
634b) Berraztertze-errekurtsoa jar daiteke.
634c) Ezin da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri.
634d) Ezin da bestelako administrazio-errekurtsorik jarri, berrikuspen-errekurtso berezia izan ezik, legez ezarritako kasuetan.

635 Berraztertze-errekurtsoa:

635a) Administrazio-bidea amaitzen ez duten egintzen aurka jartzen da, eta nahitaezkoa da administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik.
635b) Administrazio-bidea amaitzen duten egintzen aurka jartzen da, eta nahitaezkoa da administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik.
635c) Administrazio-bidea amaitzen duten egintzen aurka jartzen da, eta aukerakoa da administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik.
635d) Administrazio-bidea amaitzen ez duten egintzen aurka jartzen da, eta aukerakoa da administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik.

636 Presuntziozko administrazio-egintza baten aurka (hau da, administrazio-isiltasun bidezkoa):

636a) Ezin da berraztertze-errekurtsorik jarri.
636b) Berraztertze-errekurtsoa jar daiteke noiznahi, presuntziozko egintza gertatu eta hurrengo egunetik aurrera.
636c) Berraztertze-errekurtsoa jar daiteke, presuntziozko egintza gertatu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean.
636d) Berraztertze-errekurtsoa jar daiteke, presuntziozko egintza gertatu eta hurrengo egunetik aurrera hiru hilabeteko epean.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**637 Berraztertze-errekurtso bat jarri eta ebazpen espresua ematen ez bada:**

637a) Hilabeteko epean, baietsi egin dela ulertuko da.
637b) Hilabeteko epean, ezetsi egin dela ulertuko da.
637c) Hiru hilabeteko epean, baietsi egin dela ulertuko da.
637d) Hiru hilabeteko epean, ezetsi egin dela ulertuko da.

**638 Hauetako zer arrazoik ez du justifikatzen berrikuspen-errekurtso berezia jartzea administrazio-egintza baten aurka?**

638a) Egintza ematean espedientean txertatutako dokumentuen ondoriozko egitezko okerren bat gertatzea.
638b) Gaia ebazteko funtsezko balioa duten eta, ondorengoak izanik ere, ebazpenaren okerra agerian uzten duten dokumentuak agertzea.
638c) Ebazpena prebarikazioaren ondorioz ematea, eta epai judizial irmo batek hala deklaratzea.
638d) Administrazio-egintza argi eta garbi eskumenik ez duen organo batek ematea, eta agintea desbideratzea.

**639 Zer epe dago berrikuspen-errekurtso berezia jartzeko, epai judizial irmo batek faltsutzat jotako dokumentu edo lekukotzek funtsezko eragina izan duten administrazio-ebazpen baten aurka?**

639a) Hiru hilabete, epai judiziala irmo bihurtzen denetik.
639b) Lau hilabete, epai judiziala irmo bihurtzen denetik.
639c) Hiru urte, aurkaratutako ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik.
639d) Lau urte, aurkaratutako ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik.

**640 Zer epe dago berrikuspen-errekurtso berezia ebatzi eta jakinarazteko?**

640a) Hiru hilabete: epea igaro eta ebazpenik ez badago, baietsitzat joko da errekurtsoa.
640b) Hiru hilabete; epea igaro eta ebazpenik ez badago, ezetsitzat joko da errekurtsoa.
640c) Hilabete; epe hori igaro eta ebazpenik ez badago, baietsitzat joko da errekurtsoa.
640d) Hilabete; epea igaro eta ebazpenik ez badago, ezetsitzat joko da errekurtsoa.

**641 Berrikuspen-errekurtso bereziaren ebazpena dela eta, zein da zuzena?**

641a) Ebazpen horren aurka errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
641b) Ezin du egintza errekurrituaren bidez ebatzitako arazoaren funtsaz erabaki; izan ere, errekurtsoaren egokitasunaz soilik erabaki dezake.
641c) Errekurritutako ebazpena eman zuen funtzionarioari dagokion diziplina-espedientea irekitzea eragingo du, errekurtsoa baiesten bada.
641d) Ezin da aurkaratu, ez administrazio-bidean, ez judizialean.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 30. gaia

**642 Konstituzioak ezartzen du, subjektu pribatuek, legeak finkatutako eran, eskubidea izango dutela beren ondasun eta eskubideetan izandako lesio guztien ordaina jasotzeko:**

642a) Baldin eta behar bezala aseguratuta badaude eta lesioa zerbitzu publikoen funtzionamendu arruntaren ondorioz gertatu bada.
642b) Salbu eta kalteak partikularraren erruagatik edo zabarkeriagatik izan badira.
642c) Ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta lesio horiek zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz gertatu badira.
642d) Salbu eta lesioa zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz gertatu bada.

**643 Nork du administrazio publiko guztien erantzukizun-sistema arautzeko eskumena?**

643a) Estatuak du legegintza-eskumen osoa.
643b) Autonomia-erkidego bakoitzak du legegintza-eskumen esklusiboa.
643c) Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean partekatzen da legegintza-eskumena.
643d) Eragindako kalte-galerak konpondu behar dituen administrazio publiko bakoitzari dagokio.

**644 Non arautzen da administrazioaren ondare-erantzukizuna gauzatzeko indarrean dagoen prozedura?**

644a) Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean.
644b) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean.
644c) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean.
644d) Nahitaezko desjabetzeari buruzko 1954ko Legean.

**645 Zer da administrazioaren ondare-erantzukizunaren funtsa?**

645a) Administrazioaren jarduerak sortutako arriskuen kostu ekonomikoak birbanatu beharra.
645b) Kaltea eragin duen administrazio publikoaren errua edo zabarkeria.
645c) Kaltea eragin duen funtzionarioaren errua edo zabarkeria.
645d) Partikularrak jasan beharrik ez duen kalte antijuridikoa pairatzea.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**646 Administrazioaren erantzukizun juridikoa, partikular bati eragindako kalteengatik:**

646a) Erantzukizun penala da beti.
646b) Ondare-arlokoa da soilik.
646c) Erantzun politikoa da soilik.
646d) Zuzenbide pribatuari lotutako erantzukizuna da beti.

**647 Administrazio publikoak partikular bati eragindako kalteengatik bere ondarearekin erantzuteko hiru baldintza bete behar dira; zein?**

647a) Erantzukizunaren kausa, kaltea eta kausalitate-erlazioa.
647b) Kaltea, kausalitate-erlazioa eta administrazioaren zabarkeria.
647c) Erantzukizunaren kasua, kaltea eta administrazioaren nahikotasun ekonomikoa.
647d) Kaltea, kausalitate-erlazioa eta ukituaren zabarkeriarik eza.

**648 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak onartzen du partikularrek eskubidea dutela jasaten duten lesio guztiengatik administrazioen kalte-ordaina jasotzeko, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo partikularrak legearen arabera eginbehar juridikoz jasan behar dituen kalteak direnean, baldin eta lesioa nola sortu bada?**

648a) Zerbitzu publikoen funtzionamendu ilegal edo irregularraren ondorioz sortu bada.
648b) Zerbitzu publikoen funtzionamendu anormalaren ondorioz sortu bada.
648c) Zerbitzu publikoen funtzionamendu normalaren ondorioz sortu bada.
648d) Zerbitzu publikoen funtzionamendu normal edo anormalaren ondorioz sortu bada.

**649 Erregelamendu edo administrazio-egintza bat baliogabetzeak berez dakar kalte-ordainerako eskubidea?**

649a) Bai, bi kasuetan.
649b) Ez, bi kasuetan.
649c) Bai erregelamenduaren kasuan, baina ez administrazio-egintzarenean.
649d) Bai administrazio-egintzaren kasuan, baina ez erregelamenduarenean.

**650 Partikularrari kaltea eragin diona administrazioa ez bada, administrazioaren babespean dagoen hirugarren bat baizik (adibidez, psikiatriko batean dagoen gaixo bat):**

650a) Ezin zaio ondare-erantzukizunik erreklamatu administrazioari.
650b) Hirugarren hori zaindu edo kontrolatu behar zuen funtzionario edo enplegatu publikoaren erantzukizun penala soilik erreklamatu daiteke.
650c) Administrazioaren ondare-erantzukizuna subsidiarioki baino ezin da eskatu, hirugarrenak kalte-ordainaren kostua bere gain hartu ezin badu.
650d) Babespean dituen pertsonen bermatzailetzat jotzen da Administrazioa, eta, beraz, pertsona horiek egindako kalteen erantzulea da.

**651 Kalteak une horretako zientzia- edo teknika-ezagutzen egoerarengatik aurreikusi edo saihestu ezin izan diren gertakari edo inguruabarrengatik gertatzen badira,**

651a) Ez da kalte-ordainik jasoko, baina ez da baztertzen laguntza- edo ekonomia-prestazioak aurreikustea kaltetuentzat.
651b) Kalte-ordaina jaso daiteke, baina ez laguntza- edo ekonomia-prestaziorik kaltetuentzat.
651c) Ez da kalte-ordainik jasoko, eta baztertu egiten da laguntza- edo ekonomia-prestazioak aurreikustea kaltetuentzat.
651d) Kalte-ordaina jaso daiteke, eta ez da baztertzen laguntza- edo ekonomia-prestazioak aurreikustea kaltetuentzat.

652 **Administrazio publikoaren ondare-erantzukizuna eskatzeko, nolakoa izan behar du lesionatuak alegatutako kalteak?**

652a) Benetakoa, psikologikoki edo ekonomikoki neurgarria eta pertsona edo pertsona-talde bati mugatua.
652b) Benetakoa edo hipotetikoa, ekonomikoki neurgarria eta pertsona edo pertsona-talde bati mugatua.
652c) Benetakoa, ekonomikoki neurgarria eta pertsona edo pertsona-talde bati mugatua.
652d) Benetakoa edo hipotetikoa, psikologikoki edo ekonomikoki neurgarria eta pertsona edo pertsona-talde bati mugatua.

653 **Zer hartuko da kontuan kalte-ordainaren zenbatekoa kalkulatzeko?**

653a) Erantzukizuneko administrazio-prozedurari ekiteko eskabidea zein egunetan aurkeztu zen.
653b) Lesioa benetan zein egunetan gertatu zen.
653c) Erantzukizuneko administrazio-prozedura zein egunetan ebatzi zen.
653d) Erantzukizuneko administrazio-prozeduran froga gauzatzea zein egunetan egin zen.

654 **Ondare-erantzukizuneko prozedura batean, kaltea behar bezala berdintzeko egokiago dela ikusten bada eta interes publikoari komeni bazaio, nola ordain daiteke kalte-ordaina?**

654a) Dirutan ordaindu beharrean gauzatan ordain daitezke, betiere interesduna bat badator.
654b) Aldizkako ordainketen bidez ordain daiteke, baina sekula ez gauzatan.
654c) Aldizkako ordainketen bidez ordain daiteke, administrazioak berak hala erabakitzen badu.
654d) Dirutan ordaindu beharrean gauzatan ordain daiteke, baina sekula ez aldizkako ordainketen bidez.

655 **Noiz preskribatzen du administrazioaren ondare-erantzukizunagatik kalte-ordaina erreklamatzeko eskubideak?**

655a) Hilabeteren buruan preskribatuko du, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edo kaltearen ondorioak agertu zirenetik aurrera.
655b) Hiru hilabeteren buruan preskribatuko du, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edo kaltearen ondorioak agertu zirenetik aurrera.
655c) Sei hilabeteren buruan preskribatuko du, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edo kaltearen ondorioak agertu zirenetik aurrera.
655d) Urtebeteren buruan preskribatuko du, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edo kaltearen ondorioak agertu zirenetik aurrera.

656 **Pertsonei kalte fisiko edo psikikoak eginez gero, noiz hasten da zenbatzen administrazioari ondore-erantzukizuna erreklamatzeko epea?**

656a) Lesioaren edo gaixotasunaren lehen sintomak agertzen diren egunetik.
656b) Prozedurari hasiera emateko eskabidean interesdunek adierazten duten egunetik.
656c) Sendatzen direnetik edo kalte horien ondorioak zehazten diren egunetik.
656d) Profesional tituludun batek behar bezala egiaztatutako lehen proba medikoak egin ziren egunetik.

657 **Nola ematen zaie hasiera administrazio publikoen ondare-erantzukizuna eskatzeko prozedurei?**

657a) Ofizioz edo interesdunek eskatuta.
657b) Ofizioz, bakarrik.
657c) Interesdunek eskatuta, bakarrik.
657d) Eragindako kalteak deklaratzen dituen epai judizial bat lortu ondoren, beti.

ISBN: 978-84-7777-667-3

658 Zer epe dago, gehienez ere, administrazioaren ondare-erantzukizuneko prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko?

658a) Hiru hilabete.
658b) Sei hilabete.
658c) Urtebete.
658d) Lau urte.

659 Administrazioaren ondare-erantzukizuneko prozedura bat ebatzi eta ebazpena jakinarazteko legeak aurreikusten duen epea igaro bada, baina horrelakorik egin ez bada, ebazpena:

659a) Partikularrari kalte-ordaina ematearen aurkakoa dela joko da.
659b) Partikularrari kalte-ordaina ematearen aldekoa dela joko da.
659c) Erabat deuseza dela joko da.
659d) Auzibidean aurkaratzeko modukoa dela joko da.

660 Norena izango da administrazio publikoek partikularrei eragindako kalte-galerengatiko erreklamazioen ardura, edozein izanik ere harreman juridikoa edota kalte-galera horiek gertatu diren esparrua?

660a) Jurisdikzio zibilarena.
660b) Zigor-arloko jurisdikzioarena.
660c) Lan-arloko jurisdikzioarena.
660d) Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioarena.

661 Administrazioak, berak kaltetu dituen partikularrei kalte-ordaina eman ondoren, zein kasutan eskatuko die erantzukizuna, ofizioz eta administrazio-bidetik, bere agintari eta gainerako langileei?

661a) Kasu guztietan.
661b) Baldin eta doloz jardun badute, bakarrik.
661c) Baldin eta dolo, erru edo zabarkeria astuna egon bada haien jardunean.
661d) Baldin eta dolo, erru edo zabarkeria astuna edo arina egon bada haien jardunean.

ISBN: 978-84-7777-667-3


# 31. gaia

**662 Posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko 43/2010 Legeak Sociedad Estatal Correos y Telégrafos sozietate anonimoa izendatzen du posta-zerbitzu unibertsala eskaintzeko operadore izateko; baina zenbat denborarako?**

662a) 10 urte.
662b) 15 urte.
662c) 25 urte.
662d) Muga-eperik gabe.

**663 Posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko 43/2010 Legearen arabera, nolakoak dira posta-zerbitzuak?**

663a) Interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak dira eta lehia askearen araubidean ematen dira.
663b) Interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak dira eta estatuaren monopolioaren araubidean ematen dira.
663c) Interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak dira, zeinak Estatuak ematen baititu zuzenean edo administrazio-emakida bat lortzen duten enpresa partikularrek bestela, zeharka.
663d) Zuzenean administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzu publikoak dira.

**664 Posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko 43/2010 Legearen arabera, zer da oroharreko prezioan aurrez zehaztutako zenbateko bat ordaindu ondoren, galera-, lapurreta- edo hondatze-arriskuen aurkako berme finkoa dakarren, eta bidaltzaileari, hala badagokio eta hark hala eskatzen badu, posta-bidalketa gordailutu izanaren edo hartzaileari entregatu izanaren froga bat ematen dion zerbitzua?**

664a) Autoprestazio-erregimenean egindako zerbitzua.
664b) Aleko tarifaren arabera emandako zerbitzua.
664c) Balio aitortuko bidalketa-zerbitzua.
664d) Bidalketa ziurtatuko zerbitzua.

ISBN: 978-84-7777-667-3

**665** **Posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko 43/2010 Legearen arabera, zer operadore mota da Estatuak posta-zerbitzu unibertsala emateko ardura eman dion operadorea?**

665a) Posta-operadorea.
665b) Izendatutako operadorea.
665c) Araugintzako agintaritza nazionala.
665d) Posta-zerbitzuaren erabiltzailea.

**666** **Hartzailearen posta-helbiderik gabeko bidalketekin loturiko zerbitzuak direla eta, zein da zuzena?**

666a) Izendatutako operadoreak bakarrik eman ditzake.
666b) Posta-zerbitzu unibertsalaren barruan sartutako zerbitzuak dira.
666c) Posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko 43/2010 Legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira.
666d) Autoprestazio-araubidearen bidez soilik eman daitezkeen zerbitzuak dira.

**667** **Posta-zerbitzu unibertsalaren eremuan sartzen dira nazioko eta mugaz haraindiko posta-bidalketak jasotzeko, onartzeko, sailkatzeko, garraiatzeko, banatzeko eta entregatzeko jarduerak; baina zenbat pisura bitartekoak?**

667a) Hogei kilogramora bitartekoak.
667b) Hamabost kilogramora bitartekoak.
667c) Hamar kilogramora bitartekoak.
667d) Bost kilogramora bitartekoak.

**668** **Correosen zerbitzuen arabera, zer neurri izan dezake gehienez ere posta-txartelak?**

668a) 25 × 20 cm.
668b) 25 × 15 cm.
668c) 25 × 12 cm.
668d) 23,5 × 12 cm.

**669** **Correosen zerbitzuen arabera, zer neurri izan dezake gutxienez gutun-azalak edo kaxak?**

669a) 12 × 8 cm.
669b) 14 × 9 cm.
669c) 15 × 10 cm.
669d) 18 × 10 cm.

**670** **Correosen zerbitzuak erakunde ofizial baten jakinarazpen bat bidali behar duenean, nola jardun behar du?**

670a) Etxean entregatzeko saialdi bakarra egin behar du.
670b) Etxean entregatzeko bi saialdi egin behar ditu; bat, 15:00ak baino lehen eta, bestea, ordu horren ondoren, edo alderantziz.
670c) Etxean entregatzeko bi saialdi egin behar ditu; bat, 12:00ak baino lehen eta, bestea, ordu horren ondoren, edo alderantziz.
670d) Etxean entregatzeko hiru saialdi egin behar ditu; bat, 12:00ak baino lehen; beste bat, 16:00ak baino lehen, eta, hirugarrena, ordu horren ondoren, ordena horri eutsi beharrik gabe.

671 Telekomunikazio-zerbitzu honen bidez, dokumentuak truka daitezke Correosen bi bulegotako faksimile gailuen artean edo Correosi baimendutako telefax-erabiltzaileen terminaletatik, bai eta fitxategi bidez onartutakoetatik ere, baldin eta masiboak badira. Denak ala denak etxean entregatzen dira. Zer zerbitzu da?

671a) Posta-zorroak.
671b) Zekograma.
671c) Posta bidezko igorpena.
671d) Burofaxa.

672 Correosen zerbitzuak direla eta, pakete urdinaren bidez zirkulazioa baimenduta daukan edozein objektu, produktu, substantzia edo materia izan dezakeen bidalketak egin daitezke, komertziala izan edo ez. Nola egin behar dira bidalketa horiek?

672a) Irekita egiten dira eta ziurtatuak izaten dira.
672b) Irekita egiten dira, eta ez dira ziurtatuak izaten.
672c) Itxita egiten dira, eta ziurtatuak izaten dira.
672d) Itxita egiten dira, eta ez dira ziurtatuak izaten.

673 Correosen zerbitzuak direla eta, jasotzean ordaintzeko igorpenen kasuan, zenbat da igorri daitekeen gehieneko zenbatekoa?

673a) 2.000 euro.
673b) 1.000 euro.
673c) 500 euro.
673d) 300 euro.

674 Correosen, igorpen nazionalaren bidez, pertsona fisiko edo juridiko bati ordainketak egiteko agindu daiteke beste batzuen kontura edo enkarguz posta-sarearen bidez, etxean, kontu korrontean edo bulegoan entregatuta, igorritako zenbatekoa bermatuz. Zenbat da igorri daitekeen gutxieneko zenbatekoa?

674a) 100 euro.
674b) 10 euro.
674c) 1 euro.
674d) 0,01 euro.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 32. gaia

**675 Zein da Applen gailuetan (iPhone, iPad edo Mac) fabrikatik instalatuta datorren nabigatzailea?**

675a) Mozilla Firefox.
675b) Internet Explorer.
675c) Safari.
675d) Google Chrome.

**676 Zer nabigatzaile lehenetsi da Windows 10en Internet Explorerren ordez?**

676a) Microsoft Edge.
676b) Opera.
676c) Safari.
676d) Firefox Sync.

**677 Zertarako balio du Google Chrome nabigatzailearen helbide-barrak?**

677a) Nabigatzeko, baina ez bilaketak egiteko.
677b) Bilaketak egiteko, baina ez nabigatzeko.
677c) Bai nabigatzeko, bai bilaketak egiteko.
677d) Ez du nabigazio-historia gordetzen uzten.

**678 Google Chromen:**

678a) Fitxa bakarrean hainbat leiho zabal daitezke: horretarako, irekitako leihoaren eskuinaldean dagoen plus (+) ikonoa sakatu behar da.
678b) Leiho bakarrean hainbat fitxa zabal daitezke: horretarako, irekitako fitxaren eskuinaldean dagoen plus (+) ikonoa sakatu behar da.
678c) Leiho bakarrean hainbat fitxa zabal daitezke: horretarako, irekitako fitxaren eskuinaldean dagoen izartxoa (*) ikonoa sakatu behar da.
678d) Leiho bakarrean fitxa bakarra zabal daiteke.

ISBN: 978-84-7777-667-3



679 Google Chromen:

679a) Ezinezkoa da pribatuan nabigatzea; ez dago ezkutuan nabigatzeko aukerarik.
679b) Modu pribatuan nabigatzen denean, cookieak, webguneei buruzko datuak eta formularioen bidez sartutako informazioa gordetzen dira.
679c) Modu pribatuan nabigatzen bada, jarduera ez da ikusgai egongo bisitatzen diren webguneetarako.
679d) Modu pribatuan nabigatzen bada, ez da nabigazio-historia gordeko.

680 Zer dira cookieak?

680a) Fitxategiak dira, eta erabiltzaileei buruzko informazioa biltegiratzen dute; erabiltzailea behar bezala identifikatzeko gordetzen dira, hari zerbitzu pertsonalizatuagoa eskaintzeko eta bakoitzaren nabigazio-modura hobeto egokitzeko.
680b) Osagai bat da, datuak biltzen dituena, datuoi buruzko etorkizuneko eskaerei bizkorrago erantzun ahal izateko.
680c) Bilaketa-tresnak dira, zeinak web-zerbitzarietan biltegiratutako fitxategiak bilatzen baitituzte gako-hitzen bidez.
680d) Birusen kontrako programak dira, eta nabigatzailean instalatuta datoz fabrikatik.

681 Googleren bidez esaldi zehatz bat duten web-orriak aurkitu nahi baditugu, zer egin behar dugu?

681a) Plus (+) zeinua jarri behar diogu esaldi horri atzetik.
681b) Izartxoa (*) zeinua jarri behar diogu esaldi horri atzetik.
681c) Komatxo artean jarri behar dugu esaldi zehatz hori.
681d) Bi puntu (:) jarri behar dizkiogu esaldi horri atzetik.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 33. gaia

**682 Ingelesezko neologismo bat da, peioratiboa edo gutxiesgarria, zeinak interneteko eduki batzuk deskribatzen baititu, publizitatearen bidez diru-sarrerak irabazteko sortuak. Batez ere, edukien kalitatearen edo zehaztasun ezaren kontura lortu nahi izaten dira diru-sarrerak, eta, horretarako, izenburu sentsazionalistak jartzen dituzte, klik-proportzio handiagoa erakarri eta material hori sare sozialen bitartez bidalia izan dadin. Zeri buruz gari gara?**

682a) Fake news edo albiste faltsuak.
682b) Phishing.
682c) Clickbait.
682d) Copyleft.

**683 Estatuko legediaren arabera, lan literario, artistiko edo zientifiko baten jabetza intelektuala dela eta, zein da zuzena?**

683a) Jabetza intelektualak profesionalki eta ordainsari baten truke era horretako lanak egiten dituen egilea soilik babesten du.
683b) Jabetza intelektuala obra merkaturatu denean baino ezin da juridikoki babestu.
683c) Jabetza intelektuala ezin da juridikoki babestu erregistro publiko batean formalki sartu arte.
683d) Jabetza intelektuala egileari dagokio, hura sortze hutsagatik.

**684 Europako Zuzenbidean noiz pasatzen dira jabari publikora literatura-lanak?**

684a) Lana argitaratzen denetik 70 urtera.
684b) Egilea hiltzen denetik 70 urtera.
684c) Lana argitaratzen denetik 50 urtera.
684d) Egilea hiltzen denetik 50 urtera.

**685 Doako lege-tresnak dira, erabiltzaileei (lizentziadunei) aukera ematen diena egile-eskubidez babestutako lanak erabiltzeko, lanaren egileari baimenik eskatu gabe. Zer dira?**

685a) Creative Commons lizentziak.
685b) Copyrighta.
685c) Egilearen eskubide morala.
685d) Kopia pribatuengatiko ekitatezko konpentsazioa.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 34. gaia

**686 Zer fitxategi motak du .wma luzapena?**

686a) Testu-fitxategiek.
686b) Irudi-fitxategiek.
686c) Audio-fitxategiek.
686d) Irakurtzeko fitxategiek.

**687 Zer formatutako fitxategiak dira .jpg luzapena dutenak?**

687a) Irudia.
687b) Bideoa.
687c) Exekutatzekoak edo sistemak.
687d) Audioa.

**688 Hauetako zer luzapen izaten dute irakurketa-formatuko fitxategiek?**

688a) .epub
688b) .mp3
688c) .gif
688d) .wav

**689 Zer dira .zip luzapeneko fitxategiak?**

689a) Fitxategi bat exekutatzeko formatuak dira, eta programak instalatzeko erabiltzen dira.
689b) Fitxategi konprimatuak dira, eta informazioa leku txikian gordetzeko edo Internet bidez hedatzeko erabiltzen dira.
689c) Testu-fitxategiak editatzeko eta sortzeko formatuak dira.
689d) Audioak entzuteko edo editatzeko erabiltzen dira.

**690 Hauetako zein zerbitzuk eskaintzen du hodeian biltegiratzeko zerbitzua?**

690a) WinZip.
690b) WinRAR.
690c) Dropbox.
690d) Dialnet.

ISBN: 978-84-7777-667-3

# 35. gaia

**691 Komunikazio sinkronikoaren ezaugarrietako bat da:**

691a) Informazioa denbora errealean Internet bidez trukatzen dela.
691b) Idatzizkoa bakarrik izan daitekeela (hala nola txata edo mezularitza).
691c) Pertsona guztiak espazio fisiko berean egon behar dutela.
691d) Bi pertsonek baino ezin dutela parte hartu, aldebiko informazio-trukea egiten baita.

**692 Zer da txatbota?**

692a) Audio eta bideo bidez soilik komunikatzeko aukera ematen duen txata da.
692b) Sareko hezkuntza-programa bati lotutako txat espezializatua da.
692c) Lagunak bilatzen eta harremanak egiten espezializatutako txata da.
692d) Txat bat da, zeinetan elkarrizketan ari den erabiltzaileetako bat gutxienez robota den.

**693 Zer esanahi du txat batean mezu bat letra larriz idazteak?**

693a) Berehala erantzutea espero da.
693b) Garrasi egitearen baliokide da.
693c) Mezua zirriborro gisa gordeko da, bidali gabe, momentuz.
693d) Elkarrizketa amaitzea.

**694 Zer da banaketa-zerrenda bat?**

694a) Lineako banaketa asinkronikoa egiteko leku bat.
694b) Egilearen eguneroko pertsonal gisa, bere intereseko edukiak dituen webgune bat.
694c) Bi norabideko aldi bereko komunikazio-sistema bat; aukera ematen du elkarrengandik urrun dauden pertsona-taldeekin bilerak egiteko.
694d) Posta elektronikoaren funtzio berezi bat da, Interneteko hainbat erabiltzaileren artean mezuak aldi berean banatzea ahalbidetzen duena.

**695 Posta elektroniko gisa Outlook erabiltzen badugu eta gehitu nahi ditugun hartzaileek gainerakoen helbideak ez jakitea nahi badugu, zein eremu erabili behar dugu?**

695a) Cc.
695b) Bcc (Cco).
695c) Cc-.
695d) Cc*.

ISBN: 978-84-7777-667-3



# 36. gaia

**696 Muskulu eta hezurretako nahasmendu hauetatik zein da sorbaldetako eta lepoko nahasmendua?**

696a) Tendinitisa.
696b) Tenosinobitisa.
696c) Ganglioia.
696d) Errotatzaileen zorroko tendinitisa.

**697 Datuak bistaratzeko pantaila baten aurrean lan egiten badugu, zer angelu osatu behar dute izterrek eta bizkarrak jarrera egoki bat edukitzeko?**

697a) 90º eta 100º.
697b) 75º eta 90º.
697c) 90º eta 120º.
697d) 75º eta 120º.

**698 Datuak bistaratzeko pantaila baten aurrean lan egiten badugu, zer distantzia utzi behar dugu begietatik pantailara bitartean jarrera egoki bat edukitzeko?**

698a) Ez 60 cm baino gutxiago, ezta 100 cm baino gehiago ere.
698b) Ez 30 cm baino gutxiago, ezta 70 cm baino gehiago ere.
698c) Ez 40 cm baino gutxiago, ezta 90 cm baino gehiago ere.
698d) Ez 60 cm baino gutxiago, ezta 80 cm baino gehiago ere.

**699 Argi urdin-bioletak:**

699a) Gure garunak gorputzaren erritmo biologikoa erritmo zikliko naturalekin sinkronizatzeko balio du.
699b) Aktibatu eta animatu egiten gaitu. Errendimendua eta ikasteko gaitasuna hobetu ditzake.
699c) Garrantzi handia du begi-niniaren konstrikzio-erreflexuan, hau da, begiak eguzki-erradiaziotik babesten dituen erreflexuan.
699d) Kalte egin diezaioke erretinari eta bizkortu egin dezake adinarekin lotutako makulako endekapena (ALME) agertzea.

ISBN: 978-84-7777-667-3

700 Ordenagailu-pantailaren aurrean egoteak eragiten duen begietako nekea saihesteko komeni da ikusmenari atsedenaldia ematea, begiak erlaxatzeko eta nekea gutxitzeko; baina zenbat denboran behin eman behar zaie atseden?

700a) 5 minutuan behin.
700b) 15 minutuan behin.
700c) 40 minutuan behin.
700d) 60 minutuan behin.

701 Ordenagailu-pantaila ikusmen-linea horizontalaren eta zenbat gradutako angeluaren trazaduraren arteko espazioan kokatu behar da ondo ikusteko moduan?

701a) Beheranzko 60ºko angeluan.
701b) Goranzko 60ºko angeluan.
701c) Beheranzko 90ºko angeluan.
701d) Goranzko 90ºko angeluan.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

**Erakunde Autonomiaduna**
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO